



Ingurumen Estrategiaren Agiria  
Saia 19.zk. 2003ko Apirila

**ingurumena.net**

*Zure esku dago*

# Garapen Jasangarriari buruzko Johannesburg-eko Nazioarteko Goi-bilera



**aurrera doan  
herria**



ELISKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU  
ETA INGURUMEN SAIA  
DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN  
DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE



**IHOBE**

Ingurumen Jarduera Sozietate Publikoa  
Sociedad Pública de Gestión Ambiental

## Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila

- 1.zk. 2000ko Azaroa. "Ingurugiroan Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-Administrazioak Egindako Gastu eta Inbertsioen Inpaktu Ekonomikoa"
- 2.zk. 2001eko Maiatza. "2001 Ekobarometro Soziala"
- 3.zk. 2001eko Urtia. "Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan: Laburpena"
- 4.zk. 2002ko Urtarrila. "Garapen jasangarrirako Europako Batasunaren estrategia"
- 5.zk. 2002ko Otsaila. "Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuen Inbentarioa" (Laburpena)
- 6.zk. 2002ko Apirila. "Bizikletan, kerik gabeko hirietarantz"
- 7.zk. 2002ko Maiatza. "Euskal Autonomia Erkidegoko Beharrezko Material Guztia. BMG 2002"
- 8.zk. 2002ko Uztaila. "Garraioa eta Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan. GI 2002 Adierazleak"
- 9.zk. 2002ko Abuztua. "Sustainable Development in The Basque Country"
- 10.zk. 2002ko Urtia. "Ingurumen Adierazleak, 2002"
- 11.zk. 2002ko Azaroa. "Berotegi-efektua Eragiten Duten Gasen Emisioen Inbentarioa Euskal Autonomia Erkidegoan 1990-2000"
- 12.zk. 2002ko Azaroa. "Ingurumena eta Lehiakortasuna Enpresan"
- 13.zk. 2002ko Abendua. "2002ko Industria Ekobarometroa"
- 14.zk. 2003ko Urtarrila. "Hiria, haurrak eta mugikortasuna"
- 15.zk. 2003ko Urtarrila. "Klima-aldaketa"
- 16.zk. 2003ko Urtarrila. "Jasangarritasunerako hezi. Eskolako Agenda 21: eskolarentzako gida" (CEIDA)
- 17.zk. 2003ko Otsaila. "Europako Erkidegoaren Ingurumeneko Seigarren Ekintza Programa"
- 18.zk. 2003ko Otsaila. "Erreforma Fiskal Ekologikoa Euskal Herrian"
- 19.zk. 2003ko Apirila. "Garapen Jasangarriari buruzko Johannesburg-eko Nazioarteko Goi-bilera"

[www.ingurumena.net](http://www.ingurumena.net)

Gure herriko Garapen Jasangarriaren inguruko Euskal Jaurlaritzaren orria

### ARGITARATZAILEA:

Nazio Batuak - New York, 2002

Eusko Jaurlaritza, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila

Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa - IHOBE

### DISEINUA:

Dual XJ. Comunicación & Diseño

### ITZULPENA:

Elhuyar

### LEGE GORDAILUA:

BI-XXXX-2003

%100 paper birziklatuan inprimatua

# **Garapen Jasangarriari buruzko Johannesburg-eko Nazioarteko Goi-bilera**



**Johannesburg (Hegoafrikar Errepublika),  
2002ko abuztuaren 26tik irailaren 4ra**



## Sailburuaren Aurkezpena



### Sabin Intxaurreaga

Eusko Jurlaritzako Lurralde Antolamendu  
eta Ingurumen Sailburua

Joan den uda bukaeran, itzaropen handirik gabe joan nintzen Johannesburg-era, Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Goi-bileran parte hartzera. Goi-bileraren helburu zen jasangarritasunari heltzeko gai nagusiak, azkenean, asmo-adierazpen soilean geldituko zirela pentsarazi zidan herrialde garatu batzuen jarrerak (Estatu Batuek, adibidez, Kiotoko Protokolo-loko oinarrizko konpromisorik ere ez zuten hartu nahi).

Aitortu behar dut Johannesburg-ekoa ez zela ez zuria ez beltza izan. Munduko jasangarritasunaren inguruan ez zen nahi eta behar bezainbeste aurrera egin, lehen aipatutako herrialde batzuen konpromiso faltagatik, hain zuzen; alabaina, Goi-bilera horren emaitza, ez zen hutsaren hurrengo izan. Oso ekarpen onak ere izan zituen, esaterako, nazioartean garapen jasangarriaren kontzeptua bera finkatzea. *Johannesburg 2002*ren ondoren, jada gobernu bakar batek ere ezingo du jasangarritasunaren irizpidea alde batera utzi bere politika definitzeko garaian; hau da, hemendik aitzina politika orok derrigor kontuan hartu beharko ditu garapen jasangarriaren hiru alderdiak: ingurumena, ekonomia eta gizarte.

Gainera, aipatu behar dut Hegoafrikako Goi-bileran argi geratu zela munduko jasangarritasuna lortzeko, lehendabizi, pobrezia errotik kendu behar dela eta munduaren erdiak (gutxieneko garbiketa-, osasun-, eta elikatze-baldintzak ere ez dituenek) oinarrizko baliabideak eskuratzeko laguntza behar duela.

Goi-bilera amaitu ostean, pauso zailena eman behar da: atsegin handiz aurkeztu dizuedan txosten honetan idatzita dagoena betetzea, alegia. Jardunaldiak bukatzean, Thabo Mbeki Goi-bilerako lehendakari eta Hegoafrikako lehen ministroak hauxe esan zuen: "jardunaldiek arrakasta izan dutenetz hemendik aurrera gertatuko denak esango digu". Benetan uste dut gure herriak oso tresna baliagarria duela: *Garapen Jasangarriaren EAEko Ingurumen Estrategia 2002-2020*. Etorkizunerako lan-programa hori, hain zuzen, Goi-bilera horretako nazioarteko foroetan parte hartutakoek oso begi onez ikusi zuten. Jasangarritasunarekin daukagun konpromisoa argia eta sendoa da, baina denoi dagokigu apustu hau errealitate bihurtzea, horretarako jasangarriak ez diren joera eta kontsumo irizpideak aldatuz. Hori guztia, etorkizuneko belaunaldiei zor diegun elkartasunarengatik ez ezik, garapen eta ongizate handiagoa lortzeko bide bakarra garapen jasangarria delako ere egin behar dugu.





## Aurkibidea

<b>I. KAPITULUA</b>	<b>GOI-BILERAN ONETSITAKO EBAZPENAK</b>	<b>7</b>
	1. Deklarazio politikoa	8
	2. Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Goi-bilerako Erabakiak Aplikatzeko Plana	11
	3. Esker-onak herriari eta Hegoafrikar Errepublikako gobernuari	50
	4. Garapen Jasangarriari buruzko Goi-bileran parte hartzen duten ordezkarien egiaztagirak	50
<b>II. KAPITULUA</b>	<b>PARTE-HARTZAILEAK ETA LANEN ANTOLAKETA</b>	<b>51</b>
	A. Goi-bileraren data eta tokia	52
	B. Parte-hartzaileak	52
	C. Goi-bileraren hasiera	55
	D. Lehendakaria eta Goi-bilerako mahaiko beste kide batzuk hautatzea	55
	E. Araudia onestea	55
	F. Programa eta antolaketako beste kontu batzuk onestea	55
	G. Gobernuarteko erakundeen akreditazioa	56
	H. Lanen antolaketa, Batzorde Nagusia sortzea barne	56
	I. Goi-bileran parte hartzen duten ordezkarien egiaztagirak	56
	<b>GAUTENG-EKO DEKLARAZIOA</b>	<b>57</b>







# I KAPITULUA

GOI-BILERAN ONETSITAKO  
EBAZPENAK



# 1. ebazpena. Deklarazio politikoa\*

Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Goi-bilera,

Johannesburgen (Hegoafrikar Errepublika) egin da, 2002ko abuztuaren 26tik irailaren 4ra, eta

1. Garapen Jasangarriari buruzko Johannesburgeko Deklarazioa, ebazpen honetako eranskinean dagoena, onartu du.
2. Batzar Orokorrari gomendatu dio Goi-bilerak onartu duen Garapen Jasangarriari buruzko Johannesburgeko Deklarazioa bere egiteko.



## Eranskina. Garapen Jasangarriari buruzko Johannesburgeko Deklarazioa

### Gure sorreratik etorkizunera arte

1. Munduko herrien ordezkariok, 2002ko irailaren 2tik 4ra arte Johannesburgen (Hegoafrikar Errepublika) Garapen Jasangarriari buruzko Goi-bileran bildu garenok, garapen jasangarriaren aldeko konpromisoa berresten dugu.
2. Gizaki guztion duintasuna aintzat hartzeko premia jabetzen den gizarte humanitarioa, bidezkoa eta eskuzabala eraikitzeko konpromisoa hartzen dugu.
3. Goi-bileraren hasieran, munduko haurrek, hitz soil eta argiz, esan digute etorkizuna haiena dela eta honako erronka bota digute: gure ekintzei esker pobrezia, ingurumenaren degradazioa eta garapen jasanezina sortzen duten gizatzarkeriak eta laidorik gabeko mundua hereda dezaten.
4. Gu guztion etorkizun diren haur horiei erantzutearren elkartu gara hemen gaudenok munduko txoko guztietatik etorriak eta bizitzaren alderdi hainbatek bultzatuak, itxaropenezko mundu berri eta hobe bat sortzeko premia larria delakoan baikaude.
5. Beraz, herri, nazio, eskualde eta mundu mailan garapen ekonomikoa, garapen soziala eta ingurumenaren zaintza sustatzeko eta indartzeko ardura kolektiboa hartu dugu, horiek baitira garapen jasangarria lortzeko giltzarriak, elkarren mendekoak eta sinergikoak.
6. Gizateriaren sorleku den kontinente honetatik, Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Goi-bilerako Erabakiak Aplikatzeko Planaren eta Deklarazio honen bidez, gure

hurkoekiko, etorkizuneko belaunaldiekiko eta izaki bizidun guztiekiko dugun ardura aldarrikatzen dugu.

7. Gizateria zulo batean dagoela ikusirik, elkartu egin gara pobrezia errotik amaiarazteko eta giza garapena sustatzeko aukera emango digun plan praktikoa eta zehatz bat eratzeko beharri modu positiboan erantzuteko prest.

### Stockholmetik Rio de Janeirora eta Johannesburgera

8. Orain 30 urte, Stockholmen, bat etorri ginen ingurumenarriaduraren arazoari heltzeko premia. Orain hamar urte, Rio de Janeiron egin zen Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzian<sup>1</sup>, bat etorri ginen honako honetan: Rioko printzipioetan oinarritutako garapen jasangarria lortzeko ezinbestekoak zirela ingurumenaren babesa, garapen soziala eta garapen ekonomikoa. Helburu hori lortzeko, mundu mailako programa bat, "Agenda 21"<sup>2</sup>, eta Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko Deklarazioa onetsi genituen, eta haiekiko atxikimendua berresten dugu egun. Rioko Konferentzia garrantzitsua izan zen, hari esker ekintza-plan berri bat egin baita garapen jasangarriko.
9. Rioko Konferentziaren eta Johannesburgekoaren artean, munduko nazioak hainbat konferentzia handitan elkartu dira, Nazio Batuen babespean: Garapenerako Finantziarioari buruzko Nazioarteko Konferentzian<sup>3</sup> eta Dohako Ministroen Konferentzian, besteak beste<sup>4</sup>. Aipatutako

\* 17. osoko saioan onetsia, 2002ko irailaren 4an.

<sup>1</sup> Ingurumenari buruzko Nazio Batuen Konferentziaren Txostena, Stockholmen, 1972ko ekainaren 5etik 16ra (Nazio Batuen argitalpena, salmenta-zenbakia: S.73.II.A.14 eta zuzenketa), I. kap.

<sup>2</sup> Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentziaren Txostena, Rio de Janeiron 1992ko ekainaren 3tik 14ra (Nazio Batuen argitalpena, salmenta-zenbakia: S.93.I.8 eta zuzenketa), I. eta III. bolumenak.

<sup>3</sup> Ibid., I. bol.: Konferentzian onetsitako ebazpenak, I. ebazpena, I eta II. eranskinak.

<sup>4</sup> Garapenerako Finantziarioari buruzko Nazioarteko Konferentzia, Monterrey (Mexiko), 2002ko martxoaren 18tik 22ra (Nazio Batuen argitalpena, salmenta-zenbakia: S.02.II.A.7), I. kap., I. ebazpena, eranskina.

konferentzia horiek gizateriaren etorkizunerako ikuspegi zabal bat zehaztu zuten<sup>5</sup>.

10. Pozik gaude Johannesburgeko Goi-bileran hain herri desberdinak bildu direlako, garapen jasangarria gauzatuko eta errespetatuko den mundurako bidea eraikitze beren iritziak adieraztera. Johannesburgeko Goi-bilerak, era berean, berretsi egin du mundu mailako adostasuna eta Lurreko herri guztien arteko ituna lortzeko egin den aurrerapena garrantzitsua dela.

## Konpondu behar ditugun arazo larriak

11. Onartzen dugu pobrezia errotik kentzea, ekoizteko eta kontsumitzeko modu jasanezinak aldatzea, garapen sozialerako eta ekonomikorako baliabide naturalen oinarria babestea eta antolatzea funtsezko helburuak eta ezinbesteko baldintzak direla garapen jasangarria lortzeko.
12. Gizartea biztanle aberats eta pobreetan banatzen duen lurrikaria eta garatutako mundua garapen-bidean dagoen mundutik bereizten duen izugarriko alde mehatxu larriak dira munduaren oparotasun, segurtasun eta egonkortasunerako.
13. Munduko ingurumena hondatuz doa. Biodibertsitatea hondatuz doa; arrainen populazioak agortuz doaz; desertifikazioa aurrera doa gero eta lur emankor gehiago bereganatuz; dagoeneko nabari dira klima-aldaketaren eragin kaltegarriak; hondamendi naturalak gero eta ugariagoak dira eta gero eta suntsitzaileagoak, eta garapen-bidean dauden herrialdeak gero eta ahulagoak bihurtu dira; bitartean, airearen, uraren eta itsasoaren poluzioak ez dio duintasunez bizitzen uzten milioika gizakiri.
14. Globalizazioak beste hedadura bat eman die arazoei. Merkatuen integrazio bizkorak, kapitalaren mugikortasunak eta mundu osoko inbertsio-korranteetako igoera nabariak beste arazo batzuk sortu dituzte, baina baita garapen jasangarria lortzeko aukera berri batzuk ere. Baina globalizazioaren onura eta kostuak ez dira berdina bana-

tzen, eta garapen-bidean dauden herrialdeentzat oso zaila da erronka horri erantzutea.

15. Desberdintasun horiek iraunkor bihurtzeko arriskua dago eta, gure ekintzekin haien bizitzak guztiz aldatzen ez baditugu, munduko pobreek galdu egin dezakete beren ordezkariengan duten konfiantza, baita sistema demokratikotarik ere (defendatzeko konpromisoa hartu dugun herrietan, hain juxtu), eta beren ordezkariak promesa hutsak besterik ez dituztela egiten pentsatzen has daitezke.

## Garapen jasangarriarekin dugun konpromisoa

16. Lan egiteko prest gaude gure dibertsitate aberatsa, gure indar kolektiboaren iturria, aliantza konstruktibo batean erabil dadin aldaketak gauzatzeko eta guztion helburu den garapen jasangarria lortzeko.
17. Gizakion elkartasuna sustatzeak duen garrantzia onartuta, dei bat egiten dugu elkarrizketa eta lankidetzaren bidez munduko zibilizazioen eta herrien artean, alde atera utzita norberaren arraza, minusbaliotasuna, erlijioa, hizkuntza, kultura edo tradizioa.
18. Pozik gaude Johannesburgeko Goi-bilerak arreta giza duintasunaren unibertsaltasunean jarri duelako, eta prest gaude oinarriko zerbitzuak edukitzeko aukera berehala zabaltzeko, ez soilik helburuei eta egutegi buruzko erabakiak hartuz, baita lankidetzaren erakunde bidez ere. Adibidez, honako oinarriko zerbitzuok: edateko uraren horniketa, saneamendua, etxebizitza egokia, energia, osasun-zerbitzua, elikagaien segurtasuna eta biodibertsitatearen babesa. Era berean, elkarlanean jardungo dugu, alde batetik elkarri lagunduz finantza-baliabideak izateko, merkatuen irekitzeaz onura lortzeko, gaitasunaren sorrera sustatzeko, garapena lortzeko teknologia modernoa erabiltzeko, eta, bestetik, ziurtatzeko teknologiaren transferentzia sustatzen dela, giza baliabideak, hezkuntza eta gaitasuna hobetzen direla azpigarapena betirako errotik kentzeko helburuarekin.
19. Berretsi egiten dugu gure egindako promesa, alegia, gure herrian garapen jasangarria egoteko mehatxu larriak izan daitezkeen munduko arazoen aurkako borrokari garrantzi berezia eta lehenetsia ematekoa. Hona hemen arazo horietatik aipagarrienak: gose kronikoa, malnutrizioa, herri batzuek besteak mendean hartzea, gatazka armatuak, drogen lege kontrako trafikoen arazoak, antolatutako delikuentzia, ustelkeria, hondamendi naturalak, armen lege kontrako trafikoa, pertsonen salerosketa, terrorismoa, intolerantzia eta arraza, etnia, erlijio eta bestelako ezaugarriengatik gorrotoa bultzatzea, xenofobia eta gaixotasun endemikoak, kutsakorrak eta kronikoak, batez ere, GIB/HIESA, paludismoa eta tuberkulosia.
20. Konprometitzen gara ziurtatzera emakumearen sustapena eta emantzipazioa eta genero-berdintasuna Agenda 21eko, Milurtekoa garatzeko helburuetako<sup>6</sup> eta Goi-bilerako Erabakiak Aplikatzeko Planeko ekintza guztietan egongo direla.



<sup>5</sup> A/C.2/56/7, eranskina.

<sup>6</sup> Batzar Orokorren 55/2 ebazpena.



21. Onartzen dugu gizarteak badituela bitartekoak eta baliabideak pobrezia errotik kentzeko eta garapen jasangarria lortzeko helburuaren erronkei erantzuteko. Bat eginda gehiago ahaleginduko gara erabilgarri ditugun baliabide horiek denen onerako aprobeitza daitezten.
22. Hori dela-eta, garapenari buruzko gure helburuak betetzeko, oraindik neurri horiek hartu ez dituzten herrialde garatuak presatzen ditugu nazioartean garapenerako laguntza ofizialerako adostutako mailak lortzeko neurri zehatzak har ditzaten.
23. Eskualdeetan elkarte eta aliantza indartsuagoak sortzea hobesten eta bultzatzen dugu –adibidez, Afrikaren Garapenerako Aliantza Berria–, eskualdeen arteko elkarlana, nazioarteko lankidetzak handiagoak eta garapen jasangarria sustatzeko.
24. Arreta berezia jartzen jarraituko dugu garapen-bidean dauden eta uharte diren estatu txikiak eta gutxiago garatuta dauden herrialdeen garapen-beharretan.
25. Biztanleria indigenek garapenean ezinbesteko zeregina dutela berresten dugu.
26. Kontuan hartzen dugu garapen jasangarriak parte-hartze handia eskatzen duela –maila guztietan– epe luzerako politikak eratzeko, erabakiak hartzeko eta jarduerak gauzatzeko. Talde handi guztiekin erakunde egonkorak sortzeko jo eta ke lanean jarraituko dugu, gizartearen dagokigun lana baita hori, betiere haien independentzia errespetatuz, haietako bakoitzak ezinbesteko zeregina baitu.
27. Bat gatzeko sektore pribatuak –bai enpresa handiek bai txikiak– erantzukizun handia duela komunitate eta gizarte bidezko eta jasangarriak eratzeko ahaleginean, dagokion jardueren bidez.
28. Bat gatzeko, halaber, lan ordaindua izateko aukerak gehitzeko laguntza eman behar dela, aintzat harturik laneko oinarrizko eskubideei buruzko Lanaren Nazioarteko Erakundearen printzipioen Deklarazio<sup>7</sup>.
29. Sektore pribatuko enpresek beren ekintzen ardura osoa hartu behar dutela –araudi garden eta egonkorra lagun dutela– ere bat gatzeko denok.
30. Araudia maila guztietan sendotzera eta hobetzera konprometitzen gara Agenda 21, Milurtekoaren garapenaren helburuak eta Goi-bilerako Erabakiak Aplikatzeko Plana modu eraginkorrean aplikatzea lortzeko.

### Etorkizuna multilateralismoa da

31. Garapen jasangarria lortzeko ditugun helburuak betetzeko, nazioarteko erakundeak eta erakunde multilateralak behar ditugu, eraginkorrak, demokratikoak eta beren ekintzeekin arduratsuak direnak.
32. Nazio Batuen Gutuneko printzipio eta helburuekiko eta nazioarteko zuzenbidearekiko dugun jarrera berresten dugu, bai eta multilateralismoa sustatzeko asmoa ere. Nazio Batuak gidari izatearen alde gaude, bera baita –munduko erakunde unibertsalena eta adierazgarriena izaki– garapen jasangarria sustatzeko aproposena.
33. Horretaz aparte, garapen jasangarriko ditugun helburuen bidean egiten diren aurrerapenak aldizka egiaztatzerik konprometitzen gara.

### Nola lortu

34. Ados gaude prozesu horretan Johannesburgeko Goi-bilera historikoan parte hartu duten talde handi eta gobernu guztiek esku hartu behar dutela.
35. Indarrak biltzera konprometitzen gara, gure planeta salbatzeko, giza garapena sustatzeko eta oparotasun eta bake unibertsalak lortzeko.
36. Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Goi-bilerako Erabakiak Aplikatzeko Plana betetzera eta han ezartzen diren epeetan helburu sozioekonomikoak eta ingurumenekoak bizkorrago lortzera konprometitzen gara.
37. Afrikatik, gizateriaren sorlekutik, munduko herrien eta lurzorua oinordetzan hartuko duten belaunaldien aurrean, garapen jasangarria errealitate bihurtu dadin lan egitera konprometitzen gara, hori baita gu guztion nahia.

<sup>7</sup> Ikus Laneko Oinarrizko Printzipio eta Eskubideei buruzko LANEren Deklarazioa eta haren Jarraipena, Lanaren Nazioarteko Konferentziak onetsia 86. bileran, Genevan, 1998ko ekainaren 16an (Geneva, Lanaren Nazioarteko Erakundea, 1998).

## 2. ebazpena. Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Goi-bilerako Erabakiak Aplikatzeko Plana\*

Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Goi-bilera

Johannesburgen (Hegoafrika) egin da 2002ko abuztuaren 26tik irailaren 4ra eta,

1. Garapen Jasangarriari buruzko Erabakiak Aplikatzeko Plana, ebazpen honen eranskina, *onesten du*, eta
2. Batzar Orokorrari Goi-bilerak onetsi duen Aplikatzeko Plana bere egiteko gomendatu dio.



## Eranskina. Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Goi-bilerako Erabakiak Aplikatzeko Plana

### Aurkibidea

Kapitulua	Paragrafoak	Orria
I. Sarrera.....	1–6	12
II. Pobrezia errotik kentzea.....	7–13	12
III. Kontsumitzeko eta ekoizteko modu jasanezinak aldatzea.....	14–23	15
IV. Garapen ekonomikoaren eta sozialaren baliabide naturalen oinarria babestea eta kudeatzea.....	24–46	19
V. Garapen jasangarria globalizazio-bidean dagoen munduan.....	47–52	29
VI. Osasuna eta garapen jasangarria.....	53–57	30
VII. Garapen-bidean dauden eta uharte diren estatu txikien garapen jasangarria.....	58–61	31
VIII. Afrikarentzako garapen jasangarria.....	62–71	32
IX. Eskualdekako beste ekimen batzuk.....	72–80	35
A. Latinoamerikarako eta Kariberako garapen jasangarriko ekimenak.....	73–74	36
B. Garapen jasangarria Asian eta Ozeano Barean.....	75–76	36
C. Garapen jasangarria mendebaldeko Asiako eskualdean.....	77–78	36
D. Garapen jasangarria Europarako Batzorde Ekonomikoaren eskualdean.....	79–80	36
X. Gauzatzeko bitartekoak.....	81–136	37
XI. Garapen jasangarriko erakunde-esparrua.....	137–170	44
A. Helburuak.....	139	45
B. Garapen jasangarria mundu osoan sustatzeko erakundeak sendotzea.....	140–142	45
C. Batzar Orokorraren eginkizuna.....	143	46
D. Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren eginkizuna.....	144	46
E. Garapen Jasangarriari buruzko Batzordearen eginkizuna.....	145–150	47
F. Nazioarteko erakundearen eginkizuna.....	151–157	47
G. Garapen jasangarriaren aldeko erakundearen akordioak sendotzea eskualde mailan.....	158–161	48
H. Garapen jasangarria sustatzeko erakundeak sendotzea nazio mailan.....	162–167	49
I. Talde nagusien parte-hartzea.....	168–170	49

\* 17. osoko saioan onetsia, 2002ko irailaren 4an.

## I. Sarrera

1. Garapen jasangarria lortzeko oinarritzko printzipioak eta ekintza-programa Nazio Batuek 1992an Rio de Janeiron egin zuten Ingurumenari eta Garapenari buruzko Konferentzian<sup>8</sup> sortu ziren. Rioko printzipioekin<sup>9</sup>, Agenda 21<sup>9</sup> osoa aplikatzearekin eta ondoren Agenda 21 gauzatzeke Planarekin<sup>10</sup> dugun jarrera berresten dugu. Horretaz gainera, nazioartean garapenarekin lotuta adostu diren helburuak betetzera ere konprometitu gara, Milurtekoko Deklarazioan<sup>11</sup> eta Nazio Batuen konferentzia nagusietako azken dokumentuetan agertzen diren eta 1992az geroztik egin eta adostu diren akordioetako helburuak barne.
2. Aplikatze-plan honek Konferentziaz geroztik iritsitako lorpenak osatuko ditu eta gainerako helburuak betetzea bizkortuko du. Asmo horrekin, maila guztietan jardura zehatzak egitera eta neurriak hartzea konprometitzen gara nazioarteko lankidetzaren indartzeko, betiere kontuan izanda Rioko printzipioak: besteak beste, Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko Deklarazioko 7. printzipioa<sup>12</sup>, ardura komunei baina bereiziei dagokiena. Halaber, lan horrek garapen jasangarriaren hiru osagaiak integratzea sustatuko du —hazkunde ekonomikoa, garapen soziala eta ingurumena zaintzea—. Elkarren mende dauden eta elkar sendotzen duten zutabeak dira hiru horiek. Pobrezia errotik kentzea, ekowitzeko eta kontsumitzeko modu jasanezina aldatzea, garapen ekonomikorako eta sozialerako baliabide naturalen oinarria babestea eta antolatzea helburu nagusiak eta ezinbesteko baldintzak dira garapen jasangarria lortzeko.
3. Onartzen dugu Goi-bilerako erabakiak aplikatzea biztanle guztien onurarako izan behar dela, batez ere, emakume, gazte eta talde ahulen onurarako. Gainera, eginkizun horretan interesa duten alderdi guztiek parte hartu behar dute lankidetzaren erakunde bidez, bereziki iparraldeko eta hegoaldeko gobernuen artean, alde batetik, eta gobernuen eta gizarte zibileko talde nagusien artean, bestetik, garapen jasangarriari buruz erabat onartutako helburuak lortzeko. Monterreyko Itunean<sup>13</sup> argi ikusten den bezala, erakunde horiek ezinbestekoak dira globalizazio-bidean dagoen munduan garapen jasangarria lortzeko.
4. Herrialdeetan eta nazioartean gai publikoak ondo kudeatzea beharrezkoa da garapen jasangarria lortzeko. Nazio mailan, garapen jasangarriaren oinarri dira ondo eraikitako ingurumen-politikak, politika ekonomikoak eta sozialak, biztanleen beharrak kontuan hartzen dituzten erakunde demokratikoak, legearen inperioa, ustelkeriaren aurkako borrokarako neurriak, generoen arteko berdintasuna eta inbertsioetarako inguru egokia. Globalizazioaren ondorio moduan, kanpoko faktoreak orain garapen-bidean dauden herrialdeen arrakasta edo porrota eragiten duten faktore

kritikoak dira nazio mailan. Herrialde garatuak eta garapen-bidean dauden herrialdeen arteko aldeak zera adierazten du: mundu osoan garapen jasangarria lortzeko egiten diren aurrerapenak bere horretan eduki eta bizkortzeko oraindik ere beharrezkoa dela inguru ekonomiko eta nazioarteko; hain zuzen, nazioarteko lankidetzaren bidez ere finantza- teknologiararen transferentzia, zorraren eta merkataritzaren alorretan— eta mundu mailako erabakiak hartzerakoan garapen-bidean dauden herrialdeen parte-hartze osoa eta eraginkorra bultzatuko duena.

5. Garapen jasangarria lortzeko eta hura guztiontzat onuragarria izango dela ziurtatzeko, ezinbestekoak dira bakea, segurtasuna, egonkortasuna eta giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak errespetatzea, garapenerako eskubidea barne, bai eta kultura-aniztasuna errespetatzea ere.
6. Kontuan hartzen dugu etika garapen jasangarriko garrantzitsua dela eta, ondorioz, Agenda 21 aplikatzerakoan kontuan eduki behar dela azpimarratzen dugu.

## II. Pobrezia errotik kentzea

7. Pobrezia errotik kentzea da egun munduak daukan erronkarik handiena eta garapen jasangarria lortzeko ezinbestekoa den baldintza, batez ere garapen-bidean dauden herrialdeentzat. Izan ere, herrialde bakoitzak du bere herriaren garapen jasangarria lortzeko eta bere herrialdeko pobrezia errotik kentzeko ardura, eta ikaragarria da nazio mailako garapen-politikek eta -strategiek zeregin horretan duten garrantzia. Maila guztietan adostutako eta zehaztutako neurriak behar dira, garapen-bidean dauden herrialdeek beren garapen jasangarriaren inguruko helburuak bete ditzaten. Helburu horiek pobreziaren nazioartean adostu diren helburu eta xedeekin bat etorri behar dute, Agenda 21ean, Nazio Batuen beste konferentzietako azken dokumentuetan eta Milurtekoko Deklarazioan agertzen diren helburuak barne. Horrek ondoko helburuetara bideratutako neurriak, maila guztietan, hartzea dakar:
  - a) Erdira murriztea, 2015. urterako, eguneko dolar bat baino gutxiagoko diru-sarrera duten, gosea pairatzen duten eta edateko urik ez duten gizon-emakumeen proportzioa;
  - b) Elkartasunerako nazioarteko funts bat sortzea pobrezia errotik kentzeko eta garapen-bidean dauden herrialdeetan giza eta gizarte-garapena sustatzeko, Batzar Orokorak zehaztutako dituen urratsak kontuan hartuta. Horretaz gainera, ekarpenak borondatezkoak direla eta Nazio Batuek dituzten funtsekin bikoiztea saihestu behar dela nabarmendu behar da, eta sektore pribatuak eta partikularrek gobernuarekin ekimenen finantziazioaren parte hartzea sustatu;

<sup>8</sup> Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentziaren Txostena, Rio de Janeiron 1992ko ekainaren 3tik 14ra (Nazio Batuen argitalpena, salmenta-zenbakia: S.93.I.8 eta zuzenketa).


<sup>9</sup> *Ibid.*, I. bol.: Konferentzian onetsitako ebazpenak, I. ebazpena, I eta II. eranskina.

<sup>10</sup> Batzar Orokoraren S-19/2 ebazpena, eranskina.

<sup>11</sup> Batzar Orokoraren 55/2 ebazpena.

<sup>12</sup> Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentziaren Txostena, Rio de Janeiron 1992ko ekainaren 3tik 14ra (Nazio Batuen argitalpena, salmenta-zenbakia: S.93.I.8 eta zuzenketa), I. bol.: Konferentzian onetsitako ebazpenak, I. ebazpena, I. eranskina.

<sup>13</sup> Garapenerako Finantziarioari buruzko Nazioarteko Konferentzia, Monterrey (Mexiko), 2002ko martxoaren 18tik 22ra (Nazio Batuen argitalpena, salmenta-zenbakia: S.02.II.A.7), I. kap., I. ebazpena, eranskina.




- c) Garapen jasangarriko nazio mailako programak eta herri eta erkidego mailan garapenekoak egitea, herrialde bakoitzak pobrezia gutxitzeko bultzatutako estrategien zati gisa, hala dagokionean, pobrezian bizi diren biztanleak eta haien erakundeak sustatzeko. Programa horiek biztanleen lehentasunak adierazi behar dituzte eta erraztu egin behar die produkzio-baliabideak izateko, zerbitzu publikoetara eta erakundeetara jotzeko, eta batez ere lurzorua, ura, lan-aukerak, kreditua, hezkuntza eta osasuna izateko aukerak;
- d) Emakumeek, gizezkoen aukera berdinekin, erabakiak hartzeko prozesuetan osoki parte har dezaten sustatzea maila guztietan, genero-ikusuntuak politika eta estrategia guztietan sartuz, emakumeen aurkako indarkeria- eta diskriminazio-modu guztiak ezabatuz eta emakumeen eta neskatuen egoera, osasuna eta ongizate ekonomikoa hobetuz, murrizketarik gabe eta berdintasunean aukera ekonomikoak, lurzorua, mailegua, hezkuntza eta osasunerako zerbitzuak eskainiz;
- e) Politikak egitea eta neurriak hartzea herri indigenek eta haien komunitateek jarduera ekonomikoetarako dituzten aukerak hobetzeko eta haien enplegua ugartzea, hala dagokionean gaitasuna, laguntza tekniko eta mailegua sustatzeko neurriak hartuz; kontuan hartzea oraindik ere ezinbestekoa dela baliabide eta ekosistema berriagarriekiko mendekotasun tradizionala eta zuzena, haien aprobetxamendu jasangarria barne, herri indigenek eta haien komunitateen ongizate ekonomiko eta fisikorako eta kultur ongizaterako;
- f) Biztanle guztiei osasunerako oinarritzko zerbitzuak ematea eta osasunerako ingurumen-arriskuak murriztea, kontuan izanik haurren behar bereziak eta pobrezia, osasunaren eta ingurumenaren arteko loturak, baita garapen-bidean dauden eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeei finantza-baliabideak eta laguntza teknikoak ematea ere, eta ezagutzak transferitzea;
- g) Arduratzea mundu osoko haurrek lehen mailako hezkuntzako ziklo osoa amai dezaten eta hezkuntzako mailako maila guztietarako aukera bera izan dezaten;
- h) Nekazaritzako baliabideak izateko aukera ematea pobrezian bizi diren pertsonen, batez ere emakumeen eta komunitate indigenen, eta sustatzea, hala badagokio, luraren jabetzari buruzko xedapenak, baliabideak kudeatzeko tokiko sistemak eta taldekako jabetzakoak kontuan hartzen eta babesten diren lurretan;
- i) Oinarritzko landa-azpiegitura ezartzea, ekonomia dibertsifikatzea eta garraibidea hobetzea eta pobreek landa-eremuetatik merkatuetarako, merkatuei buruzko informaziorako eta mailegurako aukerak hobetzea nekazaritza jasangarriari eta landa-garapenari laguntzeko asmoz;
- j) Nekazaritza jasangarriari buruzko oinarritzko tekniken eta ezagutzen berri ematea –baliabide naturalen antolaketa barne– nekazari txiki eta ertainei, arrantza eta baserriar pobreei, batez ere garapen-bidean dauden herrialdeetan. Horretarako, hainbat interes eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzarako kontuan hartuko dituzten ikuspuntuak hartuko dira, betiere nekazaritzako ekoizpena eta elikagai-segurtasuna handitzeko helburuarekin;
- k) Elikagai-kopurua handitzea eta haien kostua murriztea, alde batetik eta, bereziki, uztak kudeatzeko eta elikagaiak ekoizteko teknologiak eta metodoak erabiliz –adibidez, banaketa-sistema egokiak eta eraginkorrak–, eta bestetik, adibidez, hiri- eta landa-eremuetako biztanleen eta enpresen arteko harremanak bultzatzen diren komunitatean oinarritutako lankidetzarako erakundeak sustatuz;
- l) Desertifikazioaren kontra egitea eta lehorteen eta uholdeen eraginak arintzea. Alde batetik, hainbat neurri hartuz, besteak beste, informazioa eta iragarpen meteorologikoak hobeto erabiltzea, alerta-sistema goiztiarrak, lurzorua eta baliabide naturalen antolaketa, nekazaritza-praktikak eta ekosistemen zaintzea hobetzea, egungo joerak alderantzizatzeko eta lurzorua eta baliabide hidrikoen degradazioa ahalik eta gehien murrizteko. Eta bestetik, finantza-baliabide nahikoak eta aurreikus daitezkeenak ematea Nazio Batuen Konbentzioa aplikatzeko, lehorteei eta desertifikazioei eragindako herrialdeetan, batez ere Afrikan<sup>14</sup>, desertifikazioaren aurkako borrokari buruzko konbentzioa; hain zuzen, hori baita pobrezia errotik kentzeko bideetako bat;
- m) Saneamendu-zerbitzuetarako aukera handitzea gizakion osasuna hobetzeko eta bularreko umeen eta haurren heriotza murrizteko, lehentasuna emanez uraren horniketari eta garapen jasangarriko eta pobrezia murrizteko nazio mailako estrategiak onbidatzei, horrelakorik balego behintzat.
8. Gizakion eta ingurumenaren osasuna babesteko, beharrezkoa da ur garbia eta edatekoa eta saneamendu-zerbitzu egokiak hornitzea. Horri dagokionez, erdira murriztea adostu genuen, 2015. urtea baino lehen, edateko urik edo hura ordaindu ezin duten pertsonen ehunekoa (hala dio Milurtekoko Deklarazioak) eta oinarritzko saneamendu-zerbitzuak ez dituzten pertsonen ehunekoa. Eta horretarako, honako helburuak dituzten neurriak hartu beharko lirateke maila guztietan:
- a) Etxeetarako saneamendu-sistema eraginkorrak diseinatzea eta ezartzea;
- b) Erakunde publikoetan saneamendua hobetzea, batez ere eskoletan;
- c) Higiene-praktika onak sustatzea;
- d) Haurrentzako hezkuntza eta dibulgazioa sustatzea, portaera-aldaketan eragile baitira horiek;
- e) Kostu txikiko eta gizartearen eta kulturaren ikuspuntutik onargarriak diren teknologiak eta praktikak sustatzea;
- f) Finantziario- eta lankidetzarako mekanismo berritzaileak diseinatzea;
- g) Saneamendua baliabide hidrikoen antolatze-estrategietan integratzea.
9. Denen artean adostutako neurriak hartzea eta lankidetzarako ekimenak maila guztietan hobetzea energia-zerbitzu fidagarri eta kostu bidezkoak izateko aukera handituz, garapen jasangarriarako. Zerbitzu horiek Milurtekoko garapenenerako helburuak betetzea erraztu behar dute, pobrezian bizi diren pertsonen ehunekoa 2015. urtea baino lehen erdira jaiste barne. Hori,aldi berean, pobrezia arinduko duten beste zerbitzu garrantzitsu batzuk sortzeko izango da, kontuan izanda energia izateak pobrezia errotik kentzea erraztu egin dezakeela. Horrek ondoko helburuetara bideratutako neurriak maila guztietan hartzea dakar:
- a) Energia-zerbitzu eta -baliabide fidagarriak, kostu bidezkoak, ekonomikoki bideragarriak, gizartearentzat

<sup>14</sup> Nazio Batuek, *Treaty Series*, 1954. bol., 33480 zk.

- onargarriak eta ekologikoki arrazoizkoak izateko aukera hobetzea, herrialde bakoitzaren berezitasunak eta egoerak kontuan hartuta, hainbat neurriren bidez: landa elektrifikatuz, energia deszentralizatzeko sistematik erabiliz, energia berriztagarrien iturriak hobeto aprobetxatuz, gutxiago poluitzen duten erregai likidoak eta gaseosoak erabiliz eta energia-eraginkortasuna handituz. Horretaz gainera, nazio bakoitzeko ekimenen alde egiteko eskualdeen arteko eta nazioarteko lankidetzak areagotu egin beharko litzateke honako baliabideak erabiliz: finantza- eta teknologia-alorretako gaitasuna eta laguntza eta finantza-mekanismo berriak areagotzea, bereziki mikroekonomiari eta mesoekonomiari dagokienek. Baliabide horietan kontuan hartu behar dira, bestalde, pobreei aukera horiek ahalbidetzen dizkieten faktoreak;
- b) Biomasa, zura eta zura eskuratzeko iturriak aprobetxatzeko teknologia modernoak izateko aukera hobetzea, eta biomasarekin lotutako eragiketarako komertzializatzea, batez ere nekazaritzako hondakinen erabilpena, landa-eremuetan eta ekintza horiek jasangarriak direnean;
- c) Biomasa modu jasangarrian erabil dadin sustatzea eta, dagokionean, energia berriztagarrien beste iturri batzuk ere sustatzea egungo erabilerak hobetuz. Horretarako, baliabideak antolatu behar dira, zura hobeto aprobetxatu eta produktu eta teknologia berriak eta hobetuak erabili;
- d) Laguntza ematea erregai fosil likidoak eta gaseosoak gutxiago poluitzeko moduan erabiltzeko, baldin eta hori ingurumenaren ikuspuntutik arrazoizkoagoa, gizartearentzat onargarria eta kostuen arabera eraginkorra bada;
- e) Nazio mailan energia-baliabideei buruzko erregulazio-politikak eta -esparruak egitea. Horiek bultzatu behar dute energia-alorrean energia-zerbitzu fidagarri, kostu bidezkoak, ekonomikoki bideragarriak, gizartearentzat onargarriak eta ekologikoki arrazoizkoak izateko aukera hobetzeko behar diren baldintza ekonomiko, sozialen eta instituzionalen sorrera. Energia-zerbitzu horien ezaugarriek honakoa izan behar dute helburu betiere: garapen jasangarria lortzea eta landa-eremuetan, hiri-inguruetan eta hiriguneetan pobrezia errotik kentze;
- f) Nazioarteko eta eskualdeen arteko lankidetzak handitzea energia-zerbitzu fidagarriak, kostu bidezkoak, ekonomikoki bideragarriak, gizartearentzat onargarriak eta ekologikoki arrazoizkoak izateko aukera hobetzeko, pobrezia murrizteko programen barruan. Horretarako, baldintza egokiak sustatu behar dira eta gaitasuna sendotzeko beharrei erantzun behar zaie, hala dagokionean arreta berezia ipiniz landa-eremuetan eta bakartutako eremuetan;
- g) Ahal den bizkorren sustatzea eta erraztea –herrialde garatuaren Laguntza tekniko eta finantzarioarekin, baita sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzarako erakunde bidez ere– pobreek energia-zerbitzu fidagarri, kostu bidezkoak, ekonomikoki bideragarriak, gizartearentzat onargarriak eta ekologikoki arrazoizkoak izateko aukera. Horretarako, hiru alderdi eduki behar dira kontuan: alde batetik, herrialdeetako energiaren inguruko politikak erabakigarriak direla garapen jasangarriaren alorrean; bestetik, garapen-bidean dauden herrialdeetako biztanleen bizi-maila hobetzeko ezinbestekoa dela energia-zerbitzuak asko handitzea, eta, azkenik, zerbitzu horiek eragin positiboa dutela pobrezia errotik kentzeko eta bizi-maila hobetzeko.
10. Industria-garapenak pobrezia errotik kentzeko eta baliabide naturalak modu jasangarrian antolatzeko ematen duen laguntza sendotzea. Horretarako, honako helburuetara bideratutako neurriak hartu behar dira maila guztietan:
- a) Laguntza ematea eta baliabideak mugiaraztea industria-produktibitate eta -lehia handitzeko, baita garapen-bidean dauden herrialdeetako industria-garapena handitzeko ere, lehentasunezko baldintzetan eta denen artean adostuta ekologiarren ikuspuntutik arrazoizkoak diren teknologiak transferitzea barne;
- b) Laguntza ematea lan ordaindua izateko aukerak handitzeko, kontuan hartuta Laneko Oinarrizko Printzipio eta Eskubideei buruzko Lanaren Nazioarteko Erakundearen Deklarazioa<sup>15</sup>;
- c) Mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen sorrera sustatzea, batez ere gaitzearen, heztearen eta ezagutza praktikoak eskuratzearen bidez, eta nekazaritza industrialari arreta berezia eginez, landa-komunitateetan bizimodu-iturri baita;
- d) Finantza- eta teknologia-laguntza ematea, hala bada, garapen-bidean dauden herrialdeetako landa-komunitateei, meatzaritzak maila txikian bizimodua modu jasangarrian ateratzeko eskaintzen dizkien aukerak aprobetxa ditzaten;
- e) Garapen-bidean dauden herrialdeei laguntza ematea kostu txikiko teknologia seguruak gara ditzaten, haien bidez sukaldean egiteko eta ura berotzeko erregaia eskuratzeko edo aurrezteko;
- f) Baliabide naturalak kudeatzeko laguntza ematea, pobreei bizimodua modu jasangarrian ateratzeko baliabideak eskaintzeko asmoz.
11. Txabola-auzoetan bizi diren 100 milioi biztanle baino gehiagoren bizi-maila nabarmen hobetzea, 2020. urtea baino lehen, "Txabola-auzorik gabeko hiriak" ekimenenean proposatzen den bezala. Horrek ondoko helburuetara bideratutako neurriak maila guztietan hartzea dakar:
- a) Pobreei lurzorua eta jabetza, etxebizitza egokia eta oinarrizko zerbitzuak hiriguneetan eta landa-eremuetan izateko aukera hobetzea, familiaburu diren emakumeei arreta berezia eginez;
- b) Material iraunkorrak, kostu txikikoak eta teknologia egokiak erabiltzea pobreenen etxebizitza egokiak eta seguruak eraikitzeko, eta garapen-bidean dauden herrialdeei finantza- eta teknologia-laguntza ematea haien kultura, klima, baldintza sozialak eta hondamendi naturalei aurre egiteko duten ahulezia kontuan hartuta;
- c) Landa-eremuetako pobreen lana, mailegua eta diru-sarrerak hobetzea, emakumearen eta gizonezkoaren arteko aukera-berdintasuna sustatuko duten nazio mailako politika egokiak eginez;
- d) Deuseztatzea mikroenpresek eta egituratu gabeko sektoreek topatzen dituzten beharrezkoak ez diren oztopoak, araei dagozkienak eta bestelakoak;
- e) Tokiko agintariei laguntzea hiri-garapeneko planen esparruan txabola-auzoak hobetzeko programak egiten

<sup>15</sup> Laneko Oinarrizko Printzipio eta Eskubideei buruzko LANEren Deklarazioa eta haren Jarraipena, Lanaren Nazioarteko Konferentziak onetsia 86. bileran, Genevan, 1998ko ekainaren 16an (Geneva, Lanaren Nazioarteko Erakundea, 1998).





eta, batez ere, pobreei etxebizitzaren araudiari buruzko informazioa helarazten.

12. Neurri eraginkorrak berehala hartzea Lanaren Nazioarteko Erakundearen 182 zenbakiko Hitzarmenean ageri diren hurrek lan egiteko modurik okerrenak kentzeko, eta estrategiak garatzea eta aplikatzea onartutako nazioarteko arauen aurka dauden lana egiteko moduak kentzeko.
13. Nazioarteko lankidetzaren sustatzea honako honetarako: haurren lanari eta horren ondorio larriari aurre egiten laguntzeko hala eskatzen duten garapen-bideko herriari. Batez ere, pobrezia-egoerak deuseztatzea bideratutako politika sozial eta ekonomikoaren bidez lagundu behar zaie. Horrez gain, laneko arauak merkataritza babesteko ez erabiltzea nabarmendu behar da.

### III. Kontsumitzeko eta ekoizteko modu jasanezinak aldatzea

14. Munduan garapen jasangarria lortzeko, ezinbestekoa da gizartearen ekoizte- eta kontsumitze-moduetan aldaketa handiak egitea. Herrialde guztiek sustatu behar dituzte kontsumitzeko eta ekoizteko modu jasangarriak; herrialde garatuak aurrea hartu behar dute alor horretan eta herrialde guztiei egin behar die mesede prozesu horrek, Rioko printzipioak aintzat harturik, besteak beste ardurakomunei baina bereiziei buruzkoa (Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko Deklarazioko 7. printzipioa). Gobernuek eta nazioarteko erakunde eskudunek, sektore pribatuak eta talde nagusi guztiek jarrera aktiboa azaldu behar dute kontsumitzeko eta ekoizteko modu jasanezinak aldatzeko helburuarekin. Horrek ondoren adierazten diren neurriak hartzea dakar maila guztietan.
15. Hamar urteko programa-multzo bat bultzatzea eta sustatzea herrialdeetako eta eskualdeetako ekimenen alde, kontsumitzeko eta ekoizteko modu jasangarrien aldeko aldaketa bizkortzeko, baita ekosistemen mantenu-gaitasunaren mugen barruan garapen ekonomikoa eta soziala sustatzeko ere. Hala, ekoizpen-baliabide eta -prozesuak eraginkortasun handiagoarekin eta modu jasangarriagoan erabiliko lirateke; aldiz, baliabideen degradazioa, poluzioa eta hondakinak murriztu egingo lirateke. Horrez gain, hazkunde ekonomikoaren eta ingurumen-hondamenaren arteko lotura eten egingo litzateke. Herrialde guztiek hartu behar dute parte —herrialde garatuak dagokie aitzindari izatea— eta kontuan izan behar dituzte garapen-bidean dauden herrialdeen beharrak eta garatzeko gaitasuna; halaber, herrialde horietatik iturri guztietatik Laguntza tekniko eta finantzarioa eta haien gaitasuna indartzeko laguntza bilatu behar dute. Horrek ondoko neurriak hartzea dakar maila guztietan:
  - a) Zaintze- eta ebaluatze-jarduera, baliabide, neurri eta mekanismo zehatzak finkatzea, baita —hala dagokionean— bizi-zikloaren analisia egitea ere, egiten diren arrerapenak neurtzeko. Horretarako, kontuan izan behar da herrialde batzuek aplikatutako irizpideak baliabideak batzuentzako egokiak ez izatea edo batzuek arrazoitu gabeko kostu ekonomikoak edo sozialak sortzea, batez ere garapen-bidean dauden herrialdeei;
  - b) Ekoizteko eta kontsumitzeko modu jasangarriak sustatzeko politika eta neurriak onestea eta gauzatzea,

- besteak beste, 'Poluitzen duenak ordain dezala' irizpidea aplikatuz (Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko Deklarazioko 16. printzipioan azaltzen da);
- c) Ekoizpen-eta kontsumo-politikak eratzea egiten diren produktuak eta ematen diren zerbitzuak hobetzeko; era berean, ingurumenean eta osasunean dituzten ondorioak murriztea, hala behar izanez gero irizpide zientifikoak erabiliz: adibidez, bizi-zikloaren azterketa.
- d) Programak egitea modu jasangarrian ekoizteak eta kontsumitzeak duen garrantziaz jendea sentsibilizatzeko, batez ere, herrialde guztietako gazteak eta gizartearen garrantzitsuak diren sektoreak, bereziki herrialde garatuak. Programak egiteko hainbat baliabide erabili daitezke: hezkuntza, informazio publikoa, kontsumitzaileak informatzea, publizitatea eta bestelako bideak, kontuan izanik betiere tokiko, herrialdeko edo eskualdeko balio kulturalak.
- e) Kontsumitzaileei kontsumitzeko eta ekoizteko modu jasangarriez, baita gizakion osasunarekin eta segurtasunarekin lotutako alderdiez ere, informatzeko neurri eraginkorrak, gardenak, egiaztagarriak, ez-diskriminatzaileak, borondatezkoak eta nahasterik sortzen ez dutenak lantzea eta onestea. Informatzeko neurri horiek ez dira merkataritzarako ezkutuko eragozpen gisa erabili behar;
- f) Guztien artean ados jarriz gero, eraginkortasun ekologikoa handitzea, iturri guztien finantza-laguntzarekin, gaitasuna, teknologia-transferentzia eta teknologia-trukea sendotzeko, garapen-bidean dauden herrialdeekin eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeekin, nazioarteko erakunde eskudunekin lankidetzan betiere.

16. Gutxiago poluitzen duten ekoizpen-metodoetako eta eraginkortasun ekologikoko neurrietako inbertsioak handitzea herrialde guztietan. Horretarako, hainbat baliabide erabili daitezke: sustapen-neurriak eta planak eta laguntza-politikak araudi-, finantza- eta zuzenbide-esparru egokiak ezartzeko. Horrek ondoko helburuetara bideratutako neurriak maila guztietan hartzea dakar:
  - a) Gutxiago poluitzen duten eta ekoizpen-metodo eraginkorragoak erabiliko dituzten ekoizpen-programak eta -zentroak ezartzea eta haien laguntza ematea, besteak beste, gaitasuna sendotzeko pizgarriak eta laguntza emanez, enpresek —batez ere garapen-bidean dauden herrialdeetako enpresa txikiak eta ertaineko-ekoizpena handi dezaten eta garapen jasangarria susta dezaten;
  - b) Gutxiago poluitzen duten ekoizpen-tekniketan eta eraginkortasun ekologikoko neurrietan inbertitzeko pizgarriak ematea; adibidez, finantziario publikoko maileguak, arrisku-kapitalak, laguntza tekniko eta gaitasun-programak enpresa txiki eta ertainentzat. Horrez gain, saihestu egin behar dira merkataritza itxuraldatzen duten eta Munduko Merkataritza Erakundearen araukin bat ez datozen neurriak.
  - c) Gutxiago poluitzen duten metodoei, ekologikoki eraginkorrak diren neurriari eta ingurumen-antolaketarako neurriari buruzko informazioa biltzea, betiere kostuen aldetik eraginkorrak badira, eta ekologikoki arrazoizkoak diren teknologiei buruzko praktika egokien eta jakintza espezializatuen trukea sustatzea erakunde publikoen eta pribatuen artean;
  - d) Enpresa txikiak eta ertaineko informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzeko gaitze-programak ematea.

17. Ekoizpen-eta kontsumo-moduen gaia sartzea garapen jasangarriaren politika, programa eta estrategietan, baita, hala balegokio, pobrezia murrizteko estrategiak ere.
18. Enpresetan ardura sustatzea. Horrek maila guztietan neurriak hartzea dakar, honako helburu hauekin:
  - a) Industriari gizartean eta ingurumenean duen zeregina hobetzerako bultzatzea borondatezko ekimenen bidez; besteak beste ingurumena antolatze sistemak, jokabide-kodeak, ingurumen-eta gizarte-gaiei buruzko egiaztatze-eta argitaratze-neurriak ezarri. Ekimen horietan kontuan eduki behar dituzte Normalizazioen Nazioarteko Erakundearen arauak eta jasangarritasunari buruzko txostenak aurkezteari buruzko jarraibideak, Txostenak Aurkezteko Munduko Ekimenean emandakoak, baita Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko Deklarazioko 11. printzipioa ere.
  - b) Enpresen, jarduerak gauzatu zituzten komunitateen eta interesa duten beste alderdien arteko elkarriketa sustatzea;




- c) Finantza-erakundeak bultzatzea erabakiak hartzeko prozesuetan jasangarritasuna kontuan har dezaten;
  - d) Lantokian lankidetzako erakundeak eta programak ezarzea, gaitze- eta hezte-programak batez ere.
19. Eskumena duten maila guztietako agintariak bultzatzea honako honetara: erabakiak hartu behar dituztenez garapen jasangarriarekin lotutako alderdiak kontuan izan ditzatela, baita herrialdeetako eta herrietako garapena planifikatzeko, azpiegiturako inbertsioetako, enpresa-garapenerako eta kontratazio publikoko erabakietan ere. Horrek maila guztietan honako neurri hauek hartzea dakar:
    - a) Garapen jasangarriko estrategiak eta programak egiteko laguntza ematea, baita azpiegiturako inbertsioei eta enpresen garapenera buruzko erabakietan ere.
    - b) Ingurumena babesteari eta baliabide ekonomikoak erabiltzearen kostuak sartzeari jarraitzea, kontuan hartuz, alde batetik, 'Poluitzen duenak ordain dezala' irizpidea eta, bestetik, interes publikoa eta, azkenik, ez merkataritza ez nazioarteko inbertsioak ez direla eraldatu behar;
    - c) Ingurumenari kalterik egiten ez dioten ondasun eta zerbitzuak sortzeko eta zabaltzeko kontratazio publiko politikak sustatzea;
    - d) Gaitasuna sendotzeko jarduerak eta gaitze-jarduerak antolatzea agintari eskudunei paragrafo honetan adierazitako ekimenak abian jartzen laguntzeko;
    - e) Eraginaren ebaluatze-prozedurak aplikatzea ingurumenean.



20. Gobernuei, eskualdeetako eta nazioarteko erakunde eskudunei eta interesa duten gainerako alderdiei eskatzea aplikatzea Garapen Jasangarriari buruzko Batzordeak garapen jasangarriaren erabilerrari buruzko saioren bederatzigarren aldirian onetsitako gomendioak eta ondorioak, jarraian ageri diren alderdiak eta aukerak barne. Kontuan eduki behar dira, ordea, alde batetik, herrialde eta eskualde bakoitzaren ezaugarri eta egoera zehatzak; bestetik, estatuek, munduko ingurumena maila berean degradatzen ez dutenez, erantzukizun komunak dituztela, baina bereziak. Horrek maila guztietan honako neurri hauek hartzea dakar:
  - a) Gehiago bultzatzea finantza-baliabideen ekarpena, teknologiaren transferentzia, gaitasunaren sustapena eta ekologikoki arrazoizkoak diren teknologien hedapena. Horretarako, kontuan eduki behar dira Garapen Jasangarriari buruzko Batzordearen gomendioak eta ondorioak, 9/1<sup>16</sup> erabakiko –garapen jasangarriaren erabilerrari buruzkoa– A ataleko 3. paragrafoan eta D ataleko 30. paragrafoan ageri direnak.
  - b) Energiari buruzko alderdiak sartzeari —adibidez, energia-eraginkortasuna eta irisgarritasun ekonomiko eta fisikoa— programa sozioekonomikoetan, batez ere energia asko kontsumitzen duten sektoreen politiketan, baita bizitza erabilgarri luzeko energia kontsumitzen duten azpiegituren planifikazioan, kudeaketan eta zaintzean ere (adibidez, sektore publikoa, garraioa, industria, nekazaritza, urbanismoa, turismoa eta hirigintza).
  - c) Teknologia alternatiboak asmatzea eta hedatzea iturri berriztagarrietako energiaren ekoizpenaren proportzioa handitzeko, energia-eraginkortasuna handituz eta ahal den teknologia aurreraturik gehien erabiliz; adibidez, erregai fosilen ustiapenerako ahal den gutxien poluitzen duten teknologiak.
  - d) Ahal izanez gero, ahal den energia baliabide berriztagarri gehien erabiltzea, energia ahal den eraginkorren erabiltzea, teknologia modernoak ahal den gehien aplikatzea —adibidez, erregai fosilak ustiatzeko teknologia aurreratuak eta gutxien poluitzen dutenak— eta energia-baliabide arruntak modu jasangarrian erabiltzea. Hori guztia eginez gero, garapen jasangarria lortzeko gero eta behar handiagoa den epe luzerako energia izateko beharra ase liteke.

<sup>16</sup> Ikus *Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren Dokumentu Ofizialak*, 2001, 9 zk.ko gehigarria (E/2001/29), I.B. kap.



- e) Energiaren hornikuntza dibertsifikatzea. Alde batetik, lehendik dauden teknologiak perfektionatu, edo beste batzuk asmatu: gutxiago poluitzen dutenak eta eraginkorragoak, eskura eduki ditzakegunak eta ekonomikoak, batez ere erregai fosilak eta energia-iturri berriztagarriak –energia hidroelektrikoak barne– ustiatzeko erabiltzen direnak; bestetik, haiek garapen-bidean dauden herrialdeei transferituz, elkarrekin adostutako baldintza egokietan. Asko handitzea –eta ahalik eta lasterren– mundu osoan erabiltzen diren energia-iturri berriztagarrien proportzioa, energia-eskaintza osoan haren ekarpena handitzeko. Proportzio-handitze horretarako kontuan eduki behar dira nazio mailako helburuen garrantzia eta eskualde mailan zehaztutako helburuak eta –hala balegokio– borondatez egindako ekimenak; horretaz gain, arduratu egin behar da energia-politikek garapen-bidean dauden herrialdeei pobrezia errotik kentzeko egiten ari diren ahaleginetan lagun diezaieten. Bestalde, aldizka erabilgarri dauden datuak aintzat hartu behar dira, egin diren aurrerapean aztertzeko.
- f) Petrolio gordinarekin lotutako sugarrak edo gas-ihesak murrizteko neurrien alde egitea, batez ere Laguntza tekniko eta finantzarioa emanez garapen-bidean dauden herrialdeei, sektore pribatuaren laguntzarekin.
- g) Tokiko azpiegiturak eta energia-iturriak aprobetxatzea eta erabiltzea maila horretako hainbat erabileratarako, eta landa-komunitateen parte-hartzea sustatzea –Agenda 21ean aurreikusitako tokiko taldeak barne–, nazioarteko komunitatearen laguntzarekin, energia-iturri berriztagarrien ustiaketarako teknologiak garatzeko eta erabiltzeko. Hori guztia tokiko biztanleen eguneroko energia-beharrei erantzuteko konponbide errazak bilatzeko helburuarekin.
- h) Energia-eraginkortasuna handitzeko nazio mailako programak eratzea, helburu horretarako egokiak diren teknologien hedapena bizkortuz hala behar izanez gero, nazioarteko komunitatearen beharrezko laguntzarekin.
- i) Gutxiago poluitzen duten eta kostu txikiagoko teknologien garapena, hedapena eta aplikazioa bizkortzea, energia-eraginkortasuna eta energiaren kontserbazioa handitzeko eta teknologia horien transferentzia sustatzeko, batez ere garapen-bidean dauden herrialdeetan, elkarrekin adostutako baldintza egokietan edo emakida nahiz lehenasuneko hitzarmen gisara ere.
- j) Gomendatzea nazioarteko finantza-erakundeek eta bestelako erakundeek, beren politiketan, garapen-bidean dauden eta trantsizio-ekonomiadun herrialdeei laguntza eman diezaieten. Laguntza hori energia-iturri berriztagarrien, energia-eraginkortasunaren, teknologia aurreratuen –erregai fosilak erabiltzeko teknologia modernoak eta gutxien poluitzen dutenak barne– eta energia-sistema zentralizatuen, banatuen eta deszentralizatuen arteko oreka hobea ezartzeko araudi eta erregulazioak egiteko izango da.
- k) Ikerketa- eta garapen-jarduera gehiago sustatzea teknologia energetikoaren alorrean, adibidez, energia-iturri berriztagarrian, energia-eraginkortasunean eta teknologia aurreratuetan –erregai fosilak erabiltzeko teknologia modernoak eta gutxiago poluitzen dutenak barne–, bai nazio mailan, bai nazioarteko lankidetzaren esparruan. Horrez gain, ikerketarako eta garapenerako nazio eta eskualde mailako erakundeen eta zentroen jarduerak sendotzea fidagarria, kostu bidezkoak, ekonomikoki bideragarria, gizartearentzat onargarria eta ekologikoki arrazoizkoa den garapen jasangarriko energiaren hornikuntzaren inguruan.
- l) Garapen jasangarriko energiari buruzko gaietan espezializatutako zentroen artean harremanak sustatzea, baita eskualdekoetan ere, garapen jasangarriko energia aprobetxatzeko teknologiaz arduratzen diren eta teknologiaren gaitasuna eta transferentzia sendotzeko –batez ere garapen-bidean dauden herrialdeetan, jardueren alde egin eta haiek susta ditzaketen zentroen artean loturak sortuz– eta informazio-zentro moduan baliagarri izatea.
- m) Hezkuntza sustatzea bai gizonezkoen bai emakumezkoen, erabilgarri ditugun energia-iturriari eta teknologiei buruzko informazioa emateko.
- n) Finantza-tresna eta -mekanismoak erabiltzea, batez ere Munduko Ingurumenerako Funtza, haren aginduei jarraiki garapen-bidean dauden herrialdeei –batez ere gutxien aurreratutako daudenei eta garapen-bidean dauden eta uharte diren estatu txikiei– finantza-baliabideak emateko gai jakin batzuetan dituzten beharrei erantzuteko. Gai horiek honakook dira: energia fidagarria, kostu bidezkoak, ekonomikoki bideragarria, gizartearentzat onargarria eta ekologikoki arrazoizkoaren inguruko –energia-eraginkortasuna eta energiaren kontserbazioa sustatzea barne– eta energia-iturri berriztagarriak eta teknologikoki aurreratuen inguruko –erregai fosilak erabiltzeko teknologia modernoak eta gutxien kutsatzen dutenak barne– gaitasuna, jakintza teknikoak eta tokiko erakundeak sustatzea.
- o) Energia-baliabideen merkatuen funtzionamendua hobetzeko, haien gardentasuna handitzeko eta haiei buruzko informazioa –eskaintzari zein eskaerari buruzkoa– gehitzeko neurrien alde egitea, egonkortasun eta aurrez ikusteko aukera gehiago izateko eta kontsumitzaileari bermatzeko energia-zerbitzu fidagarriak, kostu bidezkoak, ekonomikoki bideragarriak, gizartearentzat onargarriak eta ekologikoki arrazoizkoak izateko aukera.
- p) Garapen jasangarriarekin bateragarriak diren energia-sistemak sortzeko merkatuko desitxuratzak murrizteko politikek merkatuko seinaleak hobetu eta desitxuratzeko horiek ezabatu egingo lituzkete; zerga-sistemak ere berregituratu egingo lituzkete eta, pixkanaka, kalte-laguntzak –balego– ezabatu egingo lituzkete, haien ondorioak ingurumenean aintzat hartzeko. Politika horiek oso gogoan eduki behar dituzte garapen-bidean dauden herrialde bakoitzaren behar eta egoerak, haien garapenean izan ditzaketen ondorio kaltegarriak ahalik eta gehien murrizteko.
- q) Neurriak hartzea, hala dagokionean, garapen jasangarria eragozten duten sektore horretako diru-laguntzak pixkanaka deuseztatuz, kontuan izanda herrialde bakoitzaren baldintzak eta garapen-maila ezberdinak eta haien eragin kaltegarriak, batez ere garapen-bidean dauden herrialdeetan.
- r) Energia-baliabideen merkatu nazionalen funtzionamendua hobetzera bultzatzea gobernuak garapen jasangarria laguntzeko, merkatatutarako oztupoak deuseztatzeko eta merkatu horietarako sarrera hobetzeko, kontuan izanik herrialdeek beraiek erabaki behar dituztela neurri horiek eta aintzat hartu behar direla herrialde bakoitzaren ezaugarriak, gaitasuna eta garapen-maila, garapen jasangarriko estrategia nazionalan –baleude– agertzen diren bezala..

- s) Energiaren inguruko nazio eta eskualde mailako erakundeak edo mekanismoak sendotzea, garapen jasangarriko energiaren sektorean eskualdeetako eta nazioarteko lankidetzak handitzeko, batez ere garapen-bidean dauden herrialdeei beren biztanleen sektore guztiari energia-zerbitzu fidagarri, kostu bidezkoak, ekonomikoki bideragarriak, gizartearentzat onargarriak eta ekologikoki arrazoizkoak ematen laguntzeko.
- t) Herrialdeei Garapen Jasangarriari buruzko Batzordearen saioen bederatzigarren aldia gomendatutako neurriak hartzea eta aplikatzea eskatzen zaie, baita sektore publikoaren eta pribatuaren arteko erakunde bidez ere. Horretarako, kontuan eduki behar dira herrialde bakoitzaren egoerak eta hango gobernuak, nazioarteko erakundeak eta interesa duten alderdiek –baita enpresak eta industriak ere– duten esperientzia energia-baliabideak (energia-iturri berriztagarriak barne) energia-eraginkortasuna eta teknologia aurreratuak (erregai fosilak, adibidez) erabiltzeko (hobetutako teknologiak eta gutxiago poluitzen dutenak, esate baterako).
- u) Garapen jasangarriko energiaren hainbat alderdiz arduratzen diren nazioarteko eta eskualdeetako erakundeak eta organoen arteko lankidetzak sustatzea –dagozkien aginduei jarraiki–, kontuan hartuz Agenda 21 guztiz gauzatzeko Planeko 46. paragrafoa h) atalean adierazitakoa, eta sendotuz –dagozkion erara– garapen jasangarriko energiari buruzko hezkuntza sustatzeko eta gaitasuna sendotzeko eskualdeetako eta herrialdeetako jarduerak.
- v) Sendotzea eta erraztea, dagokion eran, energia-baliabideen mugaz gaindiko merkataritza sustatzeko eskualdeen arteko lankidetzak-akordioak, elektrizitatea banatzeko sareen arteko konexioak, oliobideak eta gasbideak barne.
- w) Eskualdeetan, herrialdeetan eta nazioartean energia-ekoizleen eta -kontsumitzaileen arteko elkarriketarako foroak indartzea eta, behar izanez gero, erraztea.



21. Garraio-zerbitzu eta -sistemarako politiken ikuspuntu integratua sustatzea nazio, eskualde eta herri mailan garapen jasangarria sustatzeko helburuarekin, lurzorua, azpiegituraren, garraio publikoko sistemen eta merkantziak banatzeko sareen erabilera barne. Hori garraio-zerbitzu seguruak, kostu bidezkoak eta eraginkorrak eskaintzeko, energia eraginkortasunez erabiltzeko, poluzioa, auto-metaketa eta osasunerako eragin kaltegarriak murrizteko eta hirien hazkuntza desordenatua mugatzeko helburuarekin, herrialdeen lehentasunak eta egoerak kontuan hartuz betiere. Horrek maila guztietan honako neurriak hartzea dakar:

- a) Garapen jasangarriaren aldeko garraio-estrategiak aplikatzea. Estrategia horiek kontuan eduki behar dituzte eskualdeetako, herrialdeetako eta herrietako egoerak, bi arrazoi hauengatik: alde batetik, garraioaren irisgarritasun ekonomikoa, eraginkortasuna eta erosotasuna hobetzeko, baita airearen kalitatea eta osasun publikoa ere hiriguneetan; bestetik, berotegi-efektuko gas-emisioak murrizteko, baita kostu bidezkoak, gizartearentzat onargarri eta ekologiarik ikuspuntutik arrazoizkoak diren garraio autoeragileen teknologiak garatuz ere.

- b) Inbertsioa eta elkarrekin sustatzea energiaren ikuspuntutik eraginkor diren garraio-sistemak eta hainbat sistema garatzeko –garraio publikoko sistemak barne– eta landa-eremuetako garraio-sistemak hobetzeko. Horretaz gain, teknika- eta finantza-laguntza ematea garapen-bidean dauden herrialdeei eta trantsizio-ekonomiadun herrialdeei.



22. Hondakinak ekoiztea saihestea edo minimora murriztea eta ahalik eta gehien berrerabiltea, birziklatzea eta erabiltzea ingurumenerako kaltegarriak ez diren material alternatiboak, agintari politikoen eta interesdun guztien parte-hartzearekin, ingurumenerako eragin kaltegarriak ahalik eta gehien murrizteko eta baliabideen errendimendua handitzeko. Horretaz gain, Laguntza tekniko eta finantzarioa eta bestelakoak ematea garapen-bidean dauden herrialdeei helburu horrekin. Horrek maila guztietan honako neurriak hartzea dakar:

- a) Ezartzea, alde batetik, hondakinen sorrera saihesteari edo minimora murrizteari eta hondakinak berrerabilteari eta birziklatzeari lehentasun handia ematen dien hondakinak ekologiarik aldetik modu arrazoizkoan kudeatzeko sistemak; hondakinen energia ustiatzeko teknologiak asmatzea; hondakinak eskala txikian birziklatzeko ekimenak sustatzea, hirietako eta landako hondakinak kudeatzea errazten eta diru-sarrerak sortzeko aukera ematen dutenak, eta, azkenik, garapen-bidean dauden herrialdeentzako nazioarteko laguntza lortzea zeregin horretarako.
- b) Hondakinen sorrera aurreikustea eta minimora murriztea, kontsumo-gai berrerabilgarrien eta produktu biodegradagarrien ekoizpena bultzatuz eta behar den azpiegitura ezarriz.



23. Agenda 21ean hartutako konpromisoa berrestea, alegia, zentzuz erabiltzea produktu kimikoak –horien jardueraldian– eta hondakin arriskutsuak honako helburuak lortzeko: garapen jasangarria lortzen laguntzea eta giza osasuna eta ingurumena babestea, eta, batez ere, 2020rako produktu kimikoak arriskuaren ebaluazio garde-neko prozedura zientifikoei eta arriskuak kudeatzeko prozedura zientifikoei jarraituz erabiltzea eta ekoiztea, Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko Deklarazioko 15. printzipioan adierazitako zuhurtzia-printzipioa aintzat harturik, giza osasunean eta ingurumenean izan ditzaketen eragin kaltegarri garrantzitsuak minimora murriztu daitezkeen, eta garapen-bidean dauden herrialdeei laguntzea teknika- eta finantza-laguntza emanez, produktu kimikoak eta hondakin arriskutsuak zentzuz kudeatzeko gaitasuna sendo dezaten.


- a) Produktu kimikoei eta hondakin arrisksuei buruzko nazioarteko bitartekoen berrespena eta aplikazioa sustatzea –adibidez, nazioarteko merkataritzan erabiltzen diren zenbait plagizida eta produktu kimiko arriskuaren onespenezko prozedura aplikatzeari buruzko<sup>17</sup> Rotter-

<sup>17</sup> UNEP/FAO/PIC/CONF.5, III. eranskina

damgo Hitzarmena—beranduenez 2003. urtean indarrean sar dadin, eta poluitzaile organiko iraunkorrei buruzko Stockholm-eko hitzarmena<sup>18</sup>, beranduenez indarrean 2004. urtean sar dadin; horrez gain, koordinazioa bultzatzea eta hobetzea eta garapen-bidean dauden herrialdeei hitzarmen horiek aplikatzen laguntzea.

- b) 2005. urtea baino lehen produktu kimikoen nazioarteko kudeaketaren ikuspuntu estrategikoa egitea Badiako Deklarazioan eta Jarduera Lehentasunetan oinarrituta Segurtasun Kimikoari buruzko Gobernuarteko Foruaren<sup>19</sup> 2000 baino harantzago, eta eskatzea Nazio Batuen Ingurumenerako Programari, Gobernuarteko Foruari, produktu kimikoak kudeatzeaz arduratzen diren nazioarteko beste erakundeei eta nazioarteko beste erakunde eta eragile eskudunei alor horretan elkarlan estuan jardun dezaten, hala dagokionean.
- c) Produktu kimikoei buruz mundu bateratutako sailkatze- eta etiketatze-sistema ahalik eta azkarren aplikatzera bultzatzea herrialdeak, erabateko funtzionamendu beranduenez 2008an jar dadin.
- d) Honako honetarako lankidetzak- elkarrekin bultzatzea: produktu kimikoen eta hondakin arriskutsuen kudeaketa —ekologiaren aldetik modu arrazoizkoan egiten dena—, hobetzearen jarduerak sustatzeko; ingurumenerari buruzko alde anitzetako hitzarmenak aplikatzeko, produktu kimikoekin eta hondakin arriskutsuekin lotutako gaiak buruzko informazioa zabaltzeko eta datu zientifiko osagarriak biltzeko eta horien erabilera sustatzeko.
- e) Produktu kimiko arriskutsuen eta hondakin arriskutsuen nazioarteko legez kontrako trafikoa saihesteko eta mugaz gaindiko mugimenduak eta hondakin arriskutsuak ezabatzea sor ditzaketen kalteak eragozteko ekimenak sustatzea, nazioarteko hitzarmenen aginduei jarraiki betiere (hondakin arriskutsuen mugaz gaindiko mugimenduen kontrolari eta haiek deuseztatzeari buruzko Basileako Hitzarmena, adibidez)<sup>20</sup>.
- f) Produktu kimikoei buruzko datu koherenteak eta integratuak biltzera bultzatzea, poluitzaileen emisioei eta transferentziari buruzko erregistro nazionalen bidez, adibidez.

- g) Giza osasunerako eta ingurumenerako kaltegarri diren metal astunak dakartzaten arriskuen murrizketa sustatzea, baita gaiari buruzko azterketak ikertuz ere (adibidez, Nazio Batuen Ingurumenerako Programak burututako merkurioari eta haren konposatuei buruzko ebaluazio orokorraren bidez).



#### IV. Garapen ekonomikoaren eta sozialaren baliabide naturalen oinarria babestea eta kudeatzea

- 24. Giza jarduerak gero eta eragin handiagoak dituzte ongizaterako eta jarduera ekonomikoetarako ezinbesteko baliabideak eta zerbitzuak ematen dituzten ekosistemen segurtasunean. Baliabide naturalen oinarria modu jasangarriari eta integratuan kudeatzea beharrezkoa da garapen jasangarriarako. Horri dagokionez, baliabide naturalak degradatzeko egun dagoen joera alderantzizatzeko beharrezkoa da nazio mailan onetsitako helburuak dituzten estrategiak aplikatzea eta, behar denean, eskualde mailan onetsitakoak dituztenak, ekosistemak babesteko eta lurzorua, ura eta baliabide biziak modu integratuan antolatzen direla ziurtatzeko. Gainera, horrela tokiko, herrialdeko eta eskualdeko gaitasuna indartu egiten da. Horrek jarraian aipatuko ditugun neurriak hartzea dakar maila guztietan.
- 25. Ekintza-programak abiaraztea, laguntza finantzariora eta teknikoarekin, Laguntza tekniko eta finantzariora, edateko urari buruzko Milurteko Deklarazioaren helburua betetzeko. Horri dagokionez, 2015erako erdira murriztea adostu genuen, edateko urik ez duten edo ordaindu ezin duten pertsonen ehunekoa (Milurtekoko Deklarazioan adierazten den bezala) eta oinarritzko saneamendu-zerbitzurik ez duten pertsonena. Horrek maila guztietan honako neurriak hartzea dakar:
  - a) Finantza-baliabide nazionalak eta nazioartekoak maila guztietan erabiltzea, teknologia transferitzea, jardunbide egokienak eta gaitasun-sendotzea sustatzea ura eta saneamendua hornitzeko azpiegiturak eta zerbitzuak sortzeko, eta ziurtatzea azpiegitura eta zerbitzu horiek pobreen beharrak asetzen dituztela eta genero-irizpideak betetzen direla.
  - b) Informazio publikoa izateko eta parte hartzeko aukera ahalbideak, maila guztietan, baita emakumei ere, baliabide hidrikoen antolaketari buruzko politikak egiteko eta iritzia hartzeko eta arlo horretan proiektuak gauzatzeko.
  - c) Gobernuak honako honetara bultzatzea: interesa duten alderdi guztien laguntzarekin, lehentasunez baliabide hidrikoak kudeatzeko eta gaitasuna sendotzeko neurriak hartzea nazio mailan eta, hala dagokionean, eskualde mailan, baita finantza-baliabide berriak eta osagarriak eta teknologia berritzaileak erabiltzea eta ematea ere Agenda 21eko 18. kapituluko gomendioak aplikatzeko.
  - d) Uraren poluzioa saihesteko jarduerak areagotzea osasunerako arriskuak murrizteko eta ekosistemak babesteko. Helburu horrekin industrietako eta etxeetako hondakin-uren tratamendurako eta saneamendurako



<sup>18</sup> [www.chem.unep.ch/sc](http://www.chem.unep.ch/sc).

<sup>19</sup> Segurtasun Kimikoari buruzko Gobernuen arteko Forua, saioren hirugarren aldia, III. Foroaren azken txostena (IFCS/Forum III/23 w), 6. eranskina.

<sup>20</sup> Nazio Batuek, *Treaty Series*, 1673. bol., 28911 zk.

- kostu eramangarriko teknologiak sartu dira, lurpeko uren poluzioaren eraginak arindu eta zaintza-sistemak eta erregimen juridiko eraginkorrak ezarri behar dira nazio mailan.
- e) Uraren ustiapen jasangarria sustatzeko eta uraren eskasia konpontzeko babes- eta prebentzio-neurriak hartzea.
26. Baliabide hidrikoen kudeaketa integraturako eta ustiapen eraginkorrerako planak egitea 2005. urterako, garapen-bidean dauden herrialdeei laguntza emanez eta maila guztietan helburu hauetarako neurriak hartuz:
- a) Herrialdeetan eta eskualdeetan estrategiak, planak eta programak lantzea eta aplikatzea ibaiak, arro hidrografikoak eta lurpeko urak modu integratuan antolatzeko, eta azpiegituren eraginkortasuna hobetzeko neurriak hartzea galerak murrizteko eta uraren birziklapena handitzeko.
- b) Erabilgarri dauden tresna arautzaile guztiak erabiltzea (araudia, zainketa, borondatezko neurriak, merkatuko eta informatikako tresnak, lurzoruaren erabileraren antolaketa eta urarekin lotutako zerbitzuen kostuen berreskurapena barne betiere kostuak berreskuratzeagatik pobleak edateko urik gabe utzi barik) eta arro hidrografikoak antolatzeko ikuspuntu integratua hartzea.
- c) Baliabide hidrikoen erabilera eraginkorragoa sustatzea eta haiek dagozkien erabileretan banatzea bi helburu lortzeko: batetik, lehentasuna izatea oinarritzko giza beharrei erantzuteak; bestetik, oreka bat bilatzea ekosistemak eta haien funtzioak zaintzeko eta berreskuratzeke beharrenden –batez ere inguru ahuletan– eta biztanleen etxeetako, industrietako eta nekazaritzako –baita edateko uraren kalitatea zaintzeko ere– beharren artean.
- d) Urarekin lotutako larritasun handiko fenomenoaren eraginak arintzeko programak lantzea;
- e) Laguntza tekniko eta finantzarioa ematea ohiz kanpoko teknologiak helarazteko ur-eskasia duten edo lehortearen desertifikazioaren eraginak pairatzen dituzten garapen-bidean dauden herrialdeei eta eskualdeei, hala baliabide hidrikoak erabiltzeko eta zaintzeko; hau da, alor horretan beren gaitasuna sendotzeko laguntza ematea.
- f) Garapen-bidean dauden herrialdeetan itsasoko ura gatzgabetzeko, ura birziklatzeko eta kostaldeko lainoen ura biltzeko jardueretan eta programetan laguntzea. Jarduera eta programa horiek jasangarriak eta eraginkorrak izan behar dute kostuei dagokienez, eta eraginkortasunez erabili behar da energia. Horrela, laguntza teknologiko, tekniko eta finantzarioa eta bestelakoa ereemango litzaietxe.
- g) Pobrearen beharrei lehentasuna ematen dien lankidetzalartean eta bestelakoaren sorrera bultzatzea sektore publikoaren eta pribatuaren artean, gobernuak ezarritako erregulazio-esparru egonkorren eta gardenen barruan, tokiko baldintzak errespetatuz, interesa duten guztien parte-hartzea sustatuz eta erakunde publikoaren eta enpresa pribatuaren zeregina zainduduz, baita batzuen eta beste kontu-ematea hobetzeko neurriak hartuz ere.
27. Garapen-bidean dauden eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeei baliabide hidrikoen kopurua eta kalitatea zaintzeko eta ebaluatzeko hartzen dituzten ekimenetan laguntzea, baita zaintza-sare nazionalak eta baliabide hidrikoen datu-baseak ezarri ere edo lehendik daudenak hobetuz eta behar diren adierazle nazionalak landuz.
28. Baliabide hidrikoen antolaketa eta uraren zikloari buruzko ezagutza zientifikoak hobetzea behatze- eta ikerketajardueretan lankidetzan arituz eta, helburu horrekin, ezagutzen trukea bultzatzea eta sustatzea eta laguntza ematea –berreziki– garapen-bidean dauden eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeei, haiek gaitasuna susta dezaten eta teknologia transferi dezaten, baita telebheketa eta sateliteen teknologia ere, adostutako erabakiei jarraiki.
29. Uraren inguruko gaiez arduratzen diren nazioarteko eta gobernuen arteko hainbat erakunderen eta mekanismoen artean koordinazio eraginkorra sustatzea, bai Nazio Batuen sisteman bai Nazio Batuen eta nazioarteko finantza-erakundearen artean, bestelako nazioarteko erakundearen eta gizarte zibileko erakundearen ekarpenak aprobetxatuz gobernuen artean erabakiak hartzeko. Horretaz gain, lankidetzaren estuagoa sustatu beharko litzateke 2003ko eta ondorengo urteetako Ur Gezaren Nazioarteko Urteari buruzko proposamenak egiteko eta haietan laguntzeko eta jarduerak gauzatzeko.




30. Ozeanoak, itsasoak, uharteak eta kostaldeak ekosistema lehortarreko osagai integratuak eta ezinbestekoak dira, eta beharrezkoak dira munduko elikagaien segurtasunerako eta oparotasun ekonomikoari eta ekonomia nazional askoren ongizateari –batez ere garapen-bidean dauden herrialdekoiei– eusteko. Ozeanoen garapen jasangarria ziurtatzeko beharrezkoa da dagokien erakundearen artean koordinazio eta lankidetzaren eraginkorrak ezartzea, baita mundu- eta eskualde mailan ere, eta maila guztietan honako helburu haiek lortzeko neurriak hartzea:
- a) Estatuak gonbidatzea Itsasoaren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena (1982koa<sup>21</sup>) berrestera –hura baita ozeanoekin lotutako jardueren esparru juridiko orokorra– edo hari atxikitzea eta hango xedapenak aplikatzera.
- b) Agenda 21eko 17. kapituluaren aplikazioa sustatzea. Han agertzen da ekintza-programa ozeanoen, kostaldearen eta itsasoaren garapen jasangarria lortzeko haien programa-esparruetan: kostaldearen antolaketa integratua eta garapen jasangarria, eremu ekonomiko eskuliboak barne; itsas ingurunearen babesa; itsas baliabide bizien ustiapen jasangarria eta zainketa; itsas ingurunearen antolaketaz eta klima-aldaketaz adierazten diren arazo nagusien konponbidea; nazioarteko lankidetzaren eta eskualdeetako lankidetzaren eta koordinazioaren sendotzea eta uharte txikien garapen jasangarria.
- c) Erakunde arteko koordinazio-mekanismo eraginkor eta gardena ezartzea ozeanoen eta kostaldeko gaiei buruz Nazio Batuen sisteman.
- d) Ekosistemetan oinarritutako ikuspuntuaren aplikazioa 2010. urterako sustatzea, kontuan izanda itsas ekosistematan arrantza arduraz egiteari buruzko Reykjavik-eko Deklarazioa<sup>22</sup> eta Biodibertsitateari buruzko Hitzarmeneko Alderdien Konferentziako 5/6 erabakia<sup>23</sup>.

<sup>21</sup> *Itsas Zuzenbideari buruzko Nazio Batuen Hirugarren Konferentziako Dokumentu Ofizialak, XVII. bol.* (Nazio Batuen argitalpena, salmenta-zenbakia: S.84.V.3), A/CONF.62/122 dokumentua.

<sup>22</sup> Ikus Nekazaritzarako eta Elikadurarako Nazio Batuen Erakundea, C 200/INF/25 dokumentua, I. eranskina.

<sup>23</sup> Ikus UNEP/CBD/COP/5/23, III. eranskina.



- e) Kostaldeen eta ozeanoen kudeaketa integratua, diziplina eta sektore anitzekoa sustatzea nazio mailan, eta inguruko estatuak bultzatzea ozeanoei buruzko politikak eta kostaldeetarako kudeaketa integraturako mekanismoak ezartzera eta horretan laguntzea.
- f) Eskualdeen arteko lankidetzeta eta eskualdeetako erakunde eta programen arteko koordinazioa sendotzea, baita Nazio Batuen Ingurumenerako Programako eskualdeetako itsasoei buruzko programen artekoa, arrantzaren antolaketarako eskualdeetako erakundeen artekoa eta bestelako erakunde zientifikoen, osasunerako eta eskualdeetako garapenerako artekoa ere.
- g) Garapen-bidean dauden herrialdeei eskualde eta azpieskualde mailan politikak eta programak koordinatzen laguntzea arrantza-baliabideak kontserbatzeko eta antolatzeko eta kostaldean antolaketa integraturako planak aplikatzeko helburuarekin, baita kostaldeko arrantza jasangarriko edo tradizionalako jardueren bidez bada ere eta, hala dagokionean, haiei lotutako azpiegiturak sortuz.
- h) Nazio Batuen Batzar Orokorrak bere 54/33 ebazpenean oinarrituta ezarri zuen kontsulta ofiziosoen prozesu irekian egindako lanaren berri hartzea. Erabaki horren helburua zen ozeanoen egoeraren bilakaerari buruzko urteko azterketa erraztea eta azterketa horren eraginkortasunari eta erabilgarritasunari buruzko hurrengo azterketa erraztea. Lehenengo azterketa hori, aipatutako ebazpenak dioenaren arabera, saioen berrogeita hamazazpigarren aldirian izango da.
31. Arrantzaren jasangarritasuna lortzeko, ondorengo neurriok hartu beharko dira maila guztietan:
- a) Arrain-populazioak mantentzea edo berrezartzea errendimendu jasangarri gehien ekoiztuko duten mailan, eta, agortutako populazioei dagokienez, premiaz helburu horiek betetzea, ahal izanez gero 2015. urtea baino lehen.
- b) Nazio Batuen arrantzari buruzko hitzarmenak eta xedapenak berrestea eta, hala dagokionean, haiei lotutako eskualdeetako hitzarmenak edo xedapenak, edo haiei atxikitzea, eta eraginkortasunez aplikatzea, batez ere bi hitzarmen hauek: alde batetik, Itsas Zuzenbideari buruzko Nazio Batuen Konbentzioko xedapenen aplikazioari buruzko Hitzarmena, 1982ko abenduaren 10eko, arrain transzonalen populazioen eta oso migratzaileak diren arrainen populazioen kontserbazio eta antolaketari buruzkoak<sup>24</sup>; bestetik, itsas zabalean arrantza egiten duten arrantza-ontziek kontserbazioari eta antolaketari buruzko nazioarteko neurriak betetzea sustatzeko 1993ko Hitzarmena<sup>25</sup>.
- c) Arrantza arduratsurako Jokabide Kodearen xedapenak aplikatzea, 1995. urtekoa<sup>26</sup>, kontuan hartuta garapen-bidean dauden herrialdeen behar bereziak, Kodearen 5. artikuluan adierazten den bezala, eta Nekazaritzarako eta Elikadurarako Nazio Batuen Erakundearen nazioarteko ekintza-plan eta jarraibide tekniko egokiak.
- d) Ekintza-plan nazionalak eta, hala dagokionean, eskualdekoak lantzea eta gauzatzea, ahal den azkarren, Nekazaritzarako eta Elikadurarako Nazio Batuen Erakundearen nazioarteko ekintza-planak betetzeko helburuarekin –batez ere arrantza-gaitasuna kudeatzeko nazioarteko ekintza-plana<sup>27</sup>– 2005. urtea baino lehen, eta legez kontrako, deklaratu gabeko eta arautu gabeko arrantza saihesteko, eragozteko eta deuseztatzeko nazioarteko ekintza-plana<sup>28</sup>, 2004. urtea baino lehen. Zaintza-, informatze- eta gauzatze-neurri eraginkorrak eta arrantza-ontziak gainbegiratzekoak ezartzea, baita ontzien banderei dagozkien estatuek ere, legez kontrako, deklaratu gabeko eta arautu gabeko arrantza saihesteko, atzera botatzeko eta deuseztatzeko, nazioarteko ekintza-planaren aplikazioa sustatzeko xedez.
- e) Arrantzaren antolaketari buruzko eskualdeetako erakunde eta mekanismo egokiak bultzatzea, behar bezala kontuan izan dezaten inguruko estatuen eskubideak, betebeharrak eta interesak eta garapen-bidean dauden estatuen behar bereziak arrantza-baliabideen banaketari ekiten diotenean, arrain transzonalen eta oso migratzaileak diren arrainen populazioei dagokienez. Horretaz gainera, kontuan izan behar dituzte, alde batetik, Itsas Zuzenbideari buruzko Nazio Batuen Konbentzioko xedapenak, eta, bestetik, Itsas Zuzenbideari buruzko Nazio Batuen Konbentzioko xedapenen aplikazioari buruzko Hitzarmena, 1982ko abenduaren 10ekoa, itsaso zabalean eta eremu ekonomiko eskusiboan arrain transzonalen populazioen eta oso migratzailean diren arrainen populazioen kontserbazioari eta antolaketari buruzkoak.
- f) Legez kanpoko, deklaratu gabeko, arautu gabeko eta gehiegizko arrantzari ematen zaizkion diru-laguntzak ezabatzea, eta behar bezala gauzatzea Nazioarteko Merkataritza Erakundearen hartutako ekimenak arrantzako diru-laguntzei buruzko arauak argitzeko eta hobetzeko, kontuan izanda sektore horrek garapen-bidean dauden herrialdeentzat duen garrantzia.
- g) Koordinazioa sendotzea emailen eta lankidetzeta erakundeen, nazioarteko finantza-erakundeen, bi aldeko erakundeen eta bestelako interesdunen artean, garapen-bidean dauden herrialdeek –batez ere gutxien aurreratutak daudenek– garapen bidean dauden eta uharte diren estatu txikiek eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeek aukera izan dezaten beren gaitasuna garatzeko nazio, eskualde eta azpieskualde mailan arrantzarako azpiegitura sortzeko, kudeaketa integratua egiteko eta arrantza-baliabideen ustiapen jasangarria lortzeko.
- h) Akuikulturaren garapen jasangarriari laguntzea, baita eskala txikian ere, elikagaien segurtasunean eta garapen ekonomikoan gero eta garrantzi handiagoa duela ikusita.
32. Agenda 21eko 17. kapituluaren arabera, ozeanoen kontserbazioa eta antolaketa sustatzea neurriak maila guztietan hartuz eta behar bezala kontuan hartuz ondoko helburuetarako erabil daitezkeen nazioarteko bitartekoak:

<sup>24</sup> Ikus Nazioarteko arrantzari buruzko bitartekoak (Nazio Batuen argitalpena, salmenta-zenbakia: S.98.V.II), I. atala; A/CONF.164/37 ere ikusi.

<sup>25</sup> Ibid.

<sup>26</sup> Ibid., III. atala.

<sup>27</sup> Erroma, Nekazaritzarako eta Elikagairako Nazio Batuen Erakundea, 1999.

<sup>28</sup> Ibid., 2001.

- a) Itsas eremu eta kostalde garrantzitsu eta ahuletako ekoizpena eta biodibertsitatea mantentzea, baita jurisdikzio nazionaletik kanpoko eremuetakoa ere.
- b) Itsasoko eta kostaldeko biodibertsitatearen kontserbazioari eta ustiapen jasangarriari buruzko Jakartako Mandatuan<sup>29</sup> oinarritutako lan-programa aplikatzea, baita ahal den azkarren finantza-baliabideak eta teknika-laguntza mugiaraziz eta giza baliabideak eta erakundearen gaitasuna garatuz ere, batez ere garapen-bidean dauden herrialdeetan.
- c) Hainbat ikuspuntu eta bitarteko lantzea eta haien erabilera erraztea, honako alderdi hauetan oinarritzen diren ikuspuntuak ere barne: ekosistemetan, arrantza hondatzaileko jardunbideen deuseztatzean, nazioarteko zuzenbidearen arabera eta informazio zientifikoaren oinarrian babestutako itsas eremuen ezartzean, baita 2012. urterako sareak ezartzean eta urteko sasoi batzuetan eremu batzuk hazteko eta ugaltzeko aldi eta lekuak babesteko ixtean ere. Horien erabilera errazteko modua litzateke, adibidez, kostaldeko lurzorua egoki erabiltzea, arroak planifikatzea eta giltzarri diren sektoreetako itsas eremuen eta kostaldean antolatzea integratzea.
- d) Herrialdeetako, eskualdeetako eta nazioarteko programak egitea itsas biodibertsitatearen galera –koral-arrezifeak eta hezegunak barne– geldiarazteko.
- e) Ramsar-eko Hitzarmena<sup>30</sup> –Biodibertsitateari buruzko Hitzarmenarekin<sup>31</sup> batera lantzeko lan-programa barne– eta Koral-arrezifei buruzko Nazioarteko Ekimenean sartutako ekintza-programa aplikatzea. Horrek guztiak helburu hau du: antolaketarako elkarren artean egiteko planak sendotzea eta nazioarteko informazio-sareak ezartzea kostaldeetako ekosistemei eta hezeguneei buruz, koral-arrezifeak, mangladiak, algaoak eta itsas lokaztiak ere barne direla.
33. Itsas ingurunea lehorrean egindako jardueretatik babesteko Munduko Ekintza Programaren<sup>32</sup> eta itsas ingurunea lehorrean egindako jardueretatik babesteko Montrealeko Deklarazioaren<sup>33</sup> aplikazioa sustatzea, arreta berezia jarriz 2002-2006 aldian herrietako hondakin-urei, habitat eta mantenugaien aldaketa fisikoari eta hondatzeari, honako honetarako neurriak hartuz alor guztietan:
- a) Lankidetzaren erakundeak, ikerketa zientifikoa eta jakintza teknikoaren hedapena sustatzea; herrialdeetarako, eskualdeetarako eta nazioarteko baliabideak erabiltzea eta gizakion eta erakundearen gaitasuna sustatzea, garapen-bidean dauden herrialdeetako beharrei arreta berezia ipiniz;
- b) Garapen-bidean dauden herrialdeen gaitasuna sendotzea, programa eta mekanismo nazionalak lantzeko Munduko Ekintza Programaren helburuak sar ditzaten eta ozeanoetako poluzioaren arriskuei eta ondorioei aurre egin diezaieten.
- c) Eskualdeetako ekintza-programak lantzea eta kostaldeetako eta itsasoko baliabideen garapen jasangarriko plan estrategikoekin dauden loturak hobetzea, arreta berezia jarriz ingurumen-aldaketa azkarrak eta garapenaren presioak jasan dituzten eremuei.
- d) Ahal den guztia egitea aurrerapen handiak lortzeko lehorrean egindako jardueretatik itsas ingurunea babesteko, 2006. urtean egingo den Munduko Ekintza Programari buruzko hurrengo konferentzia baino lehen.
34. Poluzioa dela-eta itsas segurtasuna eta itsas ingurunearen babesa hobetzea, helburu hauetarako maila guztietan neurriak hartuz:
- a) Estatuak gonbidatzea Nazioarteko Itsas Erakundearen konbentzioak, protokoloak eta bestelako bitartekoak –itsasoko poluzioa, ontziek ingurumenean eragindako kalteak, baita inkrustazioen aurkako pintura toxikoen erabilera dela-eta itsas segurtasuna eta itsas ingurunearen babesa handitzearekin lotutakoak– berretsi, haiei atxiki eta aplikatzea. Horretaz gain, Nazioarteko Itsas Erakundea bultzatzea mekanismo egokiagoak ezartzeko aukera aztertzea, banderaren estatuak erakunde horren bitartekoak aplikatu ditzaten.
- b) Lasta-uretan garraiatu ohi diren kanpoko espezie inbaditzaileei aurre egiteko neurrien prestaketa bizkortzea eta Nazioarteko Itsas Erakundeari eskatzea lasta-urak eta ontzien sedimentuak kontrolatzeko eta kudeatzeko nazioarteko hitzarmenaren proiektua amaitzea.
35. Gobernuei eskatzen diegu bakoitzak bere herrialdeko egoera kontuan izanik, Energia Atomikoaren Nazioarteko Erakundearen Konferentzia Orokorreko GC (44)/RES/17 ebazpeneko 8. paragrafoa aintzat harturik eta hondakin erradioaktiboek ingurumenean eta giza osasunean izan ditzaketen eragin larriak gogoan izanik– ahal duten guztia egin dezatela nazioartean adostutako segurtasun-neurriak eta -araudiak aztertu eta hobetzeko eta, era berean, ardura esleitzeko mekanismo eraginkorrak ezartzea –nazioarteko itsas garraioan eta material erradioaktibo, hondakin erradioaktibo eta gastatutako erregaien bestelako mugaz gaindiko mugimenduetan aplikatu daitezkeenak– duen garrantzia nabarmen dezatela, eta mekanismo horietan sar ditzatela aurrez jakinarazteko akordioak eta nazioarteko bitarteko egokien arabera egindako kontsultak.
36. Itsasoko eta kostaldeko ekosistemak zientifikoki hobeto ebaluatzea eta ulertzea, ondo oinarritutako erabakiak hartzeko ezinbesteko oinarria baita, maila guztietan neurriak hartuz honako helburu hauekin:
- a) Lankidetzaren zientifikoa eta teknikoa handitze –batez ere mundu eta eskualde mailako ebaluazioak–, itsas baliabide organikoak eta ez-organikoak kontserbatzeko eta antolatzeko teknologia, teknika eta jakintza zientifikoaren transferentzia egokia egitea, eta, azkenik, ozeanoak behatzeko gaitasuna handitzea itsas ingurunearen egoerari buruzko aurreikuspen eta ebaluazio egokiak egiteko.
- b) Nazio Batuen baitan prozedura bat ezartzea, beranduez 2004. urtean, itsas ingurunearen egoerari buruzko txostenak aldizka prestatzeko eta ingurunearen egoera mundu mailan ebaluatzeko, egungo eta aurreikus daitezkeen alderdi sozioekonomikoak barne, eskualdeetan lehendik dauden ebaluazioetan oinarrituta.

<sup>29</sup> Ikus A/51/312, II. eranskina, II/10 erabakia.

<sup>30</sup> Nazioartean garrantzitsuak diren padurei buruzko hitzarmena, bereziki uretako hegaztien habitatak direnei buruzkoa (Nazio Batuen, Treaty Series, 996 bol., 14583 zk.).

<sup>31</sup> Ikus Ingurumenerako Nazio Batuen Programa, Biodibertsitateari buruzko Hitzarmena (Ingurumen Zuzenbideko Programako Jarduera-zentroa eta Ingurumenean lotutako Erakundeak) 1992ko ekaina.

<sup>32</sup> A/51/116, II. eranskina

<sup>33</sup> 25 Ikus E/CN.17/2002/PC.2/15.





Hitzarmenaren azken helburua lortzeko konpromisoa berresten dugu, hau da, berotegi-efektuko gasen kontzentrazioak atmosferan egonkortzea klima-sistamarako interferentzia antropogeniko arriskutsuak saihesteko moduko mailan eta ekosistemak klima-aldaketara modu naturalean egokitzeko moduko epean. Hala, elikagaien ekoizpena ez dela mehatzatzen eta garapen ekonomikoa modu jasangarrian egin daitekeela ziurtatuko da, gure ardura komunen baina bereizien eta bakoitzaren gaitasunen arabera betiere. Gogora dezagun Milurtekoko Deklarazioa: estatuburuak eta gobernuburuak ahal zuten guztia egingo zutelara erabaki zuten Klimaren Aldaketari buruzko Nazio Batuen Hitzarmeneko Kiotoko Protokoloa<sup>35</sup> indarrean sar zedin –ahal izanez gero 2002ko Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentziaren hamargarren urteurrena baino lehen– eta berotegi-efektuko gas-emisioak murriztuz zitezen. Orain, Kiotoko Protokoloa berretsi dutenek hala egin ez dutenei modu egokian berrets dezatela erregutzen diete. Maila guztietan hartu behar dira honako neurri hauek:

- a) Klimaren Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmenaren arabera hartutako konpromisoa eta betebeharrak guztiak betetzea.
- b) Lankidetzan jardutea Hitzarmenaren helburuak iristeko xedez.
- c) Laguntza tekniko eta finantzarioa ematea garapen-bidean dauden eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeei eta haien gaitasuna sendotzea Hitzarmenean hartutako konpromisoen arabera, Marrakexko akordioak<sup>36</sup> barne.
- d) Datu eta informazio zientifikoa trukatzeko gaitasun zientifikoa eta teknologikoa garatzea eta hobetzea, batez ere garapen-bidean dauden herrialdeetan, Klimaren Aldaketari buruzko Gobernuen arteko Taldeari laguntza emanez besteak beste.
- e) Konponbide teknologikoen garapena eta transferentzia sustatzea.
- f) Teknologia berriak asmatzea eta hedatzea garapenerako giltzarri diren sektoreetan –batez ere energiaren– eta horren inbertsioa sustatzea, behar izanez gero sektore pribatuaren parte-hartzeaz, merkatu-irizpideak erabiliz, helburu horien aldeko politika ofizialak eginez eta nazioarteko lankidetzara ere bultzatuz.
- g) Atmosferaren, kontinenteen eta ozeanoen behatze sistematikoa sustatzea eta helburu horrekin lehorreko behategiak hobetzea, sateliteen erabilera gehitzea eta behaketa horiek behar bezala integratzea, kalitate handiko datuak sortzeko, eta, hala, horiek zabaltzeko eta herrialde guztiek erabili ahal izateko, batez ere garapen-bidean daudenean.
- h) Herrialde, eskualde eta nazioarteko estrategien aplikazioa sustatzea atmosfera, kontinenteak eta ozeanoak behatzeko eta, hala dagokionean, baita mundu mailako behaketa integratuak egiteko estrategiak eratzeko ere nazioarteko erakunde eskumendunen lankidetzarekin, batez ere erakunde espezializatuenean, Hitzarmenaren barruan betiere.
- i) ) Klima-aldaketaren ondorioak balioztatzen laguntzea –adibidez, Artikoko Kontseiluaren ekimenari– komunitate indigenek eta tokiko komunitateak pairatzen dituzten ingurumeneko ondorioak, ekonomikoak eta sozialak ere barne direla.

39. Lankidetzara sustatzea nazioartean, eskualdean eta herrialdean poluzio atmosferikoa –mugaz gaindiko poluzio atmosferikoa barne– metaketa azidoak eta ozonoaren agortzea murrizteko, Rioko printzipioak kontuan hartuta, honakoa besteak beste: munduko ingurumena neurri berean degradatu ez dutenez, estatuek erantzukizun komuna baina bereziak dituzte. Xede horretarako, honako neurriak hartu behar dira:

- a) Garapen-bidean dauden herrialdeen eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeen gaitasuna sendotzea poluzio atmosferikoaren ondorioak neurtzeko, murrizteko eta balioztatzen –osasunean dituen ondorioak barne– eta Laguntza tekniko eta finantzarioa tekniko eta finantzarioa ematea jardura horiei.
- b) Ozono-geruza hondatzen duten substantzietan buruzko Montrealeko Protokoloaren aplikazioa erraztea, haren funtsaren baliabideak beranduez 2003/2005 eperako behar hainbat berritzen direla ziurtatuz.
- c) Ozono-geruza babesteko Vienako Hitzarmenean ozono-geruza babesteko ezarritako erregimen eraginkorri eta Montrealeko Protokoloari laguntza ematen jarraitzea, hura betetzea bermatzeko mekanismoari barne;
- d) Garapen-bidean dauden herrialdeek ozono-geruza murrizten duten substantzien alternatiba lorgarriak, eskuragarriak, kostuak kontuan izanda eraginkorrak, seguruak eta ekologikoki arrazoizkoak edukitzeko aukera handitzea 2010. urterako, eta haiei laguntza substantzia horiek pixkanaka deuseztatzen Montrealeko Protokoloan ezarritako egutegia betetzean, kontuan izanda, ozonoa murriztea eta klima-aldaketa zientifikoki eta teknikoki elkarrekin lotuta daudela.
- e) Neurriak hartzea ozono-geruza murrizten duten substantzien legez kontrako trafikoari aurre egiteko.




40. Nekazaritzak gero eta gehiago hazten ari den biztanleriaren beharrek betetzeko funtzio erabakigarria du eta oso lotuta dago pobrezia errotik ateratzearekin, batez ere garapen-bidean dauden herrialdeetan. Beharrezkoa da emakumeen eginkizuna sendotzea landa-garapenean, nekazaritzan, nutrizioan eta elikagai-segurtasunean, maila eta alderdi guztietan. Nekazaritza eta landa-garapen jasangarria ezinbestekoak dira elikagaien ekoizpena handitzeko eta elikatzearen zein elikagaien segurtasuna hobetzeko irizpide integratua aplikatu ahal izateko. Horrek maila guztietan honako neurriak hartzea dakar:

- a) Milurtekoko Deklarazioko helburua betetzea, hau da, 2015. urterako gosea pasatzen duten pertsonen portzentajea erdira murriztea eta pertsona orok baita senitartekoek ere– osasunerako eta ongizaterako bizi-maila egokia izateko eskubidea betetzea, elikadura ere barne dela, elikagaien segurtasuna sustatuz eta gosearen aurka borrokatuz. Horretaz gain, pobrezia aurre egiteko neurriak hartu behar dira, Elikadurari buruzko Munduko Goi-bilerako emaitzei jarraiki (estatu bazkideei dagokienez, Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Ituneko<sup>37</sup> 11. artikularen arabera dituzten betebeharrak jarraiki).

<sup>35</sup> FCCC/CP/1997/7/1. 1. Add. 1/CP.3 erabakia, eranskina.

<sup>36</sup> FCCC/CP/2001/13 eta 1-4 Add.

<sup>37</sup> Ikus Batzar Orokorraren 2200 A (XXI) ebazpena, eranskina.



- b) Lurzorua antolatze eta ura erabiltzeko baliabide berriak erabiltzeko erabilera jasangarria eta baliabide sozio-ekonomikoen eta ingurumeneko ebaluazio integratua oinarritutako plan integratuak egitea eta aplikatzea, eta baliabide hidrikoen kantitatea eta kalitatea gainbegiratzeko eta kudeatzeko gobernuen, tokiko agintarien eta komunitateen gaitasuna sendotzea.
- c) Baliabide hidrikoen erabilera, babes eta antolatze jasangarria hobeto ulertzea, epe luzera inguruko herrien eta itsas inguruneen eta ur gezako baliabideen jasangarritasuna sustatzeko.
- d) Nekazaritzan, basogintzan, hezeguneetan, artisau-erako arrantzan eta akuikulturaren lurzoruaren produktibitatea eta baliabide hidrikoen erabilera eraginkorra modu jasangarrian handitzen duten programak sustatzea, batez ere tokiko komunitateetan eta komunitate autoktonoetan oinarritutako ikuspuntuez baliatuz.
- e) Garapen-bidean dauden herrialdeek oasiak lohitik, lurzoruaren degradaziotik eta gazitasunaren igoeratik babesteko egiten dituzten ahaleginetan laguntzea, laguntza tekniko eta finantzario egokia emanez.
- f) Emakumeen parte-hartzea sustatzea nekazaritza jasangarriarekin eta elikagai-segurtasunarekin lotutako alderdi eta maila guztietan.
- g) Lurzoruaren erabilerari buruzko jardueren informazio-sistemak integratzea, herrialde mailan ikerketa- eta zabalte-zerbitzuak eta nekazarien erakundeak sustatuz, nekazariak praktika egokiei buruzko informazioa trukatzera bultzatzeko –adibidez, ekologikoki arrazoizkoak eta kostu txikiak diren teknologien inguruan–, nazioarteko erakunde eskumendunen laguntzarekin.
- h) Baliabide autoktonoak antolatze sistemak babesteko neurriak hartzea –dagoen erara– eta interesa duten guztien –bai emakumeen bai gizonezkoen– parte-hartzea bultzatzea landa-planifikazioan eta tokiko kudeaketan.
- i) Ondo zehaztutako eskubideak eta lurzoruaren eta uraren erabileraren alorrean betearaz daitezkeen eskubideak bermatzeko politikak egitea eta legeak onartzea eta lurraren jabetzari buruzko segurtasun juridikoa sustatzea, kontuan izanik lurra eskuratzeko eta lurraz jabetzeko erregimen eta lege nazional desberdinak daudela. Horretaz gain, teknika- eta finantza-laguntza ematea, bizitzeko bitarteko jasangarriak indartzeko asmoz, lurraren jabetzaren erregimenean erreforma-prozesua egiten ari diren garapen-bidean dauden herrialdeei eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeei.
- j) Nekazaritza jasangarriko finantza-baliabideak murrizteko sektore publikoaren joera alderantzizaketa, teknika- eta finantza-laguntza egokia ematea, sektore pribatuaren inbertsioak sustatzea eta garapen-bidean dauden herrialdeei eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeei nekazaritza-ikerketarako eta baliabide naturalak antolatze gaitasuna ematea eta ikerketako emaitzak nekazaritza-komunitaterako hedapena handitzeko ahaleginetan laguntzea.
- k) Merkatuan oinarritutako pizgarriak erabiltzea nekazaritza-enpresek eta nekazariak uraren erabilera eta kudeaketa zain dezaten, eskala txikiak ureztatzeak, birziklatzeak eta hondakin-urak berriaz aprobetxatzeko metodoak erabiliz, adibidez.
- l) Merkatuetara heltzeko aukera handitzea eta balio erantsiko nekazaritza-produktuetarako merkatu berriak sortzea.
- m) Lugoerri berregokitzea handitzea garapen-bidean dauden eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeetan, teknika-laguntza egokia emanez poluzioa arazo larria den kasuetan.
- n) Nazioarteko lankidetzaren sustatzea landare narkotikoen lege kontrako laborantzaren aurka jarduteko, kontuan izanda haien eragin negatiboak gizarte, ekonomia eta ingurumenean.
- o) Lurzoruaren emankortasuna hobetzeko eta nekazaritza-izurriteen aurka aritzeko jarduerak modu eraginkorrean eta ekologikoki arrazionalen erabiltzeko programak sustatzea.
- p) Nekazaritza jasangarriaren ekoizpena eta elikagaien segurtasuna handitzeko dauden ekimenen koordinazioa sendotzea eta hobetzea.
- q) Nekazaritzarako eta elikadurarako baliabide genetiko begetalei buruzko Nazioarteko Ituna<sup>38</sup> oraindik berretsi ez duten herrialdeak hura berrestera gonbidatzea.
- r) Nekazaritza-sistema tradizionalen eta autoktonoen kontserbazioa, erabilera eta kudeaketa jasangarria sustatzea, eta nekazaritza-ekoizpeneko eredu autoktonoak sendotzea.



41. Lehorte larriek edo desertifikazioak eragindako herrialdeetan, batez ere Afrikan, desertifikazioaren aurka jarduteko Nazio Batuen Konbentzioa<sup>38</sup> aplikatzea, desertifikazioaren eta lurzoruaren degradazioaren arazoei aurre egiteko, lurzoruak kontserbatzeko eta berreskuratzeko eta lurzoruaren degradazioak eragindako pobrezia aurka egiteko helburuarekin. Horrek maila guztietan honako neurriak hartzea dakar:
- a) Nahikoa finantza-baliabide aurreikustea eta erabiltzea eta teknologiaren transferentzia eta gaitasunen sustapena bultzatzea maila guztietan.
  - b) Ekintza-programa nazionalak egitea Hitzarmena eta hari lotutako proiektuak berehala eta modu eraginkorrean aplikatzeko, nazioarteko komunitatearen laguntzarekin, baita toki mailako proiektu deszentralizatuak eginez ere.
  - c) Klimaren Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmena, Biodibertsitateari buruzko Hitzarmena eta Desertifikazioaren aurka jarduteko Hitzarmena bultzatzea –dagozkien aginduei jarraiki– sinergiak aztertzen eta handitzen jarrai dezaten, dagozkien hitzarmenen arabera planak eta estrategiak lantzeko eta aplikatzeko.
  - d) Pobrezia errotik kentzeko eta garapen jasangarriko estrategiak eta desertifikazioaren aurka egiteko eta hura aurreikusteko neurriak hartzea, baita lehortearren eraginak arintzeko ere, politikak eta programak eginez, honako alorrean besteak beste: lurzoruaren, uren eta basoen antolaketa, nekazaritza, landa-garapena, alerta-sistema goiztiarrak, ingurumena, energia, baliabide naturalak, osasuna eta hezkuntza.
  - e) Desertifikazioaren eta lehorteen alorrean zainketa eta alerta goiztiarra hobetzeko behar den informazioa edu-

<sup>38</sup> Nekazaritza eta Elikadurarako Nazio Batuen Erakundearen Konferentziaren Txostena, saioen 31. aldia, Erroma, 2001eko azaroaren 3tik 13ra (C 2001/REP), D eranskina.

kitzeko aukera ematea, herri mailan eta kostu arrazoizkoan.

- f) Munduko Ingurumenerako Funttsaren (MIF) Bigarren Batzarrari eskatzea lurzoruaren degradazioa (desertifikazioa eta baso-soiltzea) diseinatzeko, funtsaren jarduera-esparrua –MIFaren Kontseiluaren gomendioetan oinarrituta– Desertifikazioaren aurkako Konbentzioa behar bezala aplikatzean neurriak hartzeko MIFen laguntzaz baliatzeko; ondoren, MIF Konbentzio horretako finantza-mekanismo bihur daitekeen aztertea, kontuan izanda konbentzioan Alderdien Konferentziako pribilegioak eta erabakiak onartuz MIFen eta Konbentzioaren Munduko Mekanismoaren funtzioak osagarriak direla ekintza-programak egiteko zein aplikatzeko baliabideak prestatzeko eta erabiltzeko.
- g) Zelaietako baliabideen jasangarritasuna handitzea, kudeaketa eta legearen betearazpena sendotuz eta nazioarteko komunitateari garapen-bidean dauden herrialdeei laguntza finantzario eta tekniko Laguntza tekniko eta finantzarioa emanaraziz.



42. Mendietako ekosistemak biziraupen-modu berezien oinarri dira; arro hidrografikoekin, biodibertsitatearekin eta flora eta fauna bereziarekin lotutako baliabideak dituzte. Horietako askori kalte handi handia egin diezaiekete klima-aldaketaren ondorio kaltegarriek; beraz, babesteko neurri espezifikoak behar dituzte. Honako neurriak hartu behar dira maila guztietan:

guztietan:

- a) Mendialdeen garapen jasangarriko osagai ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak sartzan dituzten programa, politika eta irizpideak eratzea eta sustatzea. Osagai horiek edukitzeaz gain, nazioarteko lankidetzaren sendotu behar dute (programen eragin positiboak dagoakenez) pobrezia errotik kentzeko, batez ere garapen-bidean dauden herrialdeetan.
- b) Programak gauzatzea deforestazioari, higadurari, lurzoruaren degradazioari, biodibertsitatearen galerari, ur-ibilguen aldaketari eta glaziarren atzeratzeari aurre egiteko, dagokion erara.
- c) Genero-irizpideak aintzat harturik, mendietako komunitateek pairatzen duten baldintza-desberdintasunak deuseztatzeko politikak eta programak egitea eta aplikatzea –inbertsio publiko eta pribatuak ere barne– hala dagokionean.
- d) Dibertsifikaziorako eta ekonomiarako eta mendiko biziraupen-modu jasangarri eta eskala txikiko ekoizpen-sistema tradizioaletarako sustapen-programak aplikatzea, baita gaitze-programa zehatzak antolatuz eta merkatu nazioaletara zein nazioartekoetara, komunikazioetara eta garraioen planifikaziora iristeko aukera hobetuz ere, mendien ahultasun berezia kontuan hartuta betiere.
- e) Mendiko komunitateen parte-hartze osoa sustatzea haiei eragiten dieten erabakietan eta jakintza, ondare eta balio autoktonoak sartzeko garapenerako ekimen guztietan.
- f) Herrialdeko eta nazioarteko laguntza erabiltzea ikerketa aplikaturako eta gaitasunaren sustapenerako, laguntza tekniko eta finantzarioa ematea garapen-bidean dauden herrialdeetan eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeetan mendiko ekosistemetan garapen




jasangarria modu eraginkorrean gauzatzeko, eta mendietan bizi diren pertsonen pobrezia aurre egitea plan, proiektu eta programa jakinen bitartez, interesa duten guztien laguntza nahikoarekin eta 2002. urtean egin zen Mendien Nazioarteko Urtearen espirituari jarraiki.



43. Turismoaren garapen jasangarria sustatzea, turismo ez-konsumista eta turismo ekologikoa barne, 2002an izan ziren Ekoturismoari buruzko Nazioarteko Urtearen eta Ondare kulturalari buruzko Nazio Batuen Urtearen espirituari jarraiki, baita 2002ko Ekoturismoari buruzko Munduko Goi-bileraren espirituari eta Turismoaren Munduko Erakundeak onartutako Munduko Kode Etikoari ere. Kode hori komunitate hartzaileek turismoak ematen dituen baliabideetatik eskuratutako irabaziak handitzeko onartu zen, komunitate horien kultur eta ingurumen-osoatasuna gordeta eta ekologikoki arreta berezia behar duten eremuen eta ondare naturalen babesa handituta. Turismoaren garapen jasangarria sustatzea eta alor horretako gaitasuna bultzatzea, landa-komunitateei eta tokiko komunitateei sendotzen laguntzeko. Horrek maila guztietan honako neurriak hartzea dakar:

- a) Nazioarteko lankidetzaren, atzerriko zuzeneko inbertsio eta sektore pribatu zein publikoarekin lankidetzaren handitzea, maila guztietan.
- b) Programak egitea, baita hezkuntzaren eta gaitasunaren arloan ere, ekoturismoan parte hartzea sustatzeko, komunitate autoktonoak eta tokikoak ekoturismoa sustatzeko eta haren onura lortzeko gaitzen dituenak eta turismoaren garapenean eta ondarearen zainketa interesaren duten arteko lankidetzaren bizi-gotzen dutenak. Hori guztia, helburu honekin: ingurumenaren babesa, baliabide naturalak eta kultur ondarea handitzea.
- c) Laguntza tekniko ematea garapen-bidean dauden eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeei, turismo jasangarriko enpresen garapena sustatzeko, enpresa horietako inbertsioei eta kontzientzia turistikoak sortzeko programei laguntzeko, barne-turismoa hobetzeko eta enpresa-garapena suspertzeko.



- d) Tokiko komunitateei erakarpen turistikoetarako bisitak administratzen laguntzea ahalik eta arriskurik gutxienarekin eta beren tradizio, kultura eta ingurumenean eragin kaltegarri gutxienarekin, ahalik eta irabazirik handiena lor dezaten, Turismoaren Munduko Erakundearen eta bestelako erakunde eskumendunen laguntzarekin.
- e) Jarduera ekonomikoaren dibertsifikazioa, baita merkatuetara iristeko eta merkataritza-informaziorako auktora erraztuz ere, eta tokiko enpresa hasiberrien bidez ere txiki eta ertainen parte-hartzea sustatzea.



44. Biodibertsitateak zeregin erabakigarria du garapen jasangarrian –orokorrean– eta pobrezia errotik kentzeko ahaleginean. Beraz, ezinbestekoa zaio gure planetari gizakion ongizaterako eta biztanleok kultur osotasunerako eta bizimodurako. Bestalde, biodibertsitatea inoiz baino eritmo biziagoan ari da galtzen giza jardueraren ondorioz; joera hori alderantzik ahal izateko beharrezkoa da tokiko biztanleek biodibertsitatearen kontserbazioa eta erabilera jasangarritik irabaziak eskuratzea, batez ere baliabide genetikoen sorlekuetan, Biodibertsitateari buruzko Hitzarmeneko 15. artikulua araberaz. Biodibertsitatearen kontserbazioa eta erabilera jasangarriak eta baliabide genetikoen erabileratik sortutako onuren banaketa justu eta berdinerako oinarritzeko tresna da Hitzarmena. Hitzarmeneko hiru helburuak modu eraginkorragoan eta koherenteagoan aplikatzeko eta 2010. urterako biodibertsitateak egun duen galera-eritmoa nabari murrizteko, beharrezkoa da garapen-bidean dauden herrialdeei laguntza tekniko eta finantzario berriak eta osagarriak ematea eta maila guztietan helburu hauen aldeko neurriak hartzea:

- a) Hitzarmeneko helburuak munduko, eskualdeetako eta herrialdeetako programetan eta politiketan sartzea –bai sektoretakoetan bai sektoreen artekoetan ere–, batez ere herrialdeetako eta nazioarteko finantza-erakundeetako sektore ekonomikoetako programak eta politikak.
- b) Hitzarmenaren esparruan biodibertsitatearen erabilera jasangarriari buruz egun egiten ari den lana sustatzea, turismo jasangarria barne, hainbat ekosistemari, sektoreri eta arlori eragiten dien gai zabala baita.
- c) Hitzarmenaren eta ingurumenari buruzko alde anitzetako beste hitzarmenen arteko eragin sinergikoak handitzea –elkarrekin planak eta programak eginez, besteak beste– haien kezka eta ardura komunei dagokienez, bakoitzaren aginduei jarraiki betiere.
- d) Hitzarmena eta haren xedapenak aplikatzea –herrialdeko, eskualdeko eta munduko ekintza-programen bidez haren erabakien eta lan-programen jarraipen aktiboa egitea barne–, batez ere biodibertsitateari buruzko estrategia eta ekintza-plan nazionalak eginez, eta haren parte-hartzea sendotzea dagozkion sektore arteko estrategia, programa eta politika egokietan –garapen jasangarriari eta pobrezia errotik kentzeari buruzkoak barne–, baita komunitateetan oinarritutako biodibertsitatearen erabilera jasangarria sustatzeko ekimenen bidez ere.
- e) Uneko lanen bidez Hitzarmenean egiten ari den ekosistemetan oinarritutako ikuspuntuaren aplikatze zabala eta garapen osoa sustatzea.

- f) Biodibertsitatearen (ekosistemena eta munduko ondareko lekuena barne) kontserbazioaren eta hura modu jasangarrian erabiltzearen aldeko eta haiei laguntzeko jarduera zehatzak sustatzea, batez ere finantza-baliabideak eta teknologiak garapen-bidean dauden herrialdeetara eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeetara behar bezala bideratuz.
- g) Biodibertsitatea eraginkortasunez kontserbatzea eta modu jasangarrian erabiltzea, aberastasun ekologiko bereziko eta biodibertsitatearentzat ezinbestekoak diren eremuetarako ekimenak sustatzea eta haiei laguntza ematea, eta herrialde zein eskualde mailako korridore eta sare ekologikoen garapena sustatzea.
- h) Teknika- eta finantza-laguntza ematea garapen-bidean dauden herrialdeei, baita gaitasuna sustatzeko ere, tokiko eta biodibertsitate zaintzera bideratutako komunitateen ahaleginak indartzeko helburuarekin.
- i) Espezie exotiko inbaditzaileak murrizteko herrialde, eskualde eta nazioarte mailako ahaleginak sendotzea, biodibertsitatea galtzeko arrazoi nagusietakoak baitira haiek, eta espezie exotiko inbaditzaileei buruzko lan-programa eraginkorra bultzatzea maila guztietan.
- j) Legeria nazionalari lotuta, jakintza, berrikuntza eta praktika tradizionalak dituzten komunitate autoktono eta bertakoen eskubideak aitortzea eta, praktika, berrikuntza eta jakintza horiek dituzten onespenearekin eta parte-hartzearekin, elkarrekin adostutako mekanismoak abian jartzea jakintza, berrikuntza eta praktika horien erabileratik sortutako onurak partekatzeko.
- k) Interesa duten alderdi guztiak bultzatzea Hitzarmeneko helburuak lortzeko laguntza ematera eta laguntza hori erraztea, eta batez ere onartzea gazteek, emakumeek eta komunitate autoktonoek eta bertakoen biodibertsitatearen erabilera jasangarrian eginkizun zehatza dutela.
- l) Komunitate autoktonoen eta bertakoen parte-hartze eraginkorra sustatzea haien jakintza tradizionalari buruzko politikak egiteko eta erabakiak hartzeko.
- m) Garapen-bidean dauden eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeentzako laguntza sustatzea, dagokion erara; besteak beste, beren legerien eta lehentasun nazionalen araberaz sistema tradizionalak eta "sui generis" sistema nazionalak egiteko eta aplikatzeko ahaleginean, biodibertsitatea kontserbatzeko helburuarekin.
- n) Baliabide genetikoen eskuratzeari eta haien erabileratik sortutako onuren banaketa egoki eta zuzenari buruzko Bonnekoko Arteztarauen aplikazio zabala eta lan horren jarraipena sustatzea, lagungarria izan baitaiteke hori alderdientzat baliabideak eskuratzeari eta onurak banatzeari buruzko lege-, administrazio- edo politikak neurriak eta kontratuak zein baliabideak eskuratzeko eta onurak banatzeko elkarrekin adostutako terminoetan oinarritutako beste akordio batzuk prestatzeko eta idazteko.
- o) Biodibertsitateari buruzko Hitzarmenaren esparruan eta Bonnekoko Arteztarauak aintzat harturik, baliabide genetikoen erabileratik sortutako onuren banaketa zuzena eta berdintasuneko modu eraginkorrean sustatzeko eta zaintzeko nazioarteko erregimen baten sorrera negoziatzea.
- p) Jabetza Intelektualaren Munduko Erakundearen Jabetza Intelektualari, Baliabide Genetikoei, Jakintza Tradizionalari eta Folkloreari buruzko Gobernuarteko Batzordearen babesean eta 8. artikuluko j) atalaren eta

Hitzarmeneko beste xedapen batzuen inguruan sortutako talde berezi batean egiten ari diren prozesuek emaitza ona izan dezaten bultzatzea.

- q) Baliabide genetikoetan oinarritutako bioteknologiaren emaitzak eta onurak eskuratzeko neurri bideragarriak sustatzea, Hitzarmeneko 15. eta 19. artikuluen arabera; besteak beste, bioteknologiaren eta bioteknologiaren segurtasunaren alorrean lankidetzaren zientifikoa eta teknikoa handituz, adituak trukaturaz, gaituz eta erakundeekin ikerketara bideratutako gaitasunak garatuz.
- r) Eragin sinergikoak eta elkarren laguntza handitzeko helburuarekin eztabaidak sustatzea –haien ondorioak aurretik juzgatu gabe– Hitzarmenaren eta nazioarteko merkataritzarekin eta jabetza intelektuala eskubideekin lotutako akordioaren arteko harremanei buruz, Dohako Ministro Deklarazioak<sup>39</sup> dioen bezala.
- s) Taxonomiari buruzko Munduko Ekimeneko lan-programaren aplikazioa sustatzea.
- t) Hitzarmena, Bioteknologiaren segurtasunari buruzko Cartagenako Protokoloa<sup>40</sup> eta biodibertsitatearekin lotutako beste hitzarmen batzuk oraindik berretsi ez dituzten estatu guztiak horiek berrestera gonbidatzea, eta berretsi dituztenak gonbidatzea haiek modu eraginkorrean herrialdean, eskualdean eta nazioartean aplikatu daitezkeen sustatzera eta garapen-bidean dauden herrialdeei eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeei teknika- eta finantza-laguntza ematera.



45. Basoek eta zuhaitzek luraren gainazalaren herena hartzen dute ia. Basoak –bai baso naturalak bai gizakiak landatutakoak– modu jasangarrian antolatzea (haien zurproduktuak eta zurezkoak ez direnak ustiatzeko) ezinbestekoa da garapen jasangarria lortzeko, eta baliabide garrantzitsua da pobrezia errotik kentzeko, deforestazioa asko murrizteko, biodibertsitatearen galera eta lurzoruen eta baliabideen degradazioa geldiarazteko eta elikagai-segurtasuna eta edateko ura eta kostu bideragarriko energia izateko aukera handitzeko. Horrela, basoen eta zuhaitzen –naturalen zein gizakiak landatutakoen– onura ugariak nabarmentzen dira eta planetaren eta gizateriaren ongizateari laguntzen zaio. Basoen antolaketa jasangarria lortzea nazio eta mundu mailan –besteak beste gobernuen eta interesa duten alderdien arteko aliantzen bidez (sektore pribatua, komunitate autoktonoak eta tokikoak eta gobernu kanpoko erakundeak barne)–, garapen jasangarria iristeko ezinbesteko helburua da. Horrek maila guztietan honako neurriak hartzea dakar:

- a) Basoen antolaketa jasangarria lortzeko konpromiso politikoa sendotzea, nazioarteko programa politikoa hari lehentasuna emanez eta oso kontuan hartuz basogintza-sektorearen eta bestelako sektoreen arteko lotura ikuspuntu integratuen bitartez
- b) Basoei buruzko Nazio Batuen Foroari laguntzea, Basoen inguruko Lankidetzaren Elkartearen laguntzaz, horiek baitira basoen antolaketa jasangarria herrialdean, eskualdean eta munduan aplikatzea errazteko eta koordinatzeko gobernuen arteko mekanismo nagusiak. La-

gundu egingo lioke horrek basoen biodibertsitatea modu jasangarrian kontserbatzeko eta erabiltzeko, besteak beste.

- c) Berehalako neurriak hartzea basoen inguruko lege nazionalak betearazteko eta basogintzako produktuen –baliabide biologikoak barne– legez kanpoko nazioarteko merkataritzari aurre egiteko, nazioarteko komunitatearen laguntzarekin, eta gizakiaren eta erakundearen gaitasunaren sorrerari laguntzea alor horietako legedi nazionala betearazteko.
- d) Herrialdean eta nazioartean berehalako neurriak hartzea zuhaitz zurgaien mozketaren jasangarria sustatzeko eta horretarako baliabideak errazteko, baita finantza-baliabideak emateko eta ingurumenerako arrazoizkoak diren teknologiaren transferentzia eta garapena errazteko ere, basoetako zura ustiatzeko praktika jasanezinei aurre egin ahal izateko.
- e) Pobrezia eragindako eta deforestazio-tasa handienak dituzten munduko alderdietako beharrei erantzuteko ekimenak prestatzea eta aplikatzea, gobernuen nazioarteko lankidetzaren gogo onez hartuko luketen kasuetan behintzat.
- f) Nazioarteko lankidetzarako erakundeak eta mekanismoak sortzea eta lehendik daudenak indartzea honako alderdiak errazteko: hazitako finantza-baliabideen horniketara, ingurumenerako arrazoizkoak diren teknologiaren transferentzia, merkataritza, gaitasunaren sustapena, basoen inguruko legeria betetzea, maila guztietan kudeaketa ona egitea eta basoen antolaketa jasangarriko lurzoruen eta baliabideen antolaketa integratua. Horretarako kontuan eduki behar dira Basoei buruzko Gobernuen arteko Taldearen eta Basoei buruzko Gobernuen arteko Foroaren ekintza-proposamenak.
- g) Herrialdeek eta Basoei buruzko Lankidetzaren Erakundeak proposamen horien aplikazioa bizkortzea, eta Basoei buruzko Nazio Batuen Foroari informazioa aurkezteko ahalgaitzak areagotzea 2005. urtean lortutako aurrerapenen ebaluazioa egiteko.
- h) Basoak antolatzeko sistema autoktonoak eta komunitateenak onartzea eta haiei laguntzea, basoen antolaketa jasangarrian haien parte-hartze osoa eta eraginkorra ziurtatzeko.
- i) Biodibertsitateari buruzko Hitzarmeneko lan-programa zabalduta eta ekintzara bideratutako aplikatzea basoetako biodibertsitate-mota guztiekiko, lankidetzaren estuan arituz Foroarekin, Elkartearen kideekin, basoekin lotutako beste prozesu eta hitzarmenekin eta interesa duten alderdi guztiekiko.




46. Meatzaritza, mineralak eta metalak oso garrantzitsuak dira herrialde askoren garapen ekonomiko eta sozialerako. Mineralak ezinbestekoak dira bizitza modernorako. Meatzaritza, mineralek eta metalek garapen jasangarrian egiten duten ekarpena handitzeko, beharrezkoa da maila guztietan honako neurriak hartzea:

- a) Meatzaritza, mineralek eta metalek beren bizi-zikloan ingurumenean, ekonomian, gizartearen –baita langileen

<sup>39</sup> A/C.2/56/7, eranskina.

<sup>40</sup> <http://www.biodiv.org/biosafety/protocol.asp>.



osasunean eta segurtasunean ere– dituzten eraginez eta onurez arduratzeko ahaleginetan laguntzea, eta hainbat erakunde baliatzea –interesa duten gobernuen, gobernuarteko erakundeen, enpresen eta meatzaritzako langileen eta interesa duten bestelako alderdien artean herrialdean eta nazioartean gauzatzen ari diren jarduerak areagotuz– meatzaritzaren eta mineralen garapen jasangarriaren aldeko gardentasuna eta ardua sustatzeko.

- b) Interesa dutenen parte-hartzea sustatzea, baita komunitate autoktono eta bertakoena eta emakumeena ere, eginkizun aktiboa izan dezaten meatzeen erabilera-zikloan zehar –baita birgaitzeko itxi ondoren ere– mineralen, metalen eta meatzaritzaren ustiatetan, arau nazionalen arabera eta kontuan izanda mugaz gaindiko eragin garrantzitsuak.
- c) Meatzaritza-praktika jasangarriak sustatzea Laguntza tekniko eta finantzarioa eta gaitasuna sustatzeko laguntza emanez garapen-bidean dauden herrialdeei eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeei, meatzaritzarako eta mineralen tratamendurako– eskala txikiko ustiake-ta barne–, eta, ahal denean eta egoki denean, balio erantsia duen jarduera hobetzea, informazio zientifikoa eta teknologikoa hobetzea eta degradatutako lekuak berreskuratzea eta birgaitzea.

## V. Garapen jasangarria globalizazio-bidean dagoen munduan

47. Globalizazioak garapen jasangarriko aukerak ematen ditu eta erronkak sortzen ditu. Onartzen dugu globalizazioak eta elkarren mendekotasunak aukera berriak ematen dituela merkataritza, inbertsioak eta kapital-korronte eta teknologiaren aurrerapenerako, informazioaren teknologia barne, eta munduko ekonomia hazten eta mundu osoko bizi-maila garatzen eta hobetzen laguntzen duela. Bestalde, gizarteetan eta gizarteen artean oraindik ere erronka larriak daude, finantza-krisi larriak, ziurtasun-gabezia, pobrezia, bazterketa eta desberdintasunak barne. Garapen-bidean dauden herrialdeek eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeek zailtasun bereziak dituzte erronka eta aukera horiei erantzuteko. Globalizazioak guztiz integratzailea eta zuzena izan behar du; ezinbestekoa da garapen-bidean dauden herrialdeen eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeen parte-hartze osoarekin eta eraginkorrek ere egingo eta aplikatuko dituzten politikak eta neurriak sartzea herrialdean eta nazioartean, herrialde horiei erronkei eta aukerei modu eraginkorrean erantzuten laguntzeko. Horretarako, honako premiazko neurriok hartu behar dira maila guztietan:

- a) Garapen jasangarria lortzen herrialde guztiei laguntzen dieten merkataritza- eta finantza-sistema alde anitzetakoak, irekiak, zuzenak, arauetan oinarrituak, aurreikusgarriak eta ez-diskriminatzaileak sustatuz jarraitzea. Dohako Ministro Deklarazioko lan-programek eta Monterreyko Itunaren aplikazioak emaitza ona izan dezaten laguntzea. Dohako Ministro Deklarazioko erabakia –garapen-bidean dauden herrialdeen beharrak eta interesak Deklarazioko lan-taldearen zentroan jartzearena–, ontzat jotzea, garapen-bidean dauden herrialdeentzat produktu interesgarrien merkaturarako sarrera areagotuz ere hala behar izanez gero.

- b) Nazioarteko finantza- eta merkataritza-erakundeek erabakiak hartzeko prozedurak eta erakunde-egiturak irekiak eta gardenak izan daitezzen egiten dituzten aha-lerinak bultzatzea.
- c) Garapen-bidean dauden herrialdeen –horren aurreratuta ez dauden herrialdeak, garapen-bidean dauden kostalderik gabeko herrialdeak eta garapen-bidean dauden eta uharte diren estatu txikiak barne– liberalizatutako merkaturaren aukerak aprobetxatzeko gaitasuna handitzea hainbat neurriren bidez: alde batetik, nazioarteko lankidetzak; bestetik, produktibitatea, oinarrituko produktuen dibertsifikazioa, komunitatearen enpresa-gaitasuna eta garraioen eta komunikabideen azpiegituraren garapena handitzeko neurriak.
- d) Lanaren Nazioarteko Erakundeari laguntza ematea, eta globalizazioaren arlo sozialarekin lotuta egiten ari den lana bultzatzea, Monterreyko Adostasuneko 64. paragrafoak dioen bezala.
- e) Laguntza teknikoko eta gaitasuna sustatzeko programa koordinatuak, eraginkorrek eta ondo zehaztutako helburuak dituztenak hobeto gauzatzea, baita merkaturarako lehendik dauden aukerak eta etorkizunekoak aprobetxatzeko eta merkataritza, ingurumena eta garapenaren arteko lotura aztertzeke ere.

48. Dohako Ministro Konferentziako emaitzak Munduko Merkataritza Erakundeko kideek aplikatzea, merkataritzarekin lotutako teknika-laguntza eta gaitasunaren sorrera indartzen jarraitzea eta garapen-bidean dauden herrialdeek merkataritzako alde anitzetako negoziatioetan modu esanguratsuan, eraginkorrean eta osotasunez parte har dezaten arduratzea, haien beharrak eta interesak Munduko Merkataritza Erakundearen lan-programaren gunean ezarri.

49. Enpresetan erantzukizuna eta kontu-ematea aktiboki sustatzea, Rioko printzipioak oinarri izanik, baita gobernuen arteko hitzarmen eta neurriak, nazioarteko ekimenak eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko elkarrekin osotasunean garatuz eta eraginkortasunez aplikatuz ere, arau nazional egokien bidez eta herrialde guztietan enpresetako praktikak etengabe hobetzen lagunduz.

50. Herrialdeei eta finantza-merkatuei buruzko informazioa izateko aukera eta haren zehaztasuna, garrantzia eta hedadura ahalbidetzeko sektore publikoaren eta pribatuaren ekimenak bultzatzeko garapen-bidean dauden herrialdeen gaitasuna sendotzea. Alde anitzetako eta eskualdeetako finantza-erakundeek laguntza gehiago eman ahalko lukete helburu horrekin.

51. Eskualde mailako merkataritza eta lankidetzak-hitzarmenak sendotzea –alde anitzetako merkataritza-sistemarekin bat eginda– herrialde garatuak, garapen-bidean dauden herrialdeen eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeen artean, baita garapen-bidean dauden herrialdeen artean ere, nazioarteko finantza-erakundeen eta garapenerako eskualdeko bankuen laguntzarekin, dagokion erara, garapen jasangarriko helburuak lortzeko asmoz.

52. Garapen-bidean dauden eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeei informatika-alorreko alde murrizten laguntzea alor horretan aukerak sortuz eta garapenerako informazioaren teknologien eta komunikazioen indarrak baliatuz, teknologia transferituz elkarrekin adostutako baldin-

tzetan eta laguntza tekniko eta finantzarioa emanez eta, testuinguru horretan Informazioaren Gizarteari buruzko Munduko Goi-bilerari laguntza ematea.

## VI. Osasuna eta garapen jasangarria

53. Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko Deklarazioak honakoa dio: gizakiak dira garapen jasangarriarekin lotutako arduren erdigunea eta naturarekin batera bizitza osasuntsua eta emankorra izateko eskubidea dute. Garapen jasangarriko helburuak honako baldintza hauetan bakarrik lor daitezke: gaixotasun ahulgarriak nagusitzen ez direnean eta biztanleriaren osasuna hobetzeak pobrezia errotik kentzea eskatzen duenean. Osasun txarra eragiten duten kausei –ingurumen-kausak ere barne direla– berehala egin behar zaie aurre, baita haiek garapenean duten eraginari ere. Horretarako, arreta berezia egin behar zaie emakumei, haurrei eta gizarteko talde ahulenei: adibidez, minusbalioetasuna duten pertsoneri, adineko jendeari eta biztanleria autoktonoari.

54. Beharrezkoa da osasunerako arreta-sistemen gaitasuna handitzea guztiei modu eraginkorrean, eskuragarrian eta arrazoizkoan gaixotasunak prebenitzeko zerbitzuak emateko, geldiarazteko eta tratatzeko eta osasunerako ingurumeneko mehatxuak murrizteko, kontuan izanda Nazio Batuen azken konferentzien eta goi-bileren txostenak eta Batzar Orokorraren ohiz kanpoko bilera-saioak, lege nazionalen eta herrialde bakoitzeko balio kulturalen eta erlijiosoen arabera. Honako neurri hauek hartu beharko litirateke maila guztietan:


- Osasun-arazoak sartzeari –talde ahulenenak barne– pobrezia errotik kentzeko eta garapen jasangarria lortzeko estrategia, politika eta programetan.
- Osasun-arretarako zerbitzu eskuragarri eta eraginkorrak –prebentzio-zerbitzuak barne–, ezinbesteko sendagai fidagarriak arrazoizko prezioan, immunizatze-zerbitzuak, txerto fidagarriak eta medikuntza-teknologia jaso ahal izateko aukeren berdintasuna eta hobekuntza sustatzea.
- Laguntza tekniko eta finantzarioa ematea garapen-bidean dauden eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeei Guztiontzako Osasunerako Munduko Estrategia aplikatzeko, baita osasuneko informazio-sistemen eta garapenak dakartzan arriskuei buruzko datu-base integratuen bidez ere.
- Osasunerako arreta-zerbitzuetan giza baliabideen garapena eta kudeaketa hobetzea.
- Osasun-hezkuntza hobetzeko elkarteak sustatzea eta garatzea mundu osoan, osasunari buruzko jakintza hobetzeko 2010. urterako, Nazio Batuen parte-hartzearekin, dagokion erara.
- Programak eta ekimenak eratzea 2015. urterako bularreko umeen eta bost urtez azpikoen heriotza-tasa bi heren murrizteko eta amaren heriotza-tasa hiru laurden –2000. urteko tasekin alderatuta– eta herrialde garatuak eta garapen-bidean dauden herrialdeen arteko aldea ahalik eta bizkorren murriztea, baita garapen-bidean dauden herrialdeen artekoa ere, arreta berezia emanez neskato txikien eta bularrekoen heriotza-tasa desproporzionatuak eta aurreikus daitezkeenak kentzeari.
- Osasun publikoko lehenbaitako gaitetara bideratzea ikerketa-jarduerak eta han aplikatzea ikerketetako

emaitzak, txerto berriak eginez eta osasunerako arriskuekiko esposizioa murriztuz. Horretarako, osasun-arretarako zerbitzuetarako, hezkuntzarako, gaitasunerako, medikuntza-tratamendurako eta -teknologiarako aukera bidezkoan oinarritu behar du, kontuan izanik osasun txarraren albo-ondorioak.

- Medikuntza tradizionalako jakintzen eta praktiken zainketa, garapena eta erabilera sustatzea, egokia denean, medikuntza modernoarekin konbinatuta, onartuz komunitate autoktonoek eta tokikoek jakintza eta praktika tradizionalak dituztela, eta, era berean, nazioarteko eskubideekin bateragarriak diren jakintza tradizionalen babes eraginkorra sustatzea, dagokion modu egokienean.
- Osasun-arretarako zerbitzuetarako emakumeen aukera-berdintasuna bermatzea, arreta berezia emanez amen zainketa eta larrialdiko arreta obstetrikolari.
- Pertsona guztientzako bizitza sana sustatzeaz eragin-kortasunez arduratzea, kontuan harturik –besteak beste– adina, ugaltzeko osasuna eta osasun sexuala eta Nazio Batuen azken konferentzia eta goi-bileretako konpromisoak eta erabakiak: Haurren aldeko Munduko Goi-bilera, Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzia, Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzia, Garapen Jasangarriari buruzko Goi-bilera eta Emakumei buruzko Munduko Laugarren Konferentzia eta haien azterketak eta txostenak.







- k) Gaitasuna sustatzeko nazioarteko ekimenak hartzea, dagokion erara. Ekimen horietan osasunaren eta ingurumenaren arteko loturak ebaluatu behar dira eta eskuratutako ezagutzak baliatu herrialde eta eskualde bakoitzeko politikan erantzun eraginkorragoak emateko giza osasunerako ingurumen-mehatxuei.
- l) Teknologia transferitzea eta zabaltzea –elkarrekin onartutako baldintzetan, sektore pribatuko eta publikoko sektore anitzetako elkarrekin bidez eta nazioarteko finantza-laguntzarekin– garapen-bidean dauden eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeetako landa-eremuetan eta hirietan edateko ura hornitzeko, baita saneamendurako eta hondakinak kudeatzeko teknologia ere. Horretarako, kontuan izan behar dira herrialde bakoitzeko egoera zehatzak eta sexuen arteko berdintasuna, emakumearen behar teknologiko bereziak barne.
- m) Lanaren Nazioarteko Erakundearen eta Osasunaren Mundu Erakundearen programak sendotzea eta sustatzea, lanarekin lotutako heriotzak, lesioak eta gaixotasunak murrizteko eta osasunaren eta lanaren artean lotura ezartzeko; era berean, osasun publikoa sustatzea osasun publikoa eta hezkuntza bultzatzeko bitarteko gisara.
- n) Guztiok nahikoa elikagai, elikagai seguruak, kulturaren aldetik onargarriak eta elikadura-balioari dagokionez egokiak edukitzea aukera hobetzea, kontsumitzailearen osasuna babestea, mikromantenugaien hutsuneari buruzko kontuei heldzea eta nazioartean adostutako konpromisoak, arauak eta ildoak aplikatzea.
- o) Hala dagokionean, gaixotasun eta arazo ez-kutsatzailerak –gaixotasun kardiobaskularrak, minbizia, diabetesa...–, arnasketa-gaixotasun kronikoak, osasun mentalaren lesioak, indarkeria eta haiekin lotutako faktoreak –alkohola, tabakoa, dieta kaltegarriak eta jardueraren fisiko eza– prebenitzeko, sustatzeko eta tratatzeko programak eratzea eta sendotzea.
55. Hitzartutako epeen barruan, Batzar Orokorrak ohiz kanpoko hogeita seigarren saio-aldian onartutako GIBari/HIESari buruzko Konpromiso Deklarazioan<sup>41</sup> hartutako konpromisoak aplikatzea, arreta berezia emanez 15 eta 24 urte bitarteko bi sexuetako gazteen artean GIBak duen eragin-tasa 2005. urterako % 25 murrizteari gehien eragindako herrialdeetan eta 2010. urterako mundu osoan, eta paludismoaren, tuberkulosiaren eta bestelako gaixotasun aurka jardutea, honako neurri hauek hartuz, besteak beste:
- a) Prebentziorako eta tratamendurako estrategia nazionalak eta eskualdeko eta nazioarteko lankidetzarako neurriak aplikatzea eta nazioartean ekimenak egitea GIB/HIESAren eraginez umezurtzak diren haurrei laguntza berezia emateko.
- b) HIESAren, tuberkulosiaren eta paludismoaren aurkako Borrokarako Munduko Funtsari laguntzeko baliabideak hornitzeari lotuta hartutako konpromisoak betetzea, eta, era berean, herrialde pobreenak Funtsara sartzeko aukera sustatzea.
- c) Langileen osasuna babestea eta lanean segurtasuna sustatzea, kontuan hartuz –dagokion erara– GIBari/HIESari buruzko Praktiken Borondatezko Kodea eta lantokian baldintzak hobetzeko Lanaren Nazioarteko Erakundearen Lan Munduaren, besteak beste.
- d) Sektore publikoaren finantza-baliabide nahikoa erabiltzea eta sektore pribatuaren finantza-ekarpena sustatzea biztanleria pobreen gaixotasunekin –adibidez, GIB/HIESA, paludismoa eta tuberkulosia– lotutako ikerketa- eta garapen-jardueretarako, arreta nagusia ikerketa biomedikoetan eta sanitarioan eta txerto nahiz sendagai berriak egitean jarriz.
56. Arnasketa-gaixotasunak eta poluzio atmosferikoak osasunean eragiten dituzten beste ondorio batzuk murrizteko, arreta berezia ezarri emakumei eta haurrei, honako neurrien bidez:
- a) Eskualde eta herrialde bakoitzean programak sustatzea –sektore publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlana bultzatuz, behar izanez gero– eta garapen-bidean dauden herrialdeei laguntza tekniko eta finantzarioa ematea.
- b) Gasolinaren berun-proporzioa pixkanaka kentzeko laguntza ematea.
- c) Emisioak murrizteko ahaleginak sendotzea eta horiei laguntzea, erregai garbiagoak eta poluzioaren aurka borroka egiteko teknika modernoak erabiliz.
- d) Garapen-bidean dauden herrialdeei laguntzea landa-komunitateei energia eskuragarria eman diezaieten, batez ere emakumeen eta haurren osasunari eragiten dieten jana prestatzeko eta etxea berotzeko erregai-iturri tradizionalakiko mendekotasuna murrizteko.
57. Beruna pixkanaka kentzea bai pinturetatik bai gizakiarekin kontaktuan izaten diren beste gai batzuetatik; lan egitea –bereziki– haurrek berunarekin izan dezaketen kontaktua prebenitzeko eta zainketa- eta gainbegiratze-ahaleginak eta saturnismoaren tratamendua hobetzeko.

## VII. Garapen-bidean dauden eta uharte diren estatu txikien garapen jasangarria

58. Garapen-bidean dauden eta uharte diren estatu txikiak kasu berezia dira ingurumenari eta garapenari dagokienez. Garapen jasangarriarako bidean aurrera jarraitzen badute ere, gero eta mugatuagoak daude aurkako faktoreen elkarreaginagatik. Faktore horiek zein diren argi adierazten dute Agenda 21ek, Garapen Bidean dauden eta Uharte diren Estatu Txikien Garapen Jasangarriarako Ekintza Programak<sup>42</sup> eta Batzar Orokorreko ohiz kanpoko hogeita bigarren saio-aldian hartutako erabakiek. Honako neurri hauek hartu behar dira maila guztietan:
- a) Bizkortzea herrialde eta eskualde bakoitzean Ekintza Programaren aplikazioa –nahikoa finantza-baliabiderekina–, Munduko Ingurumenerako Funtsaren jardueraren bidez ere hala behar izanez gero, ekologiararen aldetik arrazoizkoa den teknologiararen transferentzia eta gaitasuna sustatzeko nazioarteko komunitatearen laguntza.
- b) Arrantzaren antolaketa jasangarriarako jarduerekin jarraitzea eta finantza-errentagarritasuna handitzea

<sup>41</sup> Batzar Orokorraren S-26/2 ebazpena, eranskina.

<sup>42</sup> *Garapen Bidean dauden eta Uharte diren Estatu Txikien Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Konferentziaren txostena, Bridgetown (Barbados), 1994ko apirilaren 25etik maiatzaren 16ra* (Nazio Batuen argitalpena, salmenta-zenbakia: S.94.I.18 eta zuzenketa), I. kap., I. ebazpena, II. eranskina.

- arrantzaren antolaketarako eskualdeetako erakunde eskumendunak sustatuz eta sendotuz, dagokion erara (adibidez, duela gutxi eraturako Karibeko Arrantza Antolatzeko Eskualdeko Programa eta Ozeano Bareko erdialdeko eta mendebaldeko arrain transzonalen eta oso migratzaileak diren arrainen populazioen kontserbazioari eta antolaketari buruzko Hitzarmenaren moduko akordioak bultzatuz).
- c) Garapen-bidean dauden eta uharte diren estatu txikiak laguntzea, ekimen zehatzen bidez, haien kostaldeak eta eremu ekonomiko eskusiboak eta kontinente-plataforma modu jasangarrian mugatzen eta antolatzen (kostaldearen oinarri-lerrotik 200 miliatara dauden kontinente-plataformako eremuak barne, dagokien erara) eta Itsas Zuzenbideari buruzko Nazio Batuen Hitzarmenaren testuinguruko eskualdeko antolaketak ekimen egokien bidez eta Ingurumenerako Nazio Batuen Programako eskualde bakoitzeko itsasoetarako programen bidez.
- d) Laguntza ematea –gaitasuna sortzeko ere, behar izanez gero– honako alderdiak eratzeko eta gauzatzeko helburuarekin:
- i) Garapen-bidean dauden eta uharte diren estatu txikiak berezko osagaiak dibertsitate biologikoari, itsasokoari eta kostaldekoari buruzko lan-programetan.
- ii) Garapen-bidean dauden eta uharte diren estatu txikiak ur gezari buruzko programak, baita MIFen jarduera-esparruaren bidez ere.
- e) Hondakinak eta poluzioak eta haiek osasunean ditzuten eraginak murriztea, prebenitzea eta kontrolatzea, 2004. urterako ekimenak prestatuz. Ekimen horiek garapen-bidean dauden eta uharte diren estatu txikiak Itsas Ingurunea lehorrean egindako jardueretatik Babesteko Munduko Ekintza Programa aplikatzea izan behar dute helburu.
- f) Arduratzea uneko negoziazioan eta ekonomia txikiak merkataritza buruzko Munduko Merkataritza Erakundearen lan-programa egiten denean kontuan har daitezkeen –Dohako garapenerako programaren testuinguruan– garapen-bidean dauden eta uharte diren estatu txikiak, munduko ekonomian integratzeko egitura-oztopo handiekin topo egiten dutenak, alegia.
- g) Komunitateko ekimenak eratzeko turismo jasangarriaren inguruan 2004. urterako, eta turismoko produktuak dibertsifikatzeko behar den gaitasuna sustatzea. Horretaz gain, kultura eta tradizioak babestea eta baliabide naturalak eraginkortasunez kontserbatzea eta antolatzea.
- h) Garapen-bidean dauden eta uharte diren estatu txikiak laguntza ematea tokiko komunitatei eta herrialde zein eskualdeetako erakunde eskumendunei laguntza eman diezaieten arriskuak orokorrean kudeatzen, hondamen-kasuetarako prebenitzen eta prestatzen eta haien eraginak arintzen, eta hondamendien, muturreko fenomeno meteorologikoen eta bestelako larrialdi-egoeren ondorioak arintzen laguntzea.
- i) Laguntza ematea garapen-bidean dauden herrialde eta uharte diren estatu txikiak garapena lortzeko tresna baliagarriak izan daitezkeen ekonomiaren, gizaritearen eta ingurumenaren ahuleziaren indizeak eta haiekin lotutako adierazleak egiten amaitzeko eta lehenbailehen erabiltzen hasteko, adostutako baldintzetan.
- j) Garapen-bidean dauden eta uharte diren estatu txikiak laguntzea nahikoa baliabide erabiltzen eta elkarteak sortzen klima-aldaketaren, itsasoaren maila igotzearen eta aldagarritasun klimatikoaren eragin kaltegarriek dakarten egokitze-premiari aurre egiten, hala dagokionean, Klimaren Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmeneko konpromisoak kontuan hartuta.
- k) Garapen-bidean dauden eta uharte diren estatu txikiak lanari laguntzea gaitasuna sortzen eta erakundeak akordioak eratzten, eta, hala, jabetza intelektualaren erregimenak aplikatzen.
59. Energia-zerbitzu egokiak, eskuragarriak eta ingurumenaren aldetik arrazoizkoak edukitzen laguntzea garapen-bidean dauden eta uharte diren estatu txikiak garapen jasangarriarako, besteak beste honako neurriak hartuz:
- a) Indarrean dauden neurriak sendotzea eta energia-horniketaren eta -zerbitzuen neurri berriak bultzatzea 2004. urterako, baita Nazio Batuen sistemaren bidez eta erakundearen ekimenen bidez ere.
- b) Energia-iturrien erabilera eraginkorra garatzea eta sustatzea, iturri autoktonoak eta energia-iturri berriztagarriak barne, eta gaitzea garapen-bidean dauden eta uharte diren estatu txikiak gaitasunean eta jakintza teknikoetan, eta energia antolatzeari dagokionez erakunde nazionalak indartzea.
60. Garapen-bidean dauden eta uharte diren estatu txikiak laguntza ematea gaitasuna sortzeko eta honako alderdiak indartzeko:
- a) Osasun-arretarako zerbitzuak, arreta horretarako aukera-berdintasuna sustatzeko.
- b) Osasun-sistemak, sendagaiak eta beharrezko teknologia izateko aukera modu jasangarrian eta eskuragarrian emateko, gaixotasun kutsakorren aurka borrokatzeko eta haiek geldiarazteko, batez ere GIB/HIESA, tuberkulosia, diabetea, paludismoa eta dengea.
- c) Hondakinak eta poluzioa murrizteko eta antolatzeko neurriak, eta landa-eremuetan eta hiriguneetan ur-sistemak eta saneamendua mantentzeko eta administratzeko gaitasuna sortzeko.
- d) Pobrezia errotik kentzeko ekimenak aplikatzeko neurriak, dokumentu honen II. atalean ageri direnak.
61. Garapen Bidean dauden eta Uharte diren Estatu Txikiak Garapen Jasangarriarako Ekintza Programa 2004an aplikatzeko azterketa osoa eta zehatza egitea, Batzar Orokorraren S-22/2 ebazpeneko xedapenen arabera, eta, testuinguru horretan, Nazio Batuen Batzar Orokorrari eskatzea garapen-bidean dauden eta uharte diren estatu txikiak garapen jasangarriarako nazioarteko bilera bat egiteko aukera azter dezaten, saioen berrogeita hamazazpigarren aldian.

## VIII. Afrikarentzako garapen jasangarria

62. Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentziatik hona ez da askorik hobetu Afrikako herrialde askoren garapen jasangarria lortzeko aukera. Pobrezia oraindik ere oztopo handia da eta kontinente horretako herrialde gehienek ezin izan dituzte globalizazioaren aukerak bete-betean aprobetxatu; horrek Afrikaren marjinazioa areagotu egin du. Kontinenteak garapen jasangarria lortzeko egin dituen ahaleginetan hainbat oz-

toporekin egin du topo; besteak beste, gatazkak, inbertsioen maila urria, merkatura iristeko aukera mugatuak eta eskaintzaren murrizketak, zorraren karga jasanezina, garapenerako laguntza ofizialen mailen murrizketa (inoiz baino handiagoa) eta GIBaren/HIESAren eraginak. Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Goi-bileran, nazioarteko komunitatearen konpromisoa berretsi beharko litzateke; alegia, arazo berezi horiei aurre egiteko konpromisoa eta Agenda 21 Afrikan aplikatzeko neurri zehatzetan oinarritutako proiektu berri bat gauzatzeko konpromisoa. Afrikaren Garapenerako Aliantza Berria Afrikako agintariak kontinente horretako herriarekin hartu duten konpromisoa da. Aliantzak dioenez, herrialde afrikarren arteko loturak eta herrialde afrikarren eta nazioarteko komunitatearen artekoak ezinbesteko elementuak dira pobrezia errotik kentzeko helburua lortzeko. Helburua da herrialdeak –banaka zein kolektiboki– hazkunde ekonomiko iraunkorrerako eta garapen jasangarriko bidean jartzea, munduko ekonomian eta politikan aktiboki parte hartuz. Kontinentearen garapen jasangarriko afrikar guztiek parteka dezaketen esparrua ematen du Aliantzak. Nazioarteko komunitateak onepenez hartu du Aliantza eta hari proiektu hori egiten laguntzera konprometitu da, baita –besteak beste– Afrikaren garapenari buruzko Tokioko Nazioarteko Konferentzian onartutako Hegoa-Hegoa lankidetzaren onurak aprobetxatuz ere. Pobrezia aurkako estrategiak –adibidez, pobrezia aurkako estrategien dokumentuak iduzten eta Afrikako herrialdeek onartutako eta sustatutako herrialde mailako beste garapen-esparru batzuei laguntza ematera ere konprometitu da. Garapen jasangarria lortzeko honako neurriok hartu behar dira maila guztietan:


a) Alde batetik, eskualdean, azpieskualdean, herrialdean eta tokian ingurune egokia sortzea hazkunde ekonomiko iraunkorra eta garapen jasangarria lortzeko; bestetik, Afrikari honako alderdien aldeko ahaleginetan laguntzea: bakea, egonkortasuna eta segurtasuna, gatazken konponbidea eta prebentzioa, demokrazia, kontu publikoen kudeaketa ona, giza eskubideen eta oinarri-

ko askatasunen errespetua –garapenerako eskubidea barne– eta generoen arteko berdintasuna.

- b) Aliantzaren proiektua eta eskualdeetan eta azpieskualdeetan eraturako bestelako ekimenak gauzaten laguntzea hainbat baliabideren bidez: finantziarioa, lankidetzaren tekniko eta instituzionala eta gizakion eta erakundearen gaitasun-sustapena eskualde, azpieskualde eta herrialde mailan, herrialdeek pobrezia murrizteko eta garapen jasangarriko hartutako eta sustatutako politika eta programa nazionalen arabera betiere (pobrezia aurka jarduteko estrategien dokumentuak, adibidez).
- c) Sustatzea garapen teknologikoa, teknologiaren transferentzia Afrikara eta haren hedapena Afrikan, eta teknologia eta eskuragarri dagoen jakintza Afrikako bikaintasun-zentroetan garatzen jarraitzea.
- d) Afrikako herrialdeei erakunde zientifiko eta teknologiko eraginkorrak eta ikerketa-jarduerak garatzeko laguntza ematea, haiek mundu mailako teknologiak garatzeko edo haietara egokitzeko aukera eman diezaieten.
- e) Programa eta estrategia nazionalak egiteko laguntza ematea hezkuntza sustatzeko, herrialdeek pobrezia aurka hartutako eta sustatutako estrategien testuinguruan, eta hezkuntza alorreko ikerketa-erakundeak sendotzea hezkuntzarekin lotuta nazioartean adostutako garapenerako helburuak lortzeko laguntza osoa emateko gaitasuna handitzeko, baita Milurtekoko Deklarazio helburuak ere; alegia, ziurtatzea 2015. urterako mundu osoko hurrek lehen hezkuntzako ziklo oso bat amaitu ahal izateko aukera eta bai neskatok bai mutikok herrialdearen beharretarako garrantzitsuak diren ikasketak-mailetarako aukera berdina izatea.
- f) Afrikako herrialdeetako industriaren produktibitatea, dibertsitatea eta lehiakortasuna sustatzea Laguntza tekniko eta finantzarioaren bitartez honako helburuetarako: oinarriko azpiegitura garatzeko, teknologiarako aukera izateko, ikerketa-zentroen artean harremanak egiteko, esportazioko produktuei balioa eransteko, gaitasunak garatzeko eta merkatuetarako aukera handitzeko garapen jasangarria lortzen laguntzeko.



- g) Industria-sektorearen –batez ere meatzaritzak, mineralak eta metalek– Afrikaren garapen jasangarriarako ekarpena indartzea, hainbat alderdi bultzatuz: araudi-eta administrazio-esparru eraginkor eta gardenak ezartzea, balio erantsia, oinarri zabaleko parte-hartzea, erantzukizun soziala eta ingurumenekoa eta merkatuetarako aukera handitzea inbertsioetarako ingurune erakargarria eta egokia sortzeko.
- h) Laguntza tekniko eta finantzarioa ematea Afrikak ingurumenaren arloan legetan eta erakundeetan erreformak bultzatzeko duen gaitasuna handitzeko. Erreforma horiek garapen jasangarria lortzeko eta ingurumeneko eraginaren ebaluazioak egiteko izan behar dute eta, hala dagokionean, ingurumeneko alde anitzetako hitzarmenak negoziatzeko eta aplikatzeko.
- i) Proiektuak, programak eta elkarteak abiaraztea interesa duten alderdiekin, eta baliabideak erabiltzea Itsas Ingurunea eta Kostaldekoa Garatzeko eta Babesteko Afrikako Prozesuaren azken dokumentua eraginkortasunez aplikatzeko.
- j) Afrikako energia-arazoei eraginkortasunez ekitea, honako ekimen hauen bitartez ere hala behar izanez gero:
- i) Programak, elkarteak eta ekimenak eratzea eta sustatzea Afrika energiaren alorrean Aliantzaren helburuak betetzeko egiten ari den ahaleginei laguntzeko. Hona zein diren helburuak: Afrikako biztanleen % 35ari, gutxienez, energia-hornidura helaraztea, gehienez 20 urteren buruan, batez ere landa-eremuetan.
- ii) Energiari buruzko bestelako ekimenak gauzatzeko laguntza ematea –adibidez, gutxiago poluitzen duen erabilera sustatzekoa, gas naturala eraginkortasun handiagoz erabiltzekoa eta energia berriztagarria gehiago erabiltzekoa– eta energiaren eraginkortasuna eta energia-teknologia aurreratuetarako aukera handitzea, gutxiago poluitzen duten erregai fosilen teknologiak, adibidez, batez ere landa-eremuetan eta hiri-inguruetan.
- k) Afrikako herrialdeei laguntzea baliabide nahikoak erabiltzen klima-aldaketaren, muturreko fenomeno meteorologikoen, itsasoaren maila igoztearen eta aldagarritasun klimatikoaren eragin kaltegarriak direla-eta dituzten egokitze-premiei aurre egiten, klima-aldaketari buruzko estrategia nazionalak eta haien eraginak arintzeko programak egiten laguntzea eta klima-aldaketaren eraginak Afrikan arintzeko neurriak hartzen jarraitzea, Klimaren Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmenaren arabera.
- l) Afrikan garapen jasangarria eta konektibitatea sustatzeko garraio-sistema eta azpiegitura eskuragarriak garatzeko ahaleginetan laguntzea kontinente horri.
- m) 42. paragrafoak finkatzen duenez, Afrikako mendialdeko komunitateei eragiten dien pobrezia ekitea.
- n) Laguntza tekniko eta finantzarioa Laguntza tekniko eta finantzarioa ematea Afrikan basoak landatzeko eta birlandatzeko eta basoen antolaketa jasangarriarako gaitasuna sendotzeko; horren barruan daude deforestazioaren aurkako borroka eta basogintza-sektorearen araudia eta esparru juridikoa hobetzeko neurriak.
63. Laguntza tekniko eta finantzarioa ematea Afrikari hainbat ahalegin gauzatzeko: desertifikazioaren aurka borroka egiteko konbentzioa herrialdean aplikatzeko, jakintza autoktonoko sistemak lurzorua baliabideak eta baliabide naturalak antolatuzko praktiketan integratzeko –hala dago- kionean– eta landa-eremuetarako zerbitzuen hedapena hobetzeko eta lurzorua eta arro hidrografikoak antolatuzko praktika hobeak sustatzeko, – lurzoruen degradazioari aurre egiten dieten nekazaritza-praktikak hobetuz ere, hala behar izanez gero–, programa nazionalak gauzatzeko gaitasuna garatzearren.
64. Laguntza finantzarioa eta bestelakoa erabiltzea helburu hauek dituzten osasun-sistemak garatzeko eta indartzeko:
- a) Osasun-arretarako zerbitzuetarako aukera-berdintasuna sustatzea.
- b) Beharrezko sendagai eta teknologiak izateko aukera ematea modu jasangarrian eta eskuragarrian gaixotasun kutsakorrei aurre egiteko eta haiek kontrolatzeko –adibidez, GIB/HIESA, paludismoa, tuberkulosia eta tripanosomiasia–, baita kutsakorrek ez diren gaixotasunentzako ere, pobrezia eragindakoak barne.
- c) Medikuen eta paramedikuen gaitasuna handitzea.
- d) Medikuntzako jakintza autoktonoak sustatzea, hala dagokionean, medikuntza tradizionala barne.
- e) Ebola gaixotasuna ikertzea eta aurre egitea.
65. Hondamendi naturalei eta gatazkei eta haiek gizakian eta ingurumenean dituzten eraginei eraginkortasunez erantzutea, ondoren aipatzen diren ahaleginak eta ekimenak maila guztietan gauzatzu eta onartuz Afrikako gatazkek garapen jasangarriaren onurak zaildu eta, askotan, neutralizatu egiten dituztela, baita hura lortzeko ahaleginak ere, eta gizarteko sektore ahulenak –berezi emakumeak eta haurrak– direla eragin handiena pairatu duten biktimak.
- a) Laguntza tekniko eta finantzarioa ematea Afrikako herrialdeek hondamendiak eraginkortasunez kudeatzeko duten gaitasuna handitzeko, haien erakundeen eta gizakien gaitasuna barne, baita toki mailan ere. Laguntza horren barnean daude behatze-sistemak, alerta-sistema goiztiarrak, ebaluazioak, prebentzioa, prestaketa, erantzuna eta berreskuratzea.
- b) Afrikako herrialdeei laguntza ematea hondamendi naturalek eta gatazkek eragindako biztanleen lekualdaketei aurre hobeto egin diezaieten, eta haiei azkar erantzuteko mekanismoak ezartzea.
- c) Afrikari laguntzea gatazkei aurre egin eta haiek konpontzeko ahaleginean, haien ondorioak kudeatzen eta arintzen eta gatazka-egoera berriei garaiz erantzuten, gizakiengan ondorio tragikorik izan ez dezaten.
- d) Errefuxiatuak hartzen dituzten herrialdeei laguntza ematea haien azpiegitura eta ingurumena birgaitzeko, ekosistemak eta habitata barne, errefuxiatuak hartzeak eta haiek finkatzeak kalterik eragin badie.
66. Baliabide hidrikoen garapen integratua sustatzea eta hori ahal den onurarik gehien lortzea –bai ibaian gora bai ibaian behera– eta erabilera guztietarako baliabide hidrikoen garapena eta antolamendu eraginkorra optimizatzea, baita uraren kalitatearen eta uretako ekosistemen babesa hobetzea ere, honako helburuok dituzten ekimenak bultzatuz maila guztietan:
- a) Etxeetara edateko ura helaraztea, higieneari buruzko hezkuntza ematea, saneamendurako eta hondakinak kudeatzeko zerbitzu hobetuak eskaintza, uraren horniketan eta saneamenduan sektore publiko eta pribatuaren inbertsioa sustatzeko egindako ekimenen bidez. Ekimen horietan pobreei lehentasuna eman behar zaie; halaber, gobernuak ezarritako araudi nazional egonkorren eta gardenen parte izan behar dute ekimenei. Hori guztia interesa duten alderdien parte-hartzeare-



- kin egin behar da, ekimenen gauzatzea zainduz eta erakunde publikoen eta enpresa pribatuen kontu-ematea hobetuz. Horrezaz guztiaz gainera, ura hornitzeko, bantatzeko eta tratatzeko azpiegitura garatze horren premia handiena dagoen lekuan, eta ura hornitzeko eta saneamendurako zerbitzuak ematen dituzten sistemak mantentzeko eta kudeatzeko gaitasuna sortzea, landa-eremuetan zein hiriguneetan.
- b) Arro hidrografikoei eta isurialdeei buruzko kudeaketa-estrategiak eta -planak egitea eta aplikatzea ur-ibilgu garrantzitsu guztientzat, goiko 25. paragrafoan adierazi bezala.
- c) Sendotzea datuak biltzeko eta prozesatzeko eskualdeko, azpieskualdeko eta herrialdeko mekanismoak eta planifikatzeko, ikertzeko, zaintzeko, ebaluatzeko eta betetzekoak, baita baliabide hidrikoak antolatzen xedapenak ere.
- d) Baliabide hidrikoak –adibidez, lurpeko urak eta paduretako ekosistemak– poluziotik babestea eta, ur-eskasia larria badago, ohikoak ez diren baliabide hidrikoak ustiatzeko ekimenetan laguntzea –adibidez, itsasoko ura gezatzen (jasangarria eta energiaren eta kostuen ikuspuntutik eraginkorra), euri-ura hartzen eta ura birziklatzen).
67. Nekazaritzako produktibitate eta elikagai-segurtasun jasangarriak nabarmen hobetzea, Milurtekoko helburuak betez– Milurtekoko Deklarazioan ageri direnak barnebatez ere 2015. urterako gosea pasatzen duten pertsonen ehunekoia erdira murriztearena, honako neurriok hartuz maila guztietan:
- a) Politika eta programa nazionalak egiteko eta aplikatzeko laguntza ematea, baita Afrikako herrialdeen ikerketa-programak eta garapen-planak ere. Horien helburua da nekazaritza-sektorea bere onera ekartzea eta arrantza-sektorea modu jasangarrian garatzea, eta inbertsioak handitzea azpiegituran, teknologian eta hedapen-zerbitzuetan, herrialdeen beharren arabera. Afrikako herrialdeek 2005. urterako elikagai-segurtasunerako estrategiak egiten eta aplikatzen hasiak egon behar dute, pobrezia errotik kentzeko programa nazionalen testuinguruan.
- b) Jarduerak eta ekimenak sustatzea eta haietan laguntzea lur-jabetza eskuratzeko berdintasuna ziurtatzeko eta nekazaritza-erreformako eta jabetzako prozesuen bidez baliabideekiko eskubideak eta erantzukizunak zehazteko. Prozesu horiek ordenamendu juridikoa errespetatu, herrialdeko zuzenbidearekin bat etorri, mailegurako aukera unibertsala eman –batez ere, emakumeei–, ekonomian eta gizartean gaitu eta pobrezia errotik kentzea bultzatu behar dute, baita lurzorua ekologiarik ikuspuntutik modu arrazoizkoan erabiltzea ere, eta emakume ekizleak erabakiak hartzeko eta sektorean jabeak izateko –lurak heredatzeko eskubidea barne– aukera eman behar dute.
- c) Salgaiak merkatuetara iristeko aukera hobetzea, batez ere Afrikako herrialdeetatik datozenak eta bereziki horren aurreratuak ez dauden herrialdeetakoak, Dohako Ministro Deklarazioaren eta lehentasuneko akordioaren arabera, Munduko Merkataritza Erakundearen negoziazioen emaitzak aintzat harturik betiere.
- d) Laguntza ematea Afrikako herrialdeek eskualdeko merkataritza eta beren arteko integrazio ekonomikoak hobe dezaten. Merkatuko eskualdeko azpiegiturara inbertsioak erakartzea eta handitzea.
- e) Animalien gaixotasunak etengabe eta eraginkortasunez sendatzeko abeltzaintzarako garapen-programei laguntza ematea.
68. Produktu kimikoak modu arrazoizkoan kudeatzea, arreta berezia eginez produktu eta hondakin arrisksutsuei, honako baliabideok erabiliz, besteak beste: Afrikako herrialdeei laguntzea produktu kimikoei buruzko profil nazionalak egiten eta eskualdeko eta herrialdeko esparruak eta produktu kimikoak kudeatzeko estrategiak egiten eta alor horretan koordinazio-zentroak eratzen.
69. Informatikaren alorrean herri aberatsen eta pobreen artean dagoen aldea gutxitzea eta aukerak sortzea teknologia erabiltzeko azpiegiturari eta teknologiaren transferentzia eta aplikazioari dagokienez, Afrikarentzako ekimen integratuen bidez. Ingurune egokia sortzea inbertsioak erakartzeko, oinarriko erakundearen artean loturak ezartzeko lehendik dauden eta berriak diren programen eta proiektuen gauzatzea bizkortzeko, eta informazioaren teknologiak eta komunikazioak bultzatzeko administrazio publikoan eta merkataritza sustatzeko programetan, baita bizitza ekonomiko eta sozialeko gainerako alderdietan ere erabiltzeko.
70. Garapen soziala, ekonomikoa eta azpiegitura bultzatzearen turismo jasangarria lortzeko ekimenetan laguntzea Afrikari, neurri hauek hartuz:
- a) Proiektuak gauzatzea tokian, herrialdean eta azpieskualdean, arreta berezia eginez Afrikako produktu turistikoaren –hala nola, abentura-turismoa, ekoturismoa eta turismo kulturala– merkaturatzeari.
- b) Ekosistemak zaintzeko eremuak ezartzea herrialdean eta mugaz haraindi, haien kontserbazioa sustatzeko –ekosistemetan oinarritutako ikuspuntuaren arabera– eta turismo jasangarria bultzatzeko.
- c) Tokiko tradizioak eta kulturak errespetatzea eta jakintza indigenak baliabide naturalen eta ekoturismoaren antolaketan aplika daitezela sustatzea.
- d) Komunitateei beren turismo-proiektuak administrazioan laguntzea, ahalik eta onurarik gehien eskura dezaten eta beren tradizio, kultura eta ingurumenerako eragin kaltegarriak murriztu dituzten.
- e) Laguntzea Afrikako biodibertsitatea zaintzen, haren osagaien erabilera jasangarrian, baliabide genetikoak erabiltzetik sortzen diren onurak zuzen eta egoki bantzen, herrialdeek parte diren biodibertsitateari buruzko akordioaren arabera hartutako konpromisoak betetzen –besteak beste, Biodibertsitateari buruzko Hitzarmena eta Basoko Faunako eta Florako Mehatxatutako Espezieen Nazioarteko Merkataritzari buruzko Konbentzioa– eta biodibertsitatearekin lotutako eskualdeko akordioekin bat betiere.
71. Afrikako herrialdeei laguntzea Habitat Programa eta Istanbulko Deklarazioa aplikatzeko ahaleginetan, hainbat ekimenez bidez: herrialdeko eta tokiko erakundearen gaitasuna sustatzea urbanizazioa eta gizakien kokaleku jasangarrien inguruan; etxebizitza egokiaren eta oinarriko zerbitzuen alorrean laguntzea, baita hirietan eta gizakien bostelako kokalekuetan gai publikoak kudeatzeko sistema eraginkorren garapenean ere, eta Gizakien Kokalekurako Nazio Batuen Programako eta Ingurumenerako Nazio Batuen Programako Afrikako hirietarako uraren hornidura-programa sustatzea, besteak beste.

## IX. Eskualdeetako beste ekimen batzuk

72. Ekimen garrantzitsuak prestatu dira Nazio Batuetako gainerako eskualdeetan eta eskualde, azpieskualde eta eskualdez haraindiko foroetan garapen jasangarria sustatzeko. Nazioarteko komunitateak onespenez hartu ditu jarduera horiek eta orain arte lortutako emaitzak, eta maila guztietan neurriak hartzea eskatu du haiek guztiz garatzeko. Horretaz gain, eskualdeen arteko, eskualde barruko eta nazioarteko lankidetzaz bultzatzen du gai horren inguruan eta eskualde horietako herrialdeek ekimen horiek guztiz garatzearen eta aplikatzearen alde agertzen da.

### A. Latinoamerikarako eta Kariberako garapen jasangarriko ekimenak

73. Garapen Jasangarriari buruzko Latinoamerikaren eta Kariberen ekimena eskualde horretako agintariak abian jarritako proiektua da, Rio de Janeirotik Johannesburgerako Ekintza Plataforma 2002<sup>43</sup> oinarri duena –Rion 2001eko urrian onetsia–. Garapen jasangarria sustatzen duten eskualdeko jardueren garrantzia onartzen du proiektuak eta eskualdeko berezitasunak, ikuspuntu komunak eta dibertsitate kulturala kontuan hartzen ditu. Ekimenaren helburua neurri zehatzak hartzea da garapen jasangarriaren hainbat alorretan –biodibertsitatean, baliabide hidrikoetan, alde ahuletan eta hiri jasangarrietan, gizarte alderdian (osasuna eta pobrezia barne), alderdi ekonomikoetan (energia barne) eta erakundeen akordioetan (gaitasunaren sustapena, adierazleak eta gizartearen parte-hartzea barne)– garapen jasangarriaren etika aintzat harturik betiere.
74. Ekimenak aurreikusten duenez, eskualdeko herrialdeek Hegoa-Hegoa lankidetzaz sustatzeko neurriak hartu behar dituzte eta herrialde-taldeen laguntza izan behar dute, baita alde anitzetako eta eskualdeetako erakundeena ere, finantza-erakundeak barne direla. Lankidetzaz esparrua den heinean, Ekimenak gobernuekin eta talde garrantzitsu guztiekin osatutako lankidetzaz-elkarteak onartzen ditu.

### B. Garapen jasangarria Asian eta Ozeano Barean

75. 2015. urterako pobrezian bizi diren pertsona-kopurua erdira murrizteko helburua –Milurtekoko Deklarazioan ezarritakoa– aintzat hartuta, Asiarako eta Ozeano Barerako Garapen Jasangarriari buruzko Phnom Penh-eko Eskualdeko Plataformak<sup>44</sup> zera zioen: eskualde horretan bizi dela munduko biztanleriaren erdia baino gehiago, baita pobrezian bizi diren gizon-emakumeen kopuru handiena ere. Horregatik, eskualdearen garapen jasangarria beharrezkoa da munduaren garapen jasangarria lortu ahal izateko.
76. Jarraipena egin beharreko zazpi ekimen erabaki ziren Eskualdeko Plataforman: garapen jasangarriko gaitasuna sortzea; pobrezia murriztea garapen jasangarriko; gu-

txiago poluitzen duen ekoizpena eta energia jasangarria; lurzorua antolaketa eta biodibertsitatearen kontserbazioa; baliabide hidrikoen babesa eta antolaketa eta baliabide horiek eskuratzeko aukera; ozeanoak eta kostaldeko eta itsasoko baliabideak eta uharte diren estatu txikien garapen jasangarria, eta atmosferari eta klima-aldaketari buruzko neurriak. Jarraipen-neurriak hartu behar dira estrategia nazionalen eta eskualdeko eta azpieskualdeko ekimen egokien bidez (Jasangarria eta Ekologiaren alde-tik Arrazoizkoa den Garapenerako Eskualdeko Ekintza Programa eta Ingurumen Garbirako Kitakyushu-ko Ekimena, adibidez, Asiarako eta Pazifikorako Batzorde Ekonomiko eta Sozialak antolatutako Asiako eta Ozeano Barreko Ingurumenari eta Garapenari buruzko Laugarren Ministro Konferentzian onetsiak).

### C. Garapen jasangarria mendebaldeko Asian

77. Mendebaldeko Asia aski ezaguna da ur-ekusiagatik eta lurzoru emankorreko baliabide mugatuengatik. Balio erantsi handiagoko oinarriko produktuetan oinarritutako ekoizpena lortu du, pixkanaka, eskualdeak.
78. Eskualdeko prestakuntza-bilerak bere egin ditu lehentasun hauek: pobrezia arintzea, zorraren karga arintzea eta baliabide naturalak modu jasangarrian antolatzea –besteak beste, baliabide hidrikoen antolaketa integratua, desertifikazioaren aurkako borrokako programak gauzatea, kostaldean antolaketa integratua eta lurzorua eta uraren poluzioaren aurkako borroka–.


### D. Garapen jasangarria Europarako Batzorde Ekonomikoaren eskualdean

79. Europarako Batzorde Ekonomikoak Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Goi-bilera prestatzeko egindako eskualdeko ministro-bilerak onartu egin zuen eskualdeak garapen jasangarria lortzeko nazioartean ahaleginetan eginkizun eta erantzukizun garrantzitsuak dituela, baita neurri zehatzak hartu beharra ere. Eskualdeak onartu egin zuen beren herrialdeen garapen ekonomiko maila desberdinetakoa izanik agian Agenda 21 gauzatzeko ikuspuntu eta mekanismo desberdinak erabili behar direla. Garapen jasangarriaren hiru elementuei elkar indartzeko moduan ekiteko, eskualdeak garapen jasangarriko bere lehentasunak ezarri zituen Europarako Batzorde Ekonomikoaren eskualdearentzat Goi-bileran eginiko ministro-deklarazioan<sup>45</sup>.
80. Garapen jasangarriarekiko eskualdearen atxikimendua sendotzeko, hainbat jardura jarri dituzte martxan eskualdearen, azpieskualdeen eta eskualdeen artean: ‘Europarako Ingurumena’ proiektua; Europarako Batzorde Ekonomikoaren bosgarren ministro-konferentzia, Kiev-en 2003ko maiatzean egingo dena; ingurumen-estrategia lantzea Europako ekialdeko, Kaukasoko eta Erdialdeko Asiako 12 herrialdeentzat; Agenda 21 Erdialdeko Asiarantz; Ekonomia Lankidetzaz eta Garapenerako Erakunde-

<sup>43</sup> E/CN.17/2002/PC.2/5/Add.2.

<sup>44</sup> E/CN.17/2002/PC.2/8.

<sup>45</sup> ECE/ACC.22/2001/2, I. eranskina.



aren lana garapen jasangarriari buruz; Europako Batasuneko garapen jasangarriaren estrategia eta, azkenik, garapen jasangarriarekin lotutako eskualdeko eta azpieskualdeko konbentzioak eta prozesuak –adibidez, Informaziorako Aukerari, erabakiak hartzeko parte hartzeari eta ingurumen-kontuetan justiziarako aukerari buruzko Konbentzioa (Aarhus-eko Konbentzioa), Alpeetako Konbentzioa, Ingurumenenerako Lankidetzari buruzko Ipar Amerikako Batzordea, Ur Mugakideei buruzko Nazioarteko Ituna, Kontseilu Artikoaren Iqaluit-eko Deklarazioa, Baltikoko Agenda 21 eta Mediterraneoko Agenda 21–.

## X. Gauzatzeko bitartekoak

81. Agenda 21 aplikatzeak eta garapenerako nazioartean adostutako helburuak betetzeak, baita Milurtekoko Deklarazioan eta ekintza-plan honetan agertzen direnak ere, ahalegin handiagoa egitea eskatzen dute, bai herrialdeek beraiek bai gainerako nazioarteko komunitateak, oinarritzat hartuta herrialde bakoitzak bere garapenaren erantzukizun nagusia hartu behar duela eta azpimarratu egin behar dela garapen-estrategiek eta politika nazionalak funtzio garrantzitsua dutela, oso kontuan izanda Rioko printzipioak, batez ere erantzukizun komun baina bereziena:

*"Estatuek lankidetzan jardun behar dute Lurraren ekosistemaren osasuna eta osotasuna zaintzeko, babesteko eta indartzeko, mundu osorako elkartasun-irizpidez betiere. Munduko ingurumenaren degradazioa maila berean eragin ez dutenez, estatuak erantzukizun komunak baina bereziak dituzte. Herrialde garatuak onartzen dute garapen jasangarria lortzeko nazioartean duten erantzukizuna, ikusita haien gizarteak munduko ingurumenean egiten duten presioa eta eskura dituzten teknologiak eta finantza-baliabideak."*

Nazioartean adostutako garapen-helburuak –baita Milurtekoko Deklarazioan, Agenda 21ean eta ekintza-plan honetan agertzen direnak ere– finantza-baliabideen mugimenduak asko handitzea eskatuko dute, Monterreyko Itunean adierazi bezala, baita baliabide berri eta osagarriak ematea ere (batez ere garapen-bidean dauden herrialdeentzako). Horren helburua da, alde batetik, herrialde horiek egin dituzten politika eta programa nazionalak gauzatzeko laguntzea; bestetik, hobetzea merkataritzako aukerak, ekologiaren aldetik arrazoizkoak diren teknologien transferentzia eta haiek eskuratzeko aukera elkarrekin adostutako baldintza egokietan eta lehentasunekoetan, hezkuntza eta biztanleriaren kontzientzia-maila igotzea, gaitasunaren sustapena eta erabakiak hartzeko informazioa izateko aukera eta gaitasun zientifikoa, helburu eta ekimen horiek lortzeko behar diren adostutako epeen barruan. Alor horretan aurrerapenak lortzeko beharrezkoa izango da nazioarteko komunitateak nazioarteko hitzarmenak eta Nazio Batuen konferentzia nagusietako emaitzak aplikatzea: adibidez, Horren Aurreratuta ez dauden Herrialdeei buruzko Nazio Batuen Hirugarren Konferentzian<sup>46</sup> eta Garapen Bidean dauden eta Uharte diren Estatu Txikien Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Konferentzian onetsitako ekintza-programak eta 1992. urtea gerotik adostutako nazioarteko hitzarmen egokiak, batez

ere Garapenerako Finantziarioari buruzko Nazioarteko Konferentzia eta Munduko Merkataritza Erakundearen Laugarren Ministro Konferentzia, baita garapen jasangarria lortzeko prozesu baterako abiapuntutzat erabili behar badira ere.

82. XXI. mendea guztiontzat garapen jasangarriaren mendea izatea lortzeko egin beharreko lehen urratsa hau da: finantza-baliabideak erabiltzea eta haien eraginkortasuna handitzea, eta nazioartean pobrezia ezabatzeko, baldintza sozialak hobetzeko, bizi-mailak igotzeko eta gure ingurumena babesteko adostutako garapen-helburuak –baita Milurtekoko Deklarazioan adierazten direnak ere– lortzeko behar diren baldintza ekonomiko nazionalak eta nazioartekoak ezartzea.

83. Pobrezia kentzeko eta hazkunde ekonomikoa eta garapen jasangarria lortzeko gure jardueran arazo kritiko bat dugu: barneko aurrezkiak –publikoak zein pribatuak– erabiltzeko, inbertsio produktiboetarako maila nahikoak mantentzeko eta giza gaitasuna handitzeko beharrezkoak diren barne-baldintzak bermatzea. Izugarriko garrantzia du, bestalde, politika makroekonomikoaren eraginkortasuna, koherentzia eta adostasuna handitzeak. Herrialdean ingurune egokia lortzea funtsezkoa da barne-baliabideak mugiarazteko, produktibitatea handitzeko, kapital-ihesa murrizteko, sektore pribatua sustatzeko eta nazioarteko inbertsio eta laguntzak erakartzeko eta hobeto aprobetxatzeko. Nazioarteko komunitateak lagundu egin behar du ingurune hori sortzeko ahaleginetan.

84. Atzerriko zuzeneko inbertsio-fluxu handiagoak bideratzea garapen-bidean dauden herrialdeen garapen jasangarriarako jarduerari laguntzeko –baita haien azpiegituren garapenerari ere– eta garapen-bidean dauden herrialdeek atzerriko zuzeneko inbertsioetatik lor ditzaketen onurak handitzeko, honako neurri bereziak hartuz:

- Garapen-bidean dauden herrialdeetara –batez ere atzeratuenetara– atzerriko zuzeneko inbertsio-korronteak nabarmen handitzeko behar diren barneko eta nazioarteko baldintzak sortzea. Atzerriko zuzeneko inbertsio-korronte horiek –batez ere garapen-bidean dauden herrialdeetan, herrialde horiek berek mugitutako barne-baliabideak osatzeko azpiegiturak eta bestelako lehentasuneko esparruak garatzera zuzenduak– funtsezkoak dira garapen jasangarria lortzeko.
- Atzerriko zuzeneko inbertsioak bultzatzea garapen-bidean dauden eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeetan, garapen jasangarriarako baliagarriak izan daitezkeen maileguak emanez esportazioari.

85. Onartzea beharrezkoa izango dela garapenerako laguntza ofiziala eta bestelako baliabideak handitzea garapen-bidean dauden herrialdeek nazioartean adostutako garapen-helburuak lor ditzaten, baita Milurtekoko Deklarazioan agertzen diren helburuak ere. Garapenerako laguntza ofiziala sustatzeko, garapen-politikak eta -estrategiak hobetzen jarraitzeko lankidetzan jardun behar dugu, bai herrialdean bai nazioartean, laguntzaren eraginkortasuna handitzeko asmoz. Horretarako, honako neurriok erabili behar dira:

- Garapenerako Finantziarioari buruzko Nazioarteko Konferentzian hainbat herrialde garatutako adierazitako

<sup>46</sup> A/CONF.199/11.

garapenerako laguntza ofizialerako konpromiso handiagotua gauzatea. Oraindik egin ez duten herrialde garatuei neurri zehatzak har ditzaten eskatzea beren nazio-produktu gordinaren % 0,7 garapenerako laguntza ofizial gisa emateko garapen-bidean dauden herrialdeei eta laguntza horrekin lotuta horren garatuta ez dauden herrialdeekin hartutako konpromisoa bete dezaten, 2001-2010 hamarkadarako horren garatuta ez dauden herrialdeen alderako Ekintza Programako<sup>47</sup> (2001eko maiatzaren 20an Bruselan onetsia) 83. paragrafoan ageri den bezala. Herrialde garatuei honakoa ere eskatzen diegu: lortutako aurrerapenak baliatzea eta ziurtatzea garapenerako laguntza ofiziala garapen-helburuak lortzen laguntzeko eraginkortasunez erabiltzen dela, Garapenerako Finantziario buruzko Nazioarteko Konferentziaren emaitzen arabera. Emaile guztien ahaleginak onartzen ditugu, helburuak gainditzen, iristen edo haiek lortzeko handitzen ari diren ekarpenen emaeleak goستن ditugu eta helburuak lortzeko jarritako baliabideak eta epeak aztertzeko garrantzia nabarmentzen dugu.

b) Herrialde hartzaileak eta emaeleak bultzatzea, baita nazioarteko erakundeak ere, garapenerako laguntza ofizialaren eraginkortasuna handitzera, pobrezia deuseztatzeko, ekonomia iraunkorra handitzeko eta garapen jasangarria lortzeko. Horri dagokionez, bi helburu daude: batetik, alde anitzetako eta alde biko finantza- eta garapen-erakundeak sustatzea, Monterreyko Adostasuneko 43. paragrafoaren arabera, batez ere haien eragiketa-prozedurak arau gorenekin bat egiteko eta horrela transakzio-gastuak murrizteko eta garapenerako laguntza ofiziala garapen-bidean dauden herrialdeen beharrekin malguagoak eta egoikiagoak izateko, kontuan izanda herrialde hartzaileen autonomia-printzipioarekin bat datozen garapen-premia eta -helburu nazionalak. Bestetik, garapen-bidean dauden herrialdeen beraien eta beraiek sustatutako garapen-esparruak erabiltzea, pobrezia murrizteko estrategiak dituztenak –pobrezia aurkako borrorakako estrategia-dokumentuak barne–, laguntza emateko baliabide modura, herrialde hartzaileek hala eskatuta.

86. Lehendik dauden finantza-mekanismoak eta -erakundeak osoki eta modu eraginkorrean erabiltzea, maila guztietan honako neurriok hartuz besteak beste:

a) Indarrean dauden ahaleginak indartzea, nazioarteko finantza-egitura berritzeko eta sistema garden, bidezko eta integratzailea sustatzeko. Sistema horrek zera ziurtatu behar du: garapen-bidean dauden herrialdeek eraginkortasunez parte hartzea nazioarteko erakunde ekonomikoetan eta gaiaren inguruan erabakiak hartzeko prozesuetan, baita finantza-arauak eta -kodeen eraketan parte-hartze eraginkorra eta bidezkoa izatea ere.

b) Jatorrizko eta jomuga-herrialdeetan sustatzea– besteak beste– finantza-korronteen gardentasuna eta informazioa hobetzeko neurriak, nazioarteko finantza-inguru-nearen egonkortasunari laguntzeko. Epe laburreko kapital-korronteen gehieneko aldagarritasun ondorioak arintzeko neurriak garrantzitsuak eta kontuan hartze-koak dira.

c) Honakoa ziurtatzen ahalegintzea: nazioarteko erakunde eta organismoetarako funtsak –hala dagokionean–

modu egokian, seguruan eta aurreikusgarrian banatzen direla, erakunde eta organismo horien garapen jasangarriari buruzko jarduera, programa eta proiektuetarako.

d) Sektore pribatua –enpresa transnazionalak, fundazio pribatuak eta gizarte zibileko erakundeak barne– garapen-bidean dauden herrialdeei laguntza tekniko eta finantzarioa ematera bultzatzea.

e) Sektore publiko eta pribatu berrietako eta zaharretako finantziario-mekanismoak laguntzea, garapen-bidean dauden eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeei mesede egitearren –batez ere enpresari txikiak eta komunitatean oinarritutako enpresa txiki eta ertainak, baita horien azpiegiturari ere–, eta, horretaz gain, mekanismo horien gardentasuna eta kontu-ematea ziurtatzea.

87. Atseginez onartzea Munduko Ingurumenerako Funtsaren hirugarren diru-birjartzearen amaiera bikaina eta pozgarria. Horri esker, esparru interesgarri berrien eta zaharren finantziario-beharrak ase ahalko dira, baita herrialde hartzaileen –batez ere garapen-bidean dauden– beharrei eta kezkei erantzuten jarraitu ahalko ere. Horrez gain, Ingurumenerako Funtsa bultzatzen jarraitzea erakunde publikoen eta pribatuen funts berriak erabil ditzan, funtsen kudeaketa hobe dezan prozedura azkarragoak eta arrazoizkoagoak sartuz eta proiektuak onesteko zikloa sinplifika dezan.

88. Garapenerako finantziario-iturri publiko eta pribatu berri eta berritzaileak sortzeko bitartekoak bilatzea, betiere iturri horiek garapen-bidean dauden herrialdeentzako karga handiegia ez badira, igorpen-eskubide berezien esleipena erabiltzeko proposamena kontuan hartuta, Monterreyko Adostasuneko 44. paragrafoak dioen bezala.

89. Garapen-bidean dauden herrialdeen zorraren karga jasanezina murriztea, zorraren karga arintzeko neurriak aplikatu –adibidez– eta, hala dagokionean, zorra barkatzekoak ere, eta garapen-bidean dauden herrialdeen –bereziki pobreenen eta zor gehien dituztenen– zor-arazoei zabalatasunez ekiteko bestelako mekanismo berritzaileak erabiltzea. Ondorioz, zorra arintzeko neurriak aztertu behar dira –hala dagokionean– azkar eta tinko, Paris eta Londreseko klubetan eta dagokion bestelako foroetan ere behar izanez gero, zorra jasangarria egiten laguntzeko eta garapen jasangarria errazteko. Horretaz gainera, onartu behar da zordunek eta hartzekodunek zorraren inguruko egoera jasanezinak aurreikusteko eta konpontzeko erantzukizuna partekatu behar dutela, eta kanpo-zorraren karga arintzea funtsezkoa dela garapen eta hazkunde jasangarriekin bateragarri diren jardueretarako baliabideak askatzeko. Beraz, Monterreyko Ituneko kanpo-zorrarekin lotutako 47-51 paragrafoen alde egiten dugu. Zorra arintzeko akordioetan honakoa egiten saiatu behar guke: garapen-bidean dauden beste herrialde batzuei inolako karga bidegaberik ez ezartzen. Zorrei dagokienez, herrialde pobreen eta ahulenei eman beharko litzaizkieke beste inori baino emakida gehiago.. Kanpo-pasiboak gainbegiratzeko eta administratzeko estrategia nazional zabalak lantzea bultzatzen ditugu herrialdeak, horiek izango baitira herrialdearen ahulezia murrizteko elementu giltzarriak. Horri dagokionez, honako neurriak hartu behar dira:

<sup>47</sup> A/CONF.199/13.





- a) Zor handiak dituzten herrialde pobreen aldeko ekimen sendotua osoki, arin eta eraginkortasunez martxan jartzea. Ekimen hori guztia baliabide osagarriek finantzatu beharko lukete, aintzat hartuz –hala dagokionean– garapen-bidean dauden herrialdeen egoera ekonomikoetan gertatutako edozein aldaketa garrantzitsuri –hondamendi naturalak, truke-harremanetan astindu handiak edo gatazkak– aurre egiteko neurri egokiak, zorraren maila murrizteko prestatutako ekimenak go-goan direla betiere.
- b) Zor handiak dituzten herrialde pobreen aldeko ekimenean oraindik parte hartu ez duten hartzekodun guztiak parte hartzera bultzatzea.
- c) Nazioarteko zordun eta hartzekodunak biltzea nazioarteko foro egokietan zor jasanezina modu egokian eta eraginkorrean berregituratzeko, kontuan izanik –hala balegokio– sektore pribatuak zorreratik sortutako krisien ebazpenen parte hartu beharra daukala
- d) Sarrera txikiak dituzten eta zor oso handiak ez dituzten herrialde pobreak ez diren herrialdeek –batez ere egoera berezietan aurre egiten ari direnek– zorraren jasanezintasunagatik dituzten arazoak onartzea.
- e) Mekanismo berritzaileen bilaketa bultzatzea garapen-bidean dauden herrialdeen zor-arazoei zabalatasunez egiteko, baita sarrera ertaineko eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeetako ere. Mekanismo horietan garapen jasangarria finantzatzeko zor-trukeak egon daitezke.
- f) Herrialde emaileak bultzatzea neurriak har ditzaten zorra arintzeko emandako baliabideak garapen-bidean dauden herrialdeei garapenerako laguntza ofizialerako emandako baliabideetatik ez datozela ziurtatzeko.
90. Merkataritzak garapen jasangarria lortzeko eta pobrezia deuseztatzeko ahaleginean izan dezakeen garrantzia onartuta, Munduko Merkataritza Erakundeko (MME) kideak beren Laugarren Ministro Konferentzian adostutako lan-programa betetzera bultzatzen ditugu. Garapen-bidean dauden herrialdeei –batez ere horren aurreraturik ez daudenei– beren garapen ekonomikoko beharrekin proportzionala den munduko merkataritzaren hazkundera parte hartzea lor dezaten laguntzeko, MMEko kideei neurri hauek har ditzaten eskatzen diegu:
- a) MMEan sartzea eskatu duten garapen-bidean dauden herrialdeei –batez ere horren aurreraturik ez daudenei eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeei– sarrera erraztea, Monterreyko Adostasunaren arabera.
- b) Dohako Ministro Konferentzian onetsitako lan-programari laguntzea, merkataritza-politika egokiak norberaren garapen-programetan eta -politiketan sartzera bideratutako herrialde garatu eta garapen-bidean dauden herrialdeen arteko konpromiso garrantzitsu gisa.
- c) Merkataritzaren inguruko laguntza tekniko eta gaitasuna sustatzeko funtsezko neurriak aplikatzea, eta Dohako Ministro Konferentziaren ondoren sortutako Garapenerako Dohako Programaren Fondo Fiduziario orokorrari laguntza ematea, Munduko Merkataritza Erakundearekin lotutako teknika-laguntza emateko eta gaitasuna sortzeko oinarri sendo eta aurreikusgarria finkatzeko urrats garrantzitsu gisa.
- d) Kooperazio teknikoaren estrategia berria aplikatzea, Dohako Deklarazioan finkatutako gaitasun-sorrera, hazkunde eta integrazioerako.
- e) Merkataritza aldetik gutxien aurreratuta dauden herrialdeei laguntza tekniko emateko Esparru Integratuaren aplikazioari guztiz laguntzea, eta garapenerako bazkideei Esparruaren Fondo Fiduziarioerako ekarpenak asko handitzeko eskatzea, Dohako Ministro Deklarazioaren arabera.
91. Dohako Deklarazioa eta Dohan hartutako erabaki egokiak aintzat hartuta, MMEren hitzarmen eta erabaki batzuen aplikazioarekin lotuta garapen-bidean dauden herrialdeek adierazitako kontuei eta kezkei egiteko neurri zehatzak hartzea erabaki dugu, hitzarmen horiek betetzeko topatuko dituzten zailtasunak eta baliabide-murrizketak barne.
92. MMEko kideei Dohako Ministro Deklarazioan hartutako konpromisoak betetzeko eskatzea, batez ere merkatuetara sartzeari dagokionez, bereziki garapen-bidean dauden herrialdeen (batik bat atzeratuenen) esportazioei interesatzen zaizkien produktuen, honako neurriak aplikatuz, Dohako Ministro Deklarazioko 45. paragrafoaren arabera:
- a) Tratu berezi eta bereizgarri buruzko xedapen guztiak aztertzea, haiek sendotzeko eta zehatzago eta eraginkorrago egiteko, Dohako Ministro Deklarazioko 44. paragrafoaren arabera.
- b) Nekazaritza ez diren produktuen gaineko muga-zergak murriztea edo –hala dagokionean– ezabatzea, baita gehienezko muga-zergak, igotako muga-zergak eta muga-zergen pixkanakako igoera eta muga-zergarenak ez diren oztopoak ere, batez ere garapen-bidean dauden herrialdeen esportazioei interesatzen zaizkien produktuenak. Produktuei sarbide zabala eman behar zaie, aurretiko inongo bazterketarik gabe. Oso kontuan eduki behar dira negoziazioetan garapen-bidean dauden herrialdeen eta atzeratuenen premia eta interes bereziak, baita murrizketa-konpromisoetan guztizkoa ez den elkarrekotasuna sartuz ere, Dohako Ministro Deklarazioaren arabera.
- c) Negoziazioen emaitza aurretik juzgatu gabe, negoziazio zabalak –Dohako Ministro Konferentzian<sup>48</sup> aipatzen den Nekazaritza buruzko Hitzarmeneko 20. artikulua kontuan hartuta hasi ziren– egiteko konpromisoa betetzea, merkatuetarako sarbidean hobekuntza handiak lortzeko, esportaziorako dirulaguntza-mota guztiak murrizteko –hala pixkanaka eta guztiz ezabatzeko– helburuarekin, baita merkataritza desitxuratzen duten barne-neurrietan murrizketa handiak egitekoarekin ere. Horrez gain, adostu behar dute garapen-bidean dauden herrialdeentzako tratu berezia eta berezia aurreikusten duten xedapenak negoziazioetako elementu guztien parte izan behar dutela eta emakida- eta konpromiso-zerrendetan sartuko direla, eta dagokionean negoziazio-helburu izango diren arauetan eta gaitetan, eraginkorrak izan daitezen eta garapen-bidean dauden herrialdeei beren garapen-beharrak, elikagai-segurtasuna eta landa-garapena barne, eraginkortasunez kontuan izateko aukera eman diezaieten. Merkataritzarekin loturarik gabeko gaiak –Munduko Merkataritza Erakundearen kideek aurkeztutako negoziazio-proposamenetan adierazten direnak– aintzat hartzea eta berrestea merkataritzarekin loturarik gabeko gaiak kontuan hartuko direla Nekazaritza buruzko Hitzarme-

<sup>48</sup> A/C.2/56/2 eranskina, 13 eta 14 paragrafoak.

nean aurreikusten diren negoziazioetan, Dohako Ministro Deklarazioaren arabera.


93. Deialdi bat egitea oraindik saiatu ez diren herrialde garatuei herrialde atzeratuaren esportazioentzat eskubide eta kuotarik gabeko aukera librearen helburua lortzen saia daitezten, 2001-2010 hamarkadarako horren aurreratuta ez dauden herrialdeen aldeko Ekintza Programan aurreikusitakoaren arabera.
94. Munduko Merkataritza Erakundearen lan-programa aktiboki gauzatzera konprometitzea, ekonomia txiki eta ahulei alde anitzetako merkataritza-sisteman guztiz integrazioak eragiten diren merkataritzarekin lotutako kontu eta kezkek kontuan hartzeko, beren egoera bereziki modu bateragarrian, garapen jasangarria lortzeko egiten dituzten ahaleginetan lagunduz, Dohako Deklarazioko 35. paragrafoaren arabera.



95. Oinarrizko produktuen mende dauden herrialdeek esportazioak dibertsifikatzeko duten gaitasuna handitzea, teknika-eta finantza-laguntzaren bidez besteak beste, dibertsifikazio ekonomikorako nazioarteko laguntzaren bitartez eta balia-bideen kudeaketa jasangarriaren bidez, eta oinarrizko produktuen prezioen ezegonkortasunari eta truke-harremanen hondatzeari ekitea eta, horrez gain, Oinarrizko Produktuetarako Funtz Bateratuko bigarren kontuan garapen jasangarria laguntzeko adierazitako jarduerak sendotzea.
96. Merkataritza liberatzeak garapen-bidean dauden eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeetan dituen onurak handitzea, batez ere elkarte publikoen eta pribatuen bitartez eta besteak beste garapen-bidean dauden herrialdeei finantza-laguntza emateko neurrien bidez laguntza teknikorako, teknologien garapenerako eta gaitasuna sortzeko. Hori guztia, honako helburu hauekin:
- Merkataritza-azpiegitura hobetzea eta erakundeak sendotzea.
  - Garapen-bidean dauden herrialdeek esportazioak dibertsifikatzeko eta handitzeko duten gaitasuna handitzea oinarrizko produktuen prezioen ezegonkortasunari eta truke-harremanak txartzeari aurre egiteko.

c) Garapen-bidean dauden herrialdeen esportazioen balio erantsia handitzea.

97. Merkataritzaren, ingurumenaren eta garapenaren arteko laguntza handitzen jarraitzea, garapen jasangarria lortzeko helburuarekin, honako neurriak hartuz maila guztietan:
- MMEko Merkataritza eta Ingurumenaren Batzordea eta MMEko Merkataritza eta Garapenaren Batzordea bultzatzea garapenarekin eta ingurumenarekin lotutako negoziazioetako alderdiak zehazteko eta eztabaidatzeko foro moduan jardun dezaten bakoitzari dagokion eremuan, garapen jasangarriari mesedegarri izango zaion emaitza lortzen laguntzeko, Dohako Ministro Konferentziaren arabera hartutako konpromisoen arabera.
  - Dohako Ministro Konferentziako diru-laguntzei buruzko lan-programa bukatzen laguntzea garapen jasangarria sustatzeko eta ingurumena hobetzeko, eta ingurumenean eragin kaltegarri nabariak dituzten eta garapen jasangarriarekin bateraezinak diren diru-laguntzen aldaketa bultzatzea.
  - Merkataritza, ingurumena eta garapenari buruzko lankidetzak sustatzeko ahaleginak bultzatzea, baita garapen-bidean dauden herrialdeei ematen zaizkien teknika-laguntzetan ere, MME, UNCTAD, PNUD, PNUMA eta ingurumenaren eta garapenaren inguruko nazioarteko eta eskualdeko gainerako erakundeetan.
  - Ingurumen-eraginaren ebaluazioak borondatezko erabilera bultzatzea, merkataritzaren, ingurumenaren eta garapenaren arteko loturak zehazteko herrialdeko tresna garrantzitsu gisa. Alor horretan esperientzia duten herrialdeak eta nazioarteko erakundeak bultzatzea garapen-bidean dauden herrialdeei helburu horietarako laguntza teknikoa ematen jarraitzeko.
98. Alde anitzetako merkataritza-sistemaren eta ingurumenari buruzko alde anitzetako hitzarmenen artean elkarren laguntza sustatzea, garapen jasangarriaren helburuen arabera eta MMEren bidez adostutako lan-programari lagunduz, baliabide-talde bien osotasuna mantentzea garrantzitsua dela onartuz.
99. Dohako Ministro Deklarazioa eta Monterreyko Adostasuna osatzea eta bultzatzea herrialdean, eskualdean eta nazioartean, neurri berriak hartuz, baita erakunde publiko eta pribatuen bat-egiteen bitartez ere, merkataritza liberalizatzeak dituen onurak handitzeko, batez ere garapen-bidean dauden eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeentzat, besteak beste honako neurriok hartuz maila guztietan:
- Lehendik dauden lankidetzak-hitzarmenak eta -neurriak ezartzea eta sendotzea, alde anitzetako merkataritza-sistemaren arabekoak, garapen jasangarria lortzeko helburuarekin.
  - Merkatuaren oinarritutako eta MMErekin bateragarriak diren borondatezko ekimenen alde egitea ingurumeneko kaltegarriak ez diren salgai eta zerbitzuen -onura ekologikoak eta garapenekoak maximizatzen dituzten produktu organikoak barne- barruko eta nazioarteko merkatuak sortzeko eta zabaltzeko, besteak beste garapen-bidean dauden herrialdeei laguntza teknikoa emanez eta haien gaitasuna sustatuz.
  - Merkataritzari eragiten dioten barne-arau eta -prozedurak sinplifikatzeko eta haien gardentasun gehiago emateko neurrien alde egitea, esportatzaileei laguntzeko helburuarekin, batez ere garapen-bidean dauden herrialdeetakoiei.



100. Garapen-bidean dauden herrialde askori eta herrialde atzeratuenei eragiten dieten osasun publikoko arazoei heltzea, batez ere GIB/HIESA, tuberkulosia, paludismoa eta bestelako gaixotasun epidemikoei sortutako; horrez gain, aintzat hartzea Merkataritzarekin lotutako Jabetza Intelektualaren Eskubideen inguruko Hitzarmenari buruzko Dohako Deklarazioa (TRIPS agreement) eta osasun publikoa<sup>49</sup>, han adostu baitzen Hitzarmen horrek ez duela eragozten edo ez duela eragotzi behar MMEko kideek osasun publikoa babesteko neurriak hartzea. Ondorioz, Merkataritzarekin lotutako Jabetza Intelektualaren Eskubideen inguruko Hitzarmenarekiko atxikimendua berresten dugu, baita beste honako hau ere: Hitzarmena MMEko kideek osasun publikoa babesteko eta, batez ere, pertsona orok sendagaiak eskuratzeko aukera izan dezan sustatzeko eskubidearen aldeko hitzarmen gisa interpreta eta aplikatu daitezkeela eta beharko litzatekeela.
101. Estatuak elkarlanean jardun behar dute nazioarteko sistema ekonomiko irekia sustatzeko. Sistema horrek hazkunde ekonomikoa eta garapen jasangarria bultzatu behar ditu herrialde guztietan; halaber, ingurumen-nariaduraren arazoei ahalik eta hobekien ekin behar die. Ingurumenarekin lotutako helburuak dituzten merkataritza-politikako neurriak ez dute diskriminazio arbitrario edo ezin justifikatuzkorik adierazi behar, ezta nazioarteko merkataritzaren ezkutuko murrizketarik ere. Alde bateko neurriak saihestu egin behar dira ingurumen-arazoei herrialde inportatzailearen jurisdikziotik kanpo aurre egiteko. Mugaz haraindiko edo munduko arazo ekologikoen inguruko ingurumen-neurriak nazioarteko adostasuna izan behar dute oinarri ahal den neurrian.
102. Neurriak hartzea alde bateko neurriak saihesteko, baldin eta neurri horiek nazioarteko zuzenbidearekin eta Nazio Batuen Gutunarekin ez badatoz bat eta haiek eragindako biztanleei garapen ekonomikoa eta soziala guztiz lortzea eragozten badie –batez ere emakumeei eta haurrei–, haien ongizatearen aurka jotzen badute eta haien giza eskubide guztiak erabiltzeko eragozpenak sortzen badituzte –osasunerako eta ongizaterako guztiek bizi-maila egokia izateko, laguntza medikorako eta beharrezko gizarte-zerbitzuetarako eskubidea barne–, eta neurri horiei uko egitea. Elikagaiak eta sendagaiak presio politikoa egiteko baliabide gisa erabil ez daitezzen bermatzea.
103. Neurri eraginkorrak hartzea herrien determinazio libre-rako oztopoak deuseztatzeko, batez ere kolonia gisara eta atzerritarren okupaziopean bizi diren herriena, haien garapen ekonomikoan eta sozialean kalteak egiten jarraitzen duten oztopoak eta gizakien duintasunarekin eta balioarekin bateraezinak direnak eta eragotzi eta deuseztatu behar direnak. Atzerritarren okupaziopean dauden populazioak babestu egin behar dira, nazioarteko giza zuzenbidearen xedapenen arabera.
104. Nazio Batuen Gutunaren arabera estatuen arteko adiskidantza-harremanen eta lankidetzaren inguruko nazioarteko zuzenbideko printzipioei buruzko Deklarazioaren arabera<sup>50</sup>, ez da interpretatu behar horrek estatu

subirano eta independenteen lurralde-osotasuna edo batasun politikoa –guztiz edo partzialki– zatitu edo kalte-zeko ekintzarik baimentzen edo bultzatzen duenik, eskubide-berdintasun eta determinazio librearen printzipioa kontuan hartuta jarduten duten eta inongo bereizketarik gabe lurraldeko biztanle guztiak ordezkatzeko dituen gobernua duten estatuak betiere.



105. Sustatzea, erraztea eta finantzatzea, dagokien erara, ekologiaren aldetik arrazoizkoak diren teknologietarako eta dagokien jakintza espezializatuetarako aukera, baita haien garapena, transferentzia eta hedapenerako aukera ere, batez ere garapen-bidean dauden herrialdeei eta trantsizio-ekonomia dutenei, baldintza egokietan, baita mesede eta lehentasuneko baldintzetan ere, elkarrekin adostutako akordioen arabera, Agenda 21eko 34. kapituluak dioen bezala, baita helburu hauetarako presazko neurriak hartuz ere maila guztietan:
- a) Informazioa modu eraginkorrean ematea.
  - b) Garapen-bidean dauden herrialdeetan erakundeen gaitasuna sustatzea, aukera hobea izan dezaten garapenerako, transferentziarako, ekologiaren aldetik arrazoizkoak diren teknologien eta haiei dagokien jakintza espezializatuen hedapenerako.
  - c) Herrialdeek beraiek sustatutako teknologia-beharren ebaluazioak erraztea.
  - d) Lege- eta araudi-esparruak ezartzea herrialde hornitzaile eta hartzaileetan, sektore publikoak eta pribatuak ekologiaren aldetik arrazoizkoak den teknologiararen transferentzia modu eraginkorrean egitea bizkortzen eta haiek gauzatzen laguntzen dutenak.
  - e) Alerta-sistema goiztiarrekin eta arintze-programekin lotutako teknologiarako aukera eta haren transferentzia sustatzea hondamendi naturalek eragindako garapen-bidean dauden herrialdeetan.
106. Teknologien transferentzia hobetzea garapen-bidean dauden herrialdeei, batez ere alde biko harremanetan eta eskualdekoetan, baita honako presazko neurriak hartuz ere:
- a) Elkarrenergina, lankidetzaren, harremanak eta interesdunen sareak hobetzea unibertsitateen, ikerketa-zentroen, gobernu-erakundeen eta sektore pribatuaren artean.
  - b) Erakundeak laguntzeko egitura-sareak garatzea eta sendotzea: teknologia- eta produktibitate-zentroak, ikerketa-, gaitze- eta garapen-institutuak eta herrialdeko eta eskualdeko ekoizpen ez hain kutsagarriko zentroak, adibidez.
  - c) Inbertsiora eta teknologiararen transferentziara, garapenera eta hedapenera bideratutako aliantzak sortzea garapen-bidean dauden eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeei laguntzeko jardura egokien trukean eta laguntza-programen sustapenean, eta enpresen eta ikerketa-zentroen arteko lankidetzaren bultzatzea, nekazaritza- eta industria-produktibitatea, ingurumenaren kudeaketa eta lehiakortasuna indartzeko helburuarekin.

<sup>49</sup> Ibid., 17 eta 19 bitarteko paragrafoak.

<sup>50</sup> Batzar Orokorraren 2625 (XXV) ebazpena, eranskina.

- d) Garapen-bidean dauden eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeei laguntzea ekologiararen aldetik arrazoizkoa den jabetza publikoko teknologiarako aukera izan dezaten, baita zientzia eta teknologiari buruz sektore publikoan dauden jakintzetarako ere, eta jakintza espezializatuetarako eta beharrezko lehietarako aukera izan dezaten jakintza horiek independentziaz erabili ahal izateko eta horrela beren garapen-helburuak lortzeko.
- e) Lehendik dauden mekanismoen alde egitea eta, dagokion erara, mekanismo berriak ezartzea ekologiararen aldetik arrazoizkoak diren teknologien garapenerako, transferentziarako eta hedapenerako garapen-bidean dauden eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeei.




107. Garapen-bidean dauden herrialdeei laguntzea gaitasuna sustatzen alde anitzetako eta munduko ikerketa- eta garapen-programa gehiagorako aukera izan dezaten. Garapen jasangarriarako zentroak sendotzea, eta, dagokion erara, sortzea, garapen-bidean dauden herrialdeetan.
108. Garapen jasangarriarako gaitasun zientifikoa eta teknologikoa sustatzea, ekimenak eginez hobetzeko, alde batek, ikerketa eta garapenari buruzko lankidetzak eta aliantzak, eta, bestetik, haien orokortzea ikerketa-zentroen, unibertsitateen, sektore pribatuaren, gobernuen, gobernu kanpoko erakundeen eta sareen artean, baita herrialde garatuetako eta garapen-bidean dauden herrialdeetako zientzialarien eta akademikoaren artean ere eta, ildo horretatik, zientzia-bikaintasuneko zentroekin harremanak bultzatzea garapen-bidean dauden herrialdeetan eta zentro horien artean.
109. Politikak hobeto egitea eta erabakiak hobeto hartzea maila guztietan, natur zientzietako eta gizarte-zientzietako zientzialarien lankidetzak estutuz, besteak beste, baita zientzialarien eta arduradun politikoen arteko ere, maila guztietan helburu hauetarako presazko neurriak hartuz hala behar izanez gero:
- a) Teknologiararen erabilera eta jakintza zientifikoa handitzea eta tokiko jakintza eta jakintza autoktonoen erabilera onuragarria handitzea, jakintza hori dutenak errespetatuz eta legedi nazionalaren arabera.
- b) Ahalik eta gehien jotzea ebaluazio zientifiko integratuetara, arriskuen ebaluazioetara eta diziplina arteko eta sektore arteko ikuspuntuetara.
- c) Erabakiak hartzea bultzatzen duten nazioarteko ebaluazio zientifikoetan laguntzea eta haiekin lankidetzan jarraitzea –Klimaren Aldaketari buruzko Adituen Gobernuen arteko Taldea barne–, garapen-bidean dauden herrialdeetako adituen parte-hartze balarekin.
- d) Garapen-bidean dauden herrialdeei politika zientifikoak eta teknologikoak egiten eta aplikatzen laguntzea.
- e) Erakunde zientifikoaren, publikoaren eta pribatuaren artean aliantzak sortzea zientziaren, garapen teknologikoaren eta sektore teknikoaren eginkizuna sendotzeko.
- f) Oinarri zientifikoko erabakiak hartzea eta haiek hartzea sustatzea eta hobetzea, eta Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko Deklarazioko 15. printzi-

pioan ezarritako arreta-irizpidea berrestea. Honela dio printzipio horrek:

*"Ingurumena babesteko helburuarekin, estatuak arreta-irizpidea zabaltasunaz aplikatu beharko du, beren gaitasumen arabera. Kalte larria edo konpondu ezinezkoa egiteko arriskua dagoenean, ziurtasun zientifiko osoa ez edukitzea ez da erabili behar ingurumen-narriadura eragozteko kostu eraginkorreko neurriak hartzea atzeratzeko arrazoi gisa."*

110. Garapen-bidean dauden herrialdeei laguntzea, nazioarteko lankidetzaz baliatuz, ingurumenaren babesaren inguruko gaiak hartzeko gaitasuna sendotzen eta ingurumena antolatzeke eta babesteko politikak egiten eta aplikatzen, baita horretarako maila guztietan presazko neurriak hartuz ere, hala behar izanez gero:
- a) Zientziaren eta teknologiararen erabilera hobetzea ingurumenaren gainbegiratzeari, ebaluazio-ereduei, datu zehatzen oinarriari eta informazio-sistema integratuei dagokienez.
- b) Sateliteen erabilera sustatzea eta, dagokion erara, hobetzea, datu fidagarriak biltzeko, egiaztatzeke eta eguneratzeko, eta airetik eta lehorretik egindako behaketak perfektionatzea, kalitatezko datuak, zehatzak, epe luzerakoak, koherenteak eta fidagarriak lortzeko ahaleginetan laguntzeko.
- c) Hezkuntza zientifikoari eta ikerketa- eta garapen-jarduerari buruzko datu fidagarriak emateko gai diren estatistika-zerbitzu nazionalak ezartzea eta, dagokion erara, finkatzea, politika zientifiko eta teknologiko eraginkorrak egiteko beharrezkoak baitira.
111. Politikak egiteko arduradunen eta komunitate zientifikoaren artean komunikabide erregularrak ezartzea aholkularitza zientifikoa eta teknologikoa eskatzeko eta jasotzeko Agenda 21 gauzatu ahal izateko, eta maila guztietan garapen jasangarriarako zientzia- eta hezkuntza-sareak sortzea edo sendotzea, jakintzak, esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko eta gaitasun zientifikoa sustatzeko helburuarekin, batez ere garapen-bidean dauden herrialdeetan.
112. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea, hala dagokionean, komunikazioaren maiztasuna eta esperientzien eta jakintzen trukea handitzeke baliabide modura, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiararen kalitatea eta hura eskuratzeko aukera hobetzea herrialde guztietan, oinarri hartuta Nazio Batuen Atazen taldeak informazioaren eta komunikazioaren teknologiarari buruz egindako lana eta bestelako nazioarteko eta eskualdeko foro egokien lanak.
113. Funtz publikoek finantzatutako ikerketa- eta garapen-erakundeek laguntzea, besteak beste iturri guztietako finantza- eta teknika-baliabideak –baita baliabide berriak eta osagarriak ere– erabiliz ekoizpen-teknologiaren eta horren kutsagarriak ez diren produktuen ikerketa eta garapena bultzatzen duten aliantza estrategikoak finkatzen, eta teknologia horien transferentzia eta hedapena sustatzea, batez ere garapen-bidean dauden herrialdeetan.
114. Munduan interes publikokoak diren gaiak aztertzea mintegi ireki, garden eta integratzaileen bidez, jendeak gai horiek hobeto uler ditzan.



115. Horretaz gain, nazioarteko terrorismoaren aurka adostutako neurriak hartzea erabaki dugu, garapen jasangarri-rako oztopo larriak sortzen baititu hark.



116. Irakaskuntzak garrantzi izugarria du garapen jasangarria sustatzeko. Beraz, ezinbestekoa da beharrezko baliabideak erabiltzea, maila guztietako finantza-baliabideak, alde biko eta alde anitzetako emaleek –besteak beste, Munduko Bankua eta garapenerako eskualdeetako bankuak–, gizarte zibilak eta fundazioek, herrialdeetako gobernuak ondoko helburuak eta neurriak lortzeko ahaleginetan laguntzeko:

- a) Milurtekoko garapen-helburua –lehen hezkuntzaren unibertsaltasun– lortzea, 2015. urterako mundu osoko haurrek lehen hezkuntzako ziklo oso bat amaitzeko aukera izan dezaten.
- b) Haur guztiei –batez ere landa-eremuetan eta pobrezian bizi direnei, neskatuei bereziki– lehen hezkuntzako ziklo osoa amaitzeko aukera ematea.

117. Finantza-laguntza eta bestelakoa ematea irakaskuntzari, ikerketari, herritarrek sentsibilizatzeko programei eta garapenerako erakundeak garapen-bidean dauden eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeei, honako helburuak betetzeko:

- a) Haien azpiegiturak eta hezkuntza-programak babestea, batez ere ingurumenari eta osasun publikoari buruzkoak.
- b) Goi-irakaskuntzako erakunde ugariak –mundu osoko unibertsitateek barne– sarritan izaten dituzten muga finantzario larriak saihesteko modua aztertzea, batez ere garapen-bidean dauden eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeetan.

118. GIB/HIESAaren eraginei aurre egitea pandemiak larrien eragindako herrialdeetako hezkuntza-sisteman.

119. Baliabide nazionalak eta nazioartekoak esleitzea oinarritzko irakaskuntzari –Guztionezko Hezkuntzari buruzko Dakarko Ekintza Esparruan proposatutakoaren arabera– eta hezkuntzan eta alde biko eta alde anitzetako garapen-programetan garapen jasangarria hobeto integratzeko, eta integrazioa hobetzea sektore publikoak finantzatzeko ikerketa- eta garapen-jardueren eta garapen-programen artean.

120. Generoen arteko aldea errotik kentzea lehen eta bigarren hezkuntzan 2005. urterako –Guztionezko Hezkuntzari buruzko Dakarko Ekintza Esparruan aurreikusten den bezala– irakaskuntzako maila guztietan, beranduenez 2015. urterako, besteak beste honakoa bermatzeko neurriak hartuz: irakaskuntzako maila eta forma guztietarako aukera-berdintasuna, trebakuntza eta gaitasunaren sustapena genero-ikuspuntua sartuz eta genero-arazoak aintzat hartuko dituen hezkuntza-sistema sortuz.

121. Garapen jasangarria hezkuntza-sistemetan sartzeko maila guztietan, hezkuntzak aldaketarako eragile giltzarri gisa duen zeregina sustatzeko asmoz.

122. Guztienezko Hezkuntzari buruzko Dakarko Ekintza Esparruari eta tokiko baldintza eta beharrei egokitzen zaizkien ekintza-planak eta hezkuntza-programak egitea,

aplikatzea, gainbegiratzea eta aztertzea herrialde, azpiherrialde eta toki mailan komunitatearen garapena lortzeko, eta plan horietan garapen jasangarriaren aldeko hezkuntza sartzeko.

123. Komunitateko kide guztiei irakaskuntza iraunkor akademikoaren edo ez-akademikoaren inguruan aukera zabalak eskaintzea –batez ere borondatezko programak komunitatearentzat, analfabetismoa deuseztatzeko eta ikaskuntza iraunkorraren garrantzia azpimarratzeko– eta garapen jasangarria sustatzea.

124. Hezkuntza garapen jasangarria sustatzeko erabiltzen laguntzea, besteak beste honako presazko neurriak hartuz:

- a) Informazioaren eta komunikazioen teknologia sartzeko –ikasketa-planak egitean– hiri- eta landa-komunitateetan haien erabilgarritasuna bermatzeko, eta laguntza ematea, batik bat garapen-bidean dauden herrialdeetan, besteak beste teknologia horrek eskatzen dituen baldintza egokiak sortzeko.
- b) Sustatzea, dagokion erara, garapen-bidean dauden herrialdeetako ikasle, ikertzaile eta ingeniarietako programetarako aukera handiagoa –baldintza egokietan– herrialde garatueta unibertsitateetan eta ikerketa-zentroetan, alde guztietako onuragarria izango den esperientzia- eta gaitasun-trukea bultzatzeko.
- c) Garapen Jasangarriari buruzko Batzordearen garapen jasangarriko hezkuntzari buruzko lan-programa gauzatzen jarraitzea.
- d) Nazio Batuen Batzar Nagusiari gomendatzea garapen jasangarriko hezkuntzaren hamarkada 2005. urtea ondoren izendatzeko aukera aintzat har dezan.



125. Giza gaitasuna, erakundeena eta azpiegitura sortzeko ekimenak sendotzea eta bizkortzea eta, horri dagokionez, erakundeak sustatzea garapen-bidean dauden herrialdeek garapen jasangarriaren aurrean dituzten beharrei erantzuteko.

126. Honako helburuetara bideratutako tokiko, herrialdeko, azpieskualdeko eta eskualdeko ekimenetan laguntzea: jakintzak eta teknikak garatzea, erabiltzea eta egokitzea, eta hezkuntza-, ikerketa- eta gaitze-bikaintasuneko zentroak finkatzea toki, herrialde eta eskualde mailan, garapen-bidean dauden eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeetan jakintzak eskuratzeko gaitasuna sendotzeko, besteak beste jatorri orotako finantza-baliabide eta bestelako baliabide nahikoak erabiliz, baita baliabide berriak eta osagarriak ere.

127. Laguntza tekniko eta finantzarioa ematea garapen-bidean dauden herrialdeetan eta, batez ere, gaitasuna sustatzeko neurriak sendotzea –adibidez, Garapenerako Nazio Batuen Programako Gaitasuna 21 programa– honako helburuetarako:

- a) Gaitasuna sustatzeko beharrak eta aukerak ebaluatzea maila pertsonalean, instituzionalean eta sozialean.
- b) Gaitasuna sustatzeko programak diseinatzea, eta globalizazioaren erronkei erantzun eraginkorrago emanen eta nazioartean adostutako garapen-helburuak –batez ere Milurtekoko Deklaraziokoak– lortzeko tokiko, herrialdeko eta komunitateko programetan laguntzea.

- c) Gizarte zibilaren gaitasuna garatzea –batez ere gazte-ena– maila guztietan parte har dezan, dagokion erara, garapen jasangarrirako politikak eta estrategiak egiten, aplikatzen eta aztertzen.
- d) Agenda 21 eraginkortasunez gauzatzeko mekanismo nazionalak sortzea eta, dagokion erara, indartzea.



- 128. Ingurumenari buruzko informaziorako eta ingurumenaren inguruko ekintza judizial eta administratiboetarako aukera bermatzea herrialde mailan, baita jendearen parte-hartzea ere Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko Deklarazioko 10. printzipioaren aplikazioa sustatzeko moduz, oso kontuan izanik Deklarazio horretako 5, 7 eta 11. printzipioak.
- 129. Garapen jasangarriari buruzko politika eta programetarako interesgarria den herrialdeko eta eskualdeko informazioa eta zerbitzu estatistikoak eta analitikoak hobe-tzea –batez ere, sexu, adin eta bestelako faktoreen arabera zehaztutako datuak– eta emaileak garapen-bidean dauden herrialdeei teknika- eta finantza-laguntza ematera bultzatzea, haiek garapen jasangarrirako politikak egiteko eta programak gauzatzeko duten gaitasuna handitzeko.
- 130. Garapen jasangarriaren adierazleei buruz herrialdeek herrialde mailan hasitako lana handitzea, genero-arazoen borondatezko integrazioa ere barne, herrialdeko baldintza eta lehentasunen arabera.
- 131. Adierazleei buruz hasitako lanaren jarraipena sustatzea, Garapen Jasangarriari buruzko Batzordearen 9/4 erabakiaren 3. paragrafoaren arabera<sup>51</sup>.
- 132. Lurra behatzeko teknologien garapena eta erabilera zabalagoa sustatzea –sateliteetatik egiten den telebehaketa, munduko mapa egitea eta informazio geografikorako sistemak barne– ingurumeneko ondorioei, lurzoruaren erabilerari eta erabilera horretako aldaketei buruzko kalitatezko datuak biltzeko. Horretarako, honako premiazko neurriok hartu beharko dira, besteak beste:
  - a) Munduko behaketa-sistemen eta ikerketa-programen arteko lankidetzak eta koordinazioa sustatzea munduko behaketa integratzeko helburuarekin, kontuan izanda gaitasuna handitzeko beharra eta Lurra behatzetik, sateliteetatik egiten den telebehaketatik eta bestelako iturrietatik eskuratutako datuak herrialde guztien artean trukatzeko beharra.
  - b) Datu baliagarrien trukea –batez ere Lurraren behaketako datuen truke aktiboa– ahalbidetzeko informazio-sistemak garatzea.
  - c) Munduko mapak egiteko ekimenak eta elkarteak bultzatzea.
- 133. Herrialdeei –batik bat garapen-bidean daudenei– honako ahaleginetan laguntzea:
  - a) Datu zehatzak, epe luzerakoak, koherenteak eta fidagarriak lortzen.
  - b) Sateliteak eta telebehaketarako teknologia erabiltzen, datuak biltzeko eta Lurraren behaketak hobetzeko.

- c) Informazio geografikoa izaten, aztertzen eta erabiltzen hainbat baliabide erabiliz: sateliteetatik egindako telebehaketetarako sistemak, satelite bidezko kokatze-sistemak, mapak egitea eta informazio geografikorako sistemak.

- 134. Hondamendi naturalen eraginak aurreikusteko eta arintzeko lanari laguntza ematen, honako honetarako neurriak hartuz maila guztietan, besteak beste:
  - a) Hondamendiei buruzko informazioa erraztasunez eskuratzeko aukera ematea, alerta goiztiarra xede dela.
  - b) Eskura ditugun datuak –bereziki behaketa meteorologikorako nazioarteko sistemetatik eskuratutako– produktu egoki eta erabilgarri bihurtzea.
- 135. Ingurugiro-inpaktuaren ebaluazioak garatzen jarraitzea eta haren aplikazio zabalena sustatzea –, dagokion erara, ingurumenaren eragin kaltegarri garrantzitsuak izan ditzaketen proiektuei buruzko erabakiak hartzen laguntzeko ezinbesteko informazioa emateko herrialdeko tresna gisa, besteak beste–.
- 136. Garapen jasangarriari buruzko erabakiak hartzeko araudi-, estrategia- eta proiektu-metodologiak sustatzea eta garatzen jarraitzea herri- eta herrialde mailan eta, hala dagokionean, eskualde mailan ere. Horretaz ari garela, nabarmendu behar da herrialdeetan aplikatzeko aukeraturako metodologia egokiak bat etorri behar duela herrialde bakoitzaren baldintza eta egoerekin, borondatezkoa izan behar duela eta garapenerako lehentasuneko beharretara egokitua izan behar duela.

## XI. Garapen jasangarrirako erakunde-esparrua

- 137. Agenda 21 erabat gauzatzeko, Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Goi-bilerako ondorioen jarraipena egiteko eta garapen jasangarriari lotutako arazoak konpontzeko, funtsezkoa da maila guztietako garapen jasangarrirako esparru instituzional eraginkorra izatea. Esparru hori indartzeko neurriek haiek hartu behar dituzte oinarri: Agenda 21en xedapenak, gero 1997ko Agenda 21 gauzatzeko Plana eta Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko Deklarazioaren printzipioak. Gainera, nazioartean hitzartutako garapen-helburuak lortzea bultzatu behar lukete, Milurtekoko Deklarazioak barne, honako hauek aintzat hartuz: Monterreyko Ituna eta Nazio Batuen beste konferentzia garrantzitsu batzuen ondorio egokiak eta 1992tik hitzartutako nazioarteko akordioak. Esparruak herrialde guztien beharrik ase behar ditu, garatze-bidean diren herrialdeen behar espezifikoak aintzat hartuta, gauzatzeko bitartekoak barne. Garapen jasangarriaren inguruan diharduten nazioarteko organoak eta erakundeak indartzea bultzatu behar du, horien egungo aginduak errespetatuz, baita eskualde, nazio eta herri mailako erakunde egokiak indartzea ere.
- 138. Garapen jasangarrirako funtsezkoa da kudeaketa ona. Ekonomia-politika zehatzak, instituzio demokratiko sendoak eta herritarren beharrei adi daudenak eta ho-

<sup>51</sup> Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren Dokumentu Ofizialak, 2001, 9 zk.ko gehigarria (E/2001/29), I.B. kap.



betutako azpiegiturak dira hazkunde ekonomiko jasangarriko, pobrezia deuseztatzeko eta enplegua sortzeko oinarria. Batak bestea indartzen duten elementu hauek ere garrantzitsuak dira: askatasuna, bakea eta segurtasuna, barne-egonkortasuna, giza eskubideak errespetatzea –garatzeko eskubidea barne– eta zuzenbideko estatua, generoen arteko berdintasuna, merkatu-politikak eta gizarte justu eta demokratikoei eusteko ardura orokorra.

## A. Helburuak

139. Neurriak hartu behar lirateke Agenda 21en<sup>52</sup> esparruan maila guztietako garapen jasangarriko xedapen instituzionalak indartzeko eta, Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzian lortutako aurrerapenak oinarri hartuta, aurrera jarraitzeko. Neurri horiek helburu hauek lortzea –besteak beste– behar luke xedetzat:
- Garapen jasangarria lortzeko konpromisoa indartzea;
  - Garapen jasangarriaren alderdi ekonomikoak, sozialak eta ingurumenari buruzkoak era orekatuan integratzea;
  - Agenda 21en egikaritzea indartzea, baliabide finantzario eta teknologikoak eta gaitasuna sustatzeko programak erabiliz, besteak beste, garapen-bidean diren herrialdeentzat bereziki;
  - Koherentzia, koordinazioa eta gainbegiratzea indartzea;
  - Zuzenbideko estatua bultzatzea eta gobernu-erakundeak indartzea;
  - Errendimendua eta eraginkortasuna handitzea, Nazio Batuen sistemako eta sistematik kanpoko nazioarteko erakundeen jarduerak elkarri gainjartzea eta bikoiztea gutxituz, haien agintaldiak eta konparaziozko abantailak oinarri hartuta;
  - Agenda 21 egikaritzean, gizarte zibilaren eta beste partaide batzuen parte-hartze eraginkorra sustatzea eta gardentasuna zein herritarren parte-hartzea bultzatzea;

- Garapen jasangarriko gaitasuna indartzea maila guztietan, baita herri mailan ere, batez ere garapen-bidean diren herrialdeetan;
- Agenda 21en egikaritzea indartzeko eta Goi-bileraren ondorioak aplikatzeko nazioarteko lankidetzaren sendotzea.

## B. Erakunde-esparrua sendotzea nazioarteko garapen jasangarria lortzeko

140. Nazioarteak honako hau egin behar luke:
- Agenda 21en aipatutako garapen jasangarriko helburuen integrazioa hobetzea eta Agenda 21 eta Goi-bilerako ondorioak egikaritzea honako hauetan: laneko politika eta programetan eta Nazio Batuen erakunde, programa eta funts aginpidedunen jardueraildoetan, Munduko Ingurumenerako Funtsean eta nazioarteko finantza- eta merkataritza-erakundeetan (dagokien aginduen arloan). Horretarako, garapen jasangarria lortzearen, ziurtatu egin behar da beren jardueretan kontuan hartzen dituztela nazio mailako programak eta lehentasunak, batik bat garapen-bidean diren herrialdeetakoak, eta, hala dagokionean, trantsizioko ekonomia dutenetakoak;
  - Lankidetzaren indartzea Nazio Batuen sisteman, baita haren eta honako hauen artean ere: nazioarteko finantza-erakundeak, Munduko Ingurumenerako Funtsa eta Munduko Merkataritza Erakundea. Horretarako, honako hauengana jo behar da: Nazio Batuen Sistemako Nagusi Exekutiboaren Koordinazio Batzordera, Garapenerako Nazio Batuen Taldera, Antolamendu eta Ingurumen Taldera eta erakunde arteko koordinazioan diharduten beste organo batzuetara. Erakunde arteko lankidetzaren indartzea saiatu behar da testuinguru egoki guztietan, eragite-mailan arreta berezia jarri eta gai jakin batzuetan elkartzeko erabakiak hartuz, batez ere garapen-bidean diren herrialdeei laguntzeko Agenda 21 egikaritzeko jardueretan;
  - Garapen jasangarriko politika eta programen hiru dimentsioak indartu eta hobeto integratzea eta, batik bat, gizarte-gaiez arduratzen diren organoen progra-



<sup>52</sup> Kapitulu honetan Agenda 21i egiten zaizkion erreferentzien barruan Agenda 21, gero Agenda 21 egikaritzeko Plana eta Goi-bilerako ondorioak daude.

ma eta politiketan garapen jasangarriak helburuak erabat sar daitezzen bultzatzea. Batez ere, garapen jasangarriaren hedadura soziala sendotu behar litzateke, Gizarte Garapenari buruzko Munduko Goi-bileraren eta haren bost urtetik behingo azterketaren emaitzei hurbiletik jarraitzeko beharrezko arreta jarri, haren txostenak kontuan hartuz eta gizarte-babeserako sistemei lagunduz, besteak beste;

- d) Nazio Batuen Ingurumenari buruzko Programaren Administrazio Kontseiluak nazioarte mailan ingurumen-kudeaketa egokiari buruz hartutako erabakiaren (ohiz kanpoko bilkuren zazpigarren aldian) ondorioak bete-betean aplikatzea<sup>53</sup> eta Batzar Nagusiari eskatzea berrogeita hamazazpigarren saio-aldian honako gai garrantzitsu baina konplexua aztertzeko: Ingurumenerako Munduko Ministro Foroaren Administrazio Kontseiluaren konposizio unibertsala ezartzea;
  - e) Nazio Batuen ustelkeriari buruzko konbentzio zabal bati (bidezko ez den eran eskuratutako funtsak jatorrizko herrialdera itzultzea barne hartzen duena) buruzko negoziazioak garaiz bukatzeko era aktibo eta konstruktiboan parte hartzea;
  - f) Enpresen erantzukizuna eta kontu-ematea eta garapen jasangarriaren testuinguruan jardura eraginkorrak sustatzea, baita –hala badagokio– interesatuen arteko elkarriketaren bidez ere (adibidez, Garapen Jasangarriari buruzko Batzordearen eta beste ekimen batzuen bidez);
  - g) Neurri zehatzak hartzea Monterreyko Ituna maila guztietan aplikatzeko.
141. Nazioartean gai publikoak ondo kudeatzea behar-beharrezkoa da garapen jasangarria lortzeko. Nazioarteko ingurune ekonomiko, dinamiko eta mesedegarria bermatzeko, garrantzitsua da munduko ekonomia ondo kudeatzea, garapen-bidean diren herrialdeen garapen-perspektibetan eragiten duten nazioarteko modalitate finantzario, komertzial eta teknologikoei eta inbertsio-modalitateei ekinez. Horretarako, nazioarteak beharrezko neurri egokiak hartu behar lituzke, honako hauek barne: berrikuntza estrukturalari eta makroekonomikolari laguntzea, kanpo-zorraren konponbide zabala eta merkaturako irismen handiagoa izatea garapen-bidean diren herrialdeek. Nazioarteko finantza-egituraren erforma-ahaleginari lagundu egin behar zaio, erabakiak hartzeko prozesuetan gardentasun handiagoz eta garapen-bidean diren herrialdeen parte-hartze eraginkorragoz jardunez. Merkataritza-sistema aldeantzekoak eta unibertsalak —arauetan oinarritua, irekia, ez-baztertzaila eta bidezkoa— eta merkataritzaren liberalizazio esanguratsuak nabarmen susper dezakete mundu osoko garapena eta herrialdeei mesede egin garapenaren etapa guztietan.
142. Garapen jasangarriko nazioarteko lankidetzak sustatzeko eta guztiztat onuragarria den mundu mailako sistema ekonomikoa lortzeko, funtsezkoa da Nazio Batuen sistema dinamikoa eta eraginkorra izatea. Horretarako, ezinbestekoa da ahalegin eskerga egitea Nazio Batuen idealak eta nazioarteko zuzenbidean eta Nazio Batuen Gutunean jasotako printzipioak lortzeko, baita Nazio Batuen eta alde anitzetako beste erakunde ba-

tzuen sistema indartzeko eta horren funtzionamendu hobeak sustatzeko ere. Estatuak bete egin behar dute hartutako konpromisoa: arlo guztietako ustelkeriaren aurkako Nazio Batuen konbentzioa ahalik eta azkarren negoziatu eta burutzea, bidezko ez den eran eskuratutako funtsak jatorrizko herrialdera itzultzea eta diru-zuriketa eragozteko lankidetzak handiagoa sustatzea barne.

### C. Batzar Nagusiaren eginkizuna


143. Nazio Batuen Batzar Nagusiak garapen jasangarria Nazio Batuen jardueren esparru orokorreko elementu gako gisa hartu behar luke, batez ere nazioartean erabakitako garapen-helburuak (Milurtekoko Deklarazioaren edukiak barne) lortzeko eta Agenda 21en egikaritzeari eta azterketari norabide politiko orokor bat emateko.

### D. Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren eginkizuna

144. Nazio Batuen Gutuneko xedapen egokien arabera, Agenda 21eko xedapenen arabera (Ekonomia eta Gizarte arazoetarako Kontseiluari dagozkionak) eta Batzar Nagusiaren 48/162 eta 50/227 Ebazpenen arabera (Kontseiluaren egitekoa indartzen dute horiek honako hauetan bitarteko nagusi izan dadin: Nazio Batuen sistemaren eta beren erakunde espezializatuen jarduerak koordinatzen eta bere erakunde subsidiarioak gainbegiratzen —batzorde organikoak batik bat— eta, sistema osoan koordinazioa indartuz, Agenda 21en egikaritzea sustatzen), Kontseiluak honako hau egin behar luke:
- a) Sistema osoaren koordinazioa gainbegiratzeko funtzioa eta Nazio Batuen politika eta programetan (garapen jasangarria sustatzekoak) ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-alderdiak modu orekatuan sartzeko funtzioa areagotzea;
  - b) Agenda 21 egikaritzearen testuinguruan, garapen jasangarriarekin zerikusia duten gaien aldizkako azterketa antolatzea. Garapen Jasangarriari buruzko Batzordeak aholkuak eman ditzake gai horiei buruz;
  - c) Nazio Batuek garapen jasangarriaren arloan egiten duten lanaren alderdi egoki guztiak behar bezala aintzat hartzeko, osoki aprobetxatzea goi-mailako saioak, koordinaziokoak, eta eragiketa-jardueretakoak eta jardura orokorretakoak. Testuinguru horretan, Kontseiluak talde nagusien parte-hartzea bultzatu behar luke goi-mailako saioetan eta bere batzorde organiko egokien egitekoan, dagozkien araudiak aintzat hartuta;
  - d) Bere batzorde organikoaren eta beste erakunde subsidiario batzuen (Agenda 21 egikaritzeko egokiak) jardueretan koordinazio, osagarritasun, errendimendu eta eraginkortasun handiagoa sustatzea;
  - e) Garapenerako Energia eta Baliabide Naturalei buruzko Lantaldearen egitekoa amaitutzat hartzea eta haren egitekoak Garapen Jasangarriari buruzko Batzordeari transferitzea;
  - f) Ahalegina egitea Goi-bileran hartutako erabakien jarraipenean (etengabea eta koordinatua) eta Monterreyko Itunaren jarraipenean Kontseiluak dituen egitekoek lotura estua izan dezaten. Horretarako, Kon-

<sup>53</sup> UNEP/GCSS.VII/6, I eranskina.





tseiluak –Monterreyko Itunak dioenez– Bretton Woods-eko erakundeekin eta Munduko Merkataritza Erakundearekin egiten dituen bilerekin zerikusia duten akordioak ezartzeko moduak ikertu behar litzuzke;

- g) Ahalegin handiagoa egitea genero-kontuak Agenda 21en egikaritze koordinatua erekin zerikusia duten jarduerara gisa sar daitezten.

## E. Garapen Jasangarriari buruzko Batzordearen eginkizuna eta funtzioa

- 145. Garapen Jasangarriari buruzko Batzordeak Nazio Batuen sistemaren barruan garapen jasangarriaz arduratzen den goi-mailako batzordea izaten jarraitu behar luke eta garapen jasangarriaren hiru dimentsioei dagozkien gaiak aztertzeoko foro gisa balio behar luke. Batzordearen egitekoa, funtzioak eta agintea —dagozkien Agenda 21eko alderdietan ezarri zirenak eta Batzar Nagusiaren 47/191 ebazpenean onartu zirenak— oraindik ere egokiak diren arren, beharrezkoa da Batzordea indartzea, dagozkien erakunde eta organizazioen funtzioa aintzat hartuta. Batzordearen egiteko zabalago batek barne hartu behar litzuzke, alde batetik, Agenda 21en egikaritzean egindako azterketa, eta bestetik, gainbegiratzea eta koherentzia hauek sustatzea egikaritzean, ekimenetan eta elkartean.
- 146. Testuinguru horretan, Batzordeak arreta gehiago jarri behar luke maila guztietako egikaritzea errazten duten neurrietan —governuek, nazioarteko erakundeek eta Agenda 21 egikaritzeko alderdi interesdun egokiek parte hartzen duten elkarteak sustatu eta erraztea barne—.
- 147. Batzordeak hau egin behar luke:
  - a) Egindako aurrerapenak aztertu eta ebaluatu eta Agenda 21en egikaritzea sustatzen jarraitu;
  - b) Sektore-gai zehatzen sektorearteko alderdietan arreta jarri eta foro bat eratu politiken integrazioa hobetzeko, besteak beste, goi-mailako saioetan garapen jasangarriaren hainbat dimentsioz eta sektorez arduratzen diren ministroen elkarrekintzaren bidez;
  - c) Agenda 21 egikaritzeak dakartzan arazo eta aukera berriei aurre egin;
  - d) Arretagune nagusizat Agenda 21 egikaritzeko neurriak hartu eta Batzordearen saio-aldietako negoziazioak mugatu, bi urtez behin egin;
  - e) Bilkura-aldi bakoitzean aztertu beharreko gai-kopurua mugatu.
- 148. Egikaritzea erraztea da Batzordearen egitekoetako bat, eta, horretarako, alderdi hauetan ahalegin berezia egin behar luke:
  - a) Agenda 21en egikaritzea sustatzen jarraitzea eta aurrerapenak aztertzea. Testuinguru horretan, Batzordeak egikaritzea baldintzatzen duten faktoreak zein diren zehaztu eta horiek gainditze beharrezko gomendioak eman behar litzuzke;
  - b) Koordinazio-zentro gisa jardutea garapen jasangarria bultzatzen duten elkarteak aztertze, pilotutako esperientzia, egindako aurrerapenak eta jardunbide egokiak trukatzeko barne;
  - c) Garapen jasangarriko teknologia-transferentzia eta finantza-laguntzari buruzko gaiak aztertzea, baita gaitasunaren sustapena ere, dagoen informazioa ahalik

eta gehien aprobetxatuz. Garapen Jasangarriari buruzko Batzordeak txosten nazionalen erabilera eraginkorra eta eskualdeetako esperientzia azter litzuzke, eta, horretarako, gomendio egokiak eman;

- d) Garapen jasangarriko planifikazioan, erabakiak hartzen eta garapen jasangarriko estrategiak aplikatzen laguntzen duten neurri buruzko esperientziak aztertzea eta trukatzeko foro bat eskaintzea. Horri dagokionez, nazio eta eskualde mailako txostenak modu eraginkorragoan erabiltzea azter litzuzke Batzordeak;
  - e) Garapen jasangarriaren arloko aurrerapen juridiko nagusiak aintzat hartzea eta arreta berezia jartzea dagozkien gobernuen arteko erakundeek Agenda 21en egikaritzean —nazioarteko bitarteko eta mekanismoei dagokienez— duten eginkizunari.
- 149. Batzordearen lan-programari eta modalitate praktikoei dagokienez, Batzordeak erabaki zehatzak hartu behar litzuzke kontu horiei buruz hurrengo bilkura-aldian, Batzordearen gaikako lanen programa prestatu eta gero. Honako hauek aztertu behar lirateke bereziki:
    - a) 47/191 ebazpeneko Batzordearen agindu guztien gauzatzea modu orekatuan aztertzea.
    - b) Nazioarteko erakundeek eta talde nagusiek Batzordearen lanean parte-hartze zuzena eta funtsezkoa errazten jarraitzea.
    - c) Arreta handiagoa jartzea garapen jasangarriko ekarpen zientifikoei (adibidez, zientzia-komunitateari galdetuz eta zientzia-sare nazionalak, eskualdekoak eta nazioartekoak Batzordearen lanean parte hartzea bultzatuz).
    - d) Hezitzaileek garapen jasangarriari egin dezaketek ekarpenean laguntzea, baita —hala dagokionean— Batzordearen jardueretan ere.
    - e) Egutegiaz eta bileren iraupenez arduratzea bilkura-aldietan.
  - 150. Neurri berriak hartzea jardunbide egokiak eta garapen jasangarriari hartutako esperientzia sustatzeko. Datuak biltzeko eta hedatzeko egungo metodoen erabilera ere sustatzea, eta, batez ere informazioaren teknologien erabilera handiagoa.

## F. Nazioarteko erakundearen eginkizuna

- 151. Azpimarratzea nazioarteko erakundeek (dagozkien aginte-eremuetan) Nazio Batuen sistemaren barruan edo kanpoan —alde anitzetako finantza-erakundeak, Munduko Merkataritza Erakundea eta Munduko Ingurumenerako Funtsa barne— lankidetzak ekimenak sendotzeko premia honako helburu hauekin:
  - a) Agenda 21 gauzatzeko laguntza eraginkorra eta taldekoa sustatzea maila guztietan.
  - b) Nazioarteko erakundearen eraginkortasuna eta koordinazioa handitzea Agenda 21 gauzatzeko, Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Goi-bileran hartutako erabakiak aplikatzeko, Milurtekoko Deklarazioko garapen jasangarriari buruzko alderdi egokiak Monterreyko Ituna eta Munduko Merkataritza Erakundearen laugarren Ministro Bilerako –Dohan 2001eko azaroan egina— ondorioak gauzatzeko.
- 152. Nazio Batuen Idazkari Nagusiari eskatzea, Nazio Batuen Sistemako Nagusi Exekutiboaren Koordinazio Batzordea-



ren bidez –lankidetzaren ekimen ofiziosoen bitartez, besteak beste– garapen jasangarriari dagokionez sistemaren maila guztietan erakundearen arteko lankidetzaren eta koordinazioa sustatzen jarrai dezala, informazio-trukea errazteko neurri egokiak har ditzala eta Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari eta Batzordeari Agenda 21 gauzatzeko hartzen hari diren neurriez informatzen jarrai dezala.

153. Nabarmen handitzea laguntza Garapenerako Nazio Batuen Programako garapen jasangarriaren inguruan gaitasuna sustatzeko programetarako –Gaitasuna 21 programarekin hartutako esperientzia oinarri izanda–, programa horiek tokiko eta herrialdeko –batez ere garapen-bidean dauden herrialdeetan– garapenerako gaitasuna sustatzeko jardueri laguntza emateko mekanismo garrantzitsuak baitira.
  154. Ingurumenerako Nazio Batuen Programaren eta Nazio Batuen bestelako organo eta erakunde espezializatuen, Bretton Woodseko erakundearen eta Munduko Merkataritza Erakundearen arteko lankidetzaren sendotzea, bakoitzari dagokion aginte-eremuan.
  155. Ingurumenerako Nazio Batuen Programak, Giza Koka-guneetarako Nazio Batuen Zentroak, Garapenerako Nazio Batuen Programak eta Merkataritzari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentziak –bakoitza dagokion aginte-eremuan– garapen jasangarriarako eta Agenda 21 gauzatzeko programetarako ekarpena sendotu behar lukete maila guztietan, batez ere gaitasuna sortzeko alorrean.
  156. Agenda 21 nazioartean eraginkortasunez gauzatea sustatzeko, honako hau ere beharrezkoa izango da:
    - a) Garapen jasangarriari buruzko nazioarteko bileren egutegia antolatzea eta, dagokion erara, murriztea bilera-kopurua, haien iraupena eta negoziatutako ondorioei ematen zaien denbora, eta egikaritzearekin lotutako gai praktikoei denbora gehiago esleitzea.
    - b) Eragile egoki guztien arteko lankidetzaren ekimenak bultzatzea Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Goi-bileran iritsitako lorpenei laguntza emateko. Testuinguru horretan, lankidetzaren elkarrekin hurrengo sorreran eta elkarte horien jarraipenean aintzat hartu behar da Goi-bilera prestatzeko lana.
    - c) Informazioaren eta komunikazioen teknologien alorreko aurrerapenak osoki aprobetxatzea.
  157. Garapen jasangarriaren aldeko nazioarteko erakunde-esparruaren sendotzea eboluzio-prozesua da. Beharrezkoa da akordio egokiak etengabe aztertzen jarraitzea, gabeziak zehaztea, funtzioen bikoizketa deuseztatzea eta garapen jasangarriaren dimentsio ekonomikoaren, sozialaren eta ingurumenekoaren integrazioa, eraginkortasun eta koordinazio handiagoa lortzen saiatzea Agenda 21 gauzatzeko helburuarekin.
- ### G. Garapen jasangarriaren aldeko erakundearen akordioak indartzea eskualdean
158. Agenda 21 gauzatzeko eta Goi-bilerako ondorioak eraginkortasunez aplikatzeko (eskualdean eta azpieskualdean) beharrezkoa da aktiboki ahalegintzea, eskualdeko batzordeen eta eskualdeko eta azpieskualdeko bestelako erakundearen eta organoen bidez.
  159. Beharrezkoa da garapenerako eskualdeko arteko koordinazioa eta lankidetzaren hobetzea eskualdeko batzordeen, funtsen, Nazio Batuen programen eta erakundearen, garapenerako eskualdeko bankuen eta eskualdeko eta azpieskualdeko bestelako erakundearen eta organoen artean. Horrekin batera, dagokion erara, herrialdeko eta eskualdeko lehentasunak adierazten dituzten garapen jasangarriarako adostutako eskualdeko estrategiak eta ekintza-planak garatzeko, hobetzeko eta aplikatzeko laguntza eman behar litzateke.
  160. Bereziki, eta Agenda 21eko xedapen egokiak kontuan hartuta, eskualdeko batzordeek –eskualdeko eta azpieskualdeko bestelako organoekin lankidetzan– honakoa egin behar lukete:
    - a) Garapen jasangarriaren hiru dimentsioen integrazioa orekatua sustatu beren lanean, Agenda 21 gauzatuz, besteak beste. Helburu horrekin eskualdeko batzordeek beren gaitasuna handitu egin beharko lukete barne-ekintzen bidez eta, hala dagokionean, kanpoko laguntza jaso.
    - b) Garapen jasangarriaren dimentsio ekonomikoaren, sozialaren eta eskualdekoaren integrazioa orekatua ahalbidetzea eta sustatzea eskualdeko, azpieskualdeko eta bestelako organoen lanean, esperientzien trukea –esperientzia nazionalak barne–, praktika egokiak, kasuen azterketak eta Agenda 21 gauzatzearekin lotutako lankidetzaren elkarrekin esperientzia erraztuz eta sendotuz, adibidez.
    - c) Laguntza tekniko eta finantzarioa erabiltzen laguntzea eta garapen jasangarriari buruz adostutako eskualdeko eta azpieskualdeko programak eta proiektuak gauzatzeko finantziario nahikoa ahalbidetzea, pobrezia errotik kentzeko helburuarekin, besteak beste.
    - d) Interesa duten hainbat parte-hartzea sustatzen jarraitzea eta Agenda 21 eskualdean eta azpieskualdean gauzatzeko laguntza emateko elkarteak bultzatzea.
  161. Laguntza eman behar zaie garapen jasangarriarako eskualdean eta azpieskualdean adostutako ekimen eta programei –adibidez, Afrikaren Garapenerako Ekimen

Berria eta mundu mailan adostutako Garapen Bidean dauden eta Uharte diren Estatu Txikien Garapen Jasangarriko Ekintza Programaren eskualdeko alderdiei–.

## H. Nazio mailako garapen jasangarriko erakunde-esparruak sendotzea

162. Estatuek honakoa egin behar lukete:
- Garapen jasangarriko erakunde-esparruetarako ikuspuntu koherenteak eta koordinatuak sustatzen jarraitu herrialdeko maila guztietan, baita politikak koordinatzeko eta aplikatzeko eta legeak aplikatzeko beharrezkoak diren agintariak edo mekanismoak ezarri edo lehendik daudenak indartzuz ere, hala dagokionean.
  - Berehalako neurriak hartu garapen jasangarriko estrategia nazionalak egitean eta lantzean aurrerapenak lortzeko, eta haiek aplikatzen hasi 2005. urterako. Helburu horrekin, eta dagokion erara, strategiak nazioarteko lankidetzaren bidez babestu behar dira, kontuan izanda garapen-bidean dauden herrialdeen beharrak, batez ere herrialde atzeratuena. Estrategia horiek –garapen jasangarriaren alderdi ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak integratzen dituen pobrezia murrizteko estrategia gisa azal daitezke, hala behar izanez gero– herrialde bakoitzaren lehen-tasunen arabera aplikatu behar lirateke.
163. Herrialde bakoitza bere garapen jasangarriaren erantzule da, eta ezinbestekoa da herrialdeko garapen-politiken eta -estrategien funtzioa azpimarratzea. Herrialde guztiek sustatu behar lukete garapen jasangarria herrialde mailan, garapen jasangarria bultzatzen duten lege argi eta eraginkorrak bultzatuz, besteak beste. Herrialde guztiek sendotu behar lituzkete gobernu-erakundeak, beharrezko azpiegitura emanez eta gardentasuna, erantzukizuna eta erakunde administratibo eta judizial zuzenak sustatuz ere hala behar izanez gero.
164. Herrialde guztiek sustatu behar lukete herritarren parte-hartzea, baita legeriari, araudiari, jardueri, politikei eta programei buruzko informazioa eskuratzeko neurrien bidez ere. Horretaz gain, herritarren erabateko parte-hartzea ere sustatu behar lukete garapen jasangarriko politikak egiteko eta aplikatzeko. Emakumeek osoki eta berdintasunez hartu behar lukete parte politiken erakuntzan eta erabakiak hartzeko prozesuetan.
165. Garapen jasangarriari buruzko koordinazio-kontseiluak eta -egiturak ezartzea eta hobetzea sustatzen jarraitzea herrialde eta toki mailan, garapen jasangarriko politi-

kei goi-mailan ekin ahal izateko. Testuinguru horretan, interesa duten hainbat alderdiren parte-hartzea sustatu behar litzateke.

166. Garapen jasangarriko erakundearen mekanismo nazionalak hobetzeko herrialde guztietako ekimenei laguntza eman behar litzaieke, batez ere garapen-bidean dauden eta trantsizio-ekonomia duten herrialdeetako, baita toki mailan ere. Horren barnean egon daiteke garapen jasangarriko estrategia eta planak egiteko sektoreen arteko irizpideak sustatzea; adibidez, pobrezia murrizteko strategiak, laguntzaren koordinazioa, parte hartzeko ikuspegiak sustatzea eta politika-azterketak eta kudeatzeko eta gauzatzeko gaitasuna hobetzea –hala dagokionean–, eta jarduera horietan guztietan genero-ikuspegia sartzea.
167. Tokiko agintarien eta interesa duten hainbat alderdiren zeregina eta gaitasuna hobetzea Agenda 21 gauzatzeko, Goi-bilerako ondorioak aplikatzeko eta tokian aplikatzeko, Agenda 21eko programei eta horiei lotutako bestelako ekimenei eta aliantzei etengabeko laguntza sendotzeko, eta bultzatzea –batik bat– tokiko agintarien eta administrazioko gainerako mailen eta interesa duten alderdien arteko elkarteak, garapen jasangarriantzez aurrera egiteko Habitat Programak<sup>54</sup> –besteak beste–, eskatzen duen bezala.

## I. Talde nagusien parte-hartzea

168. Gobernu-agenteen eta gobernu kanpokoaren arteko aliantzak sustatzea –talde nagusi guztiak eta boluntariotaldeak barne–, maila guztietan garapen jasangarria lortzeko programa eta jardueretarako.
169. Ingurumenaren eta giza eskubideen artean (garapen-eskubidea barne) egon litekeen harremanari arreta jarri behar zaiola onartzea, Nazio Batuen kide diren estaturen eta estatu begiraleen parte-hartze erabateko eta gardinarekin.
170. Gazteek garapen jasangarriarekin zerikusia duten programa eta jardueretan parte-hartzea sustatu eta laguntzea, gazte-kontseilu lokalei edo horien baliokideei lagunduz eta horrelakorik ez dagoen lekuetan egon daitezkeen bultzatuz, adibidez.

<sup>54</sup> A/CONF.165/14.I kap., I. ebazpena, II eranskina.

### 3. ebazpena. Esker ona Hegoafrikar Errepublikako herriari Gobernuari\*

Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Goi-bilerak,

Johannesburgen (Hegoafrikar Errepublika) bildurik 2002ko abuztuaren 26tik irailaren 4ra bitartean, Hegoafrikar Gobernuak gonbidatuta,

1. *Eskerrik beroena adierazten dio* Thabo Mbeki jaun txit go-nari, Hegoafrikar Errepublikako presidenteari, ekarpen nabaria egin baitu, Garapen Jasangarriari buruzko Goi-bileraren lehendakari gisa, Goi-bilerak arrakasta izan zezan;
2. *Eskerrik zintzoena adierazten dio* Hegoafrikar Errepublikako Gobernuari, Goi-bilera Hegoafrikan izan zedin ahaleginak egin dituelako eta erabat eskuzabal instalazio, pertsona eta zerbitzu bikainak jarri dituelako haren eskura;
3. Hegoafrikar Errepublikako Gobernuari *eskatzen* dio Johannesburg hiriarri eta Hegoafrikar Errepublikako herritarrei Goi-bileraren esker ona agertzeko, parte-hartzaileei egin-dako abegiagatik eta harrera beroagatik.



### 4. ebazpena. Garapen Jasangarriari buruzko Goi-bileran parte hartzen duten ordezkarien egiaztagiriaik\*\*

Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Goi-bilerak,

Ahalordetzak Egiaztatzeko Batzordearen txostena<sup>55</sup> eta txosten horretako gomendioa *aztertu eta gero*,

Ahalordetzak Egiaztatzeko Batzordearen txostena *onartu egin du*.



\* 17. osoko bilkuran onetsia, 2002ko irailaren 4an.

\*\* 17. osoko bilkuran onetsia, 2002ko irailaren 4an.

<sup>55</sup> A/CONF.199/15.

## II KAPITULUA

PARTE-HARTZAILEAK ETA LANEN  
ANTOLAKETA



## Parte-hartzaileak eta lanen antolaketa

### A. Goi-bileraren data eta tokia

1. Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Goi-bilera Johannesburgen egin zen (Hegoafrikar Errepublika) 2002ko abuztuaren 26tik irailaren 4ra bitartean, Batzar Nagusiko 55/199 eta 56/226 ebazpenen arabera. Hamar egun horietan 17 osoko bilkura egin ziren goi-bileran.

### B. Parte-hartzaileak

2. Goi-bileran estatu hauen eta integrazio ekonomikorako eskuildeetako erakunde hauen ordezkariak parte hartu zuten:

- Afganistan
- Afrika Erdiko errepublika
- Albania
- Alemanian
- Aljeria
- Amerikako Estatu Batuak
- Andorra
- Angola
- Antigua eta Barbuda
- Arabiar Emirerri Batuak
- Argentina
- Armenia
- Aulki Santua
- Australia
- Austria
- Azerbaijan
- Bahamak
- Bahrain
- Bangladesh
- Barbados
- Belgika
- Belize
- Benin
- Bhutan
- Bielorrusia
- Boli Kosta
- Bolivia
- Bosnia-Herzegovina
- Botswana
- Brasil
- Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua
- Brunei Darussalam
- Bulgaria
- Burkina Faso
- Burundi
- Cabo Verde
- Cook uharteak
- Costa Rica
- Danimarka
- Djibouti
- Dominika
- Dominikar Errepublika
- Egipto
- Ekuador
- Ekuatore Ginea
- El Salvador
- Eritrea
- Errumania
- Errusiar Federakundea
- Eslovakia
- Eslovenia
- Espainia
- Estonia
- Etiopia
- Europako Batasuna
- Fiji
- Filipinak
- Finlandia
- Frantzia
- Gabon
- Gambia
- Georgia
- Ghana
- Ginea
- Ginea Bissau
- Grenada
- Grezia
- Guatemala
- Guyana
- Haiti
- Hego Afrika
- Herbehereak
- Honduras
- Hungaria
- India
- Indonesia
- Irak
- Irango Errepublika Islamiarra
- Irlanda
- Islandia
- Israel
- Italia
- Jamahiriya Arabiar Libiarra
- Jamaika
- Japonia
- Jordania
- Jugoslavia
- Kamerun
- Kanada
- Kanputxea
- Kazakhstan
- Kenya
- Kirgizistan
- Kiribati
- Kolonbia
- Komoreak
- Kongo
- Kongoko Errepublika Demokratikoa
- Koreako Errepublika
- Koreako Herri Errepublika Demokratikoa
- Kroazia
- Kuba
- Kuwait
- Laosko Herri Errepublika Demokratikoa
- Lesotho





- Letonia
  - Libano
  - Liberia
  - Liechtenstein
  - Lituania
  - Luxenburgo
  - Madagaskar
  - Malaysia
  - Malawi
  - Maldivak
  - Mali
  - Malta
  - Maroko
  - Marshall uharteak
  - Mauritania
  - Maurizio
  - Mazedoniako Jugoslaviar Errepublika ohia
  - Mexiko
  - Mikronesiako Estatu Federatuak
  - Moldaviako Errepublika
  - Monako
  - Mongolia
  - Mozambique
  - Myanmar
  - Namibia
  - Nepal
  - Nikaragua
  - Niger
  - Nigeria
  - Niue
  - Norvegia
  - Oman
  - Pakistan
  - Palau
  - Panama
  - Papua Ginea Berria
  - Paraguai
  - Peru
  - Polonia
  - Portugal
  - Qatar
  - Ruanda
  - Saint Kitts eta Nevis
  - Saint Vincent eta Grenadinak
  - Salomon uharteak
  - Samoa
  - Santa Luzia
  - Sao Tome eta Principe
  - Saudi Arabia
  - Senegal
  - Seychelleak
  - Sierra Leona
  - Singapur
  - Siriako Arabiar Errepublika
  - Somalia
  - Sri Lanka
  - Sudan
  - Suedia
  - Suitza
  - Surinam
  - Swazilandia
  - Tadjikistan
  - Tanzaniako Errepublika Batua
  - Thailandia
  - Togo
  - Tonga
  - Trinidad eta Tobago
  - Tunisia
  - Turkia
  - Tuvalu
  - Txad
  - Txekiar Errepublika
  - Txile
  - Txina
  - Uganda
  - Ukraina
  - Uruguai
  - Uzbekistan
  - Vanuatu
  - Venezuela
  - Vietnam
  - Yemen
  - Zambia
  - Zeelanda Berria
  - Zimbawe
  - Zipre
3. Eskualdeetako batzordeetako bazkide hauen ordezkariak hartu zuten parte:
    - Antilla Nederlandarrak
    - Birjina Uharte Britainiarrak
    - Estatu Batuetako Birjina Uharteak
    - Puerto Rico
    - Samoa Amerikarra
  4. Estatu honek Goi-bileran begirale gisa parte hartzeko gonbita jaso zuen eta ordezkaria bidali zuen:
    - Ekialdeko Timorrek
  5. Hurrengo entitateak ere jaso zuen Garapen Jasangarriari buruzko Goi-bileran eta Goi-bileraren lanean begirale gisa parte hartzeko gonbita, eta ordezkaria bidali zuen:
    - Palestinak
  6. Honako eskualde-batzorde hauen idazkaritzek parte hartu zuten:
    - Europarako Ekonomia Batzordea
    - Asia eta Pazifikorako Ekonomia eta Gizarte Batzordea
    - Latinoamerika eta Kariberako Ekonomia Batzordea
    - Afrikarako Ekonomia Batzordea; Mendebaldeko
    - Asiarako Ekonomia eta Gizarte Batzordea
  7. Nazio Batuen honako organo eta programek parte hartu zuten: Merkataritza eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzia
    - Haurrentzako Nazio Batuen Funtza
    - Biztanleriarentzako Nazio Batuen Funtza
    - Nazio Batuen Heziketarako eta Ikerketarako Institutua
    - Drogak Kontrolatzeko eta Delitugintzaren Prebentziorako Bulegoa
    - Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioaren Bulegoa
    - Hegoafrikako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi-komisarioaren Bulegoa
    - Gutxien Garatutako, Itsasertzik gabeko edo Uharte diren Garapen bideko Herrialdeetarako Koordinatzaile Bereziaren Bulegoa
    - GIB/IHESari buruzko Nazio Batuen Egitarau Bateratua
    - Garapenerako Nazio Batuen Egitaraia

- Giza Kokaguneetarako Nazio Batuen Egitaraua
  - Ingurumenerako Nazio Batuen Egitaraua
  - Nazio Batuen Unibertsitatea
8. Honako hitzarmen hauen idazkaritzek parte hartu zuten:
- Lehorte Larria edo/eta Desertifikazioa Jasandako Herrialdeetan Desertifikazioaren aurka Borrokatzeko Nazio Batuen Hitzarmena
  - Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmena
  - Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmena
  - Hondakin Arriskutsuen Mugaz gaindiko Mugimenduen Kontrolari eta Ezabapenari buruzko Basileako Hitzarmena
9. Honako erakunde berezi eta erakunde atxiki hauek parte hartu zuten:
- Munduko Bankua
  - Nekazaritzaren Garapenerako Nazioarteko Funtsa
  - Nazioarteko Moneta Funtsa
  - Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentzia
  - Abiazio Zibilaren Nazioarteko Erakundea
  - Industria Garapenerako Nazio Batuen Erakundea
  - Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundea
  - Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea
  - Lanaren Nazioarteko Erakundea
  - Nazioarteko Itsas Erakundea
  - Munduko Meteorologia Erakundea
  - Osasunerako Mundu Erakundea
  - Osasunerako Mundu Erakundea
  - Munduko Merkataritza Erakundea
  - Turismoaren Mundu Erakundea
  - Telekomunikazioen Nazioarteko Batasuna
  - Posta Batasun Unibertsala
10. Honako gobernuarteko erakunde hauek parte hartu zuten:
- Europako Espazio Agentzia
  - Karibeko Estatuaren Elkartea
  - Asiako Hego-ekialdeko Nazioen Elkartea
  - Ekonomia eta Gizarte Kontseiluen eta Antzeko Erakundeen Nazioarteko Elkartea
  - Baltic 21 (Itsaso Baltikoaren Eskualderako Agenda 21)
  - Afrikaren Garapenerako Bankua
  - Afrikako Ekonomiaren Garapenerako Banku Arabiarra
  - Asiaren Garapenerako Bankua
  - Kariberen Garapenerako Bankua
  - Berreraikuntza eta Garapenerako Europako Bankua
  - Garapenerako Banku Interamerikarra
  - Garapenerako Banku Islamiarra
  - Center for Applied Bioscience International
  - Ingurumenerako eta Garapen Jasangarrirako Pazifikoko Zentroa
  - Ingeniaritza Genetiko eta Bioteknologiarako Nazioarteko Zentroa
  - Geozientzia Aplikatu Hego Pazifikoko Batzordea
  - Nazioarteko Batzorde Mistoa
  - Hego Pazifikoko Batzorde Iraunkorra
  - Hegoaldeko Garapen Jasangarrirako Zientzia eta Teknologiarari buruzko Batzordea
  - Artikoko Eskualdeko Parlamentarien Lantalde Iraunkorra
  - Lurra Behatzeko Satelitei buruzko Lantaldea / Europako Espazio Agentzia
  - Andeetako Erkidegoa
  - Estatu Independenteen Erkidegoa
  - Itsaso Baltikoko Estatuaren Kontseilua
  - Europako Kontseilua
  - Kontseilu Nordikoa
  - Ministroen Kontseilu Nordikoa
  - Hezeguneei buruzko Hitzarmena
  - Espezie Migratzaileei buruzko Hitzarmena
  - Andeetako Sustapen Korporazioa
  - Arbitratzeko Auzitegi Iraunkorra
  - Europako Kontseiluaren Garapen Bankua
  - Oinarrizko Produktuetarako Funts Bateratua
  - Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundearen Nazioarteko Garapenerako Funtsa
  - Ingurumenerako Mundu Funtsa
  - Segurtasun Kimikoari buruzko Gobernuarteko Foroa
  - Nazioarteko Nekazaritza Ikerketarako Aholku Taldea
  - Afrika, Karibe eta Pazifikoko Estatu Taldea
  - Garapenaren Zuzenbideko Nazioarteko Institutua
  - Hotzaren Nazioarteko Institutua
  - Merkataritza eta Ekonomiaren Eskualde mailako Integrazioa
  - Petrolio-poluzioaren Kalte-ordainetarako Nazioarteko Funtsak
  - Iwokrama International Rainforest Project
  - Lesotho Highlands Water Project
  - Arabiar Estatuaren Liga
  - Meatzaritza Ministerioen Ameriketako Urteko Konferentzia
  - Europako Kontseiluaren Ipar-Hego Zentroa
  - Sahara eta Sahelen Behatokia
  - Karibeko Kontserbazio Agentzia
  - Hondamendietako Premia Egoerari Erantzuteko Karibeko Agentzia
  - Energiaren Nazioarteko Agentzia
  - Afrikako Kartografia eta Teledetekzioko Erakundea
  - Asiako Produktibitate Erakundea
  - Asia eta Afrikako Aholku Juridikoko Erakundea
  - Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
  - Ekialdeko Karibeko Estatuaren Erakundea
  - Konferentzia Islamiarraren Erakundea
  - Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundea
  - Nazioarteko Hidrografia Erakundea
  - Frankofoniaren Nazioarteko Erakundea
  - Egur Tropikalen Nazioarteko Erakundea
  - Normalizazioko Nazioarteko Erakundea
  - Polizia Kriminalaren Nazioarteko Erakundea
  - Migrazioetarako Nazioarteko Erakundea
  - Organization pour la mise en valeur du fleuve Sénégal
  - Itsaso Gorriko eta Adengo Golkoko Ingurumena Kontserbatzeko Eskualdeko Erakundea
  - Latinoamerikako Parlamentua
  - Asiako Hegoaldeko Ingurumen Programa Kooperatiboa
  - Biztanleriaren eta Garapenaren aldeko Bazkideak
  - Pazifikoko Hegoaldeko Ingurumenerako Eskualde Programa
  - Karibeko Erkidegoko Idazkaritza
  - Commonwealtheko Idazkaritza
  - Pazifikoko Uharteetako Foroko Idazkaritza
  - Latinoamerikako Ekonomia Sistema
  - Afrikako Batasuna
  - Natura eta Natur Baliabideak Kontserbatzeko Nazioarteko Batasuna
  - Parlamentuen arteko Batasuna
  - Naturarako Nazioarteko Batasuna





11. Gobernuz kanpoko erakunde askok parte hartu zuten Goi-bileran. Garapen Jasangarriari buruzko Batzordeak — Goi-bilerako prestakuntza-batzorde izendatua— gobernuz kanpoko hainbat erakunde akreditatu zituen.
12. Gonbit iraunkorra jaso eta begirale gisa parte hartzen dutenen artean honako hauek daude: Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordea, Gurutze Gorriaren eta Ilberri Gorriaren Elkartearen Nazioarteko Federazioa eta Maltako Ordena Burujabe eta Militarra.

### C. Goi-bileraren hasiera

13. 2002ko abuztuaren 26an Goi-bileraren idazkari nagusiak hasi zuen Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Goi-bilera. Goi-bileraren lehendakariak irekitze-deklarazioa egin zuen. Nazio Batuen idazkari nagusiak, Goi-bileraren idazkari nagusiak, Nazio Batuen Ingurumen Programaren zuzendari betearazleak eta Nazio batuen Batzar Nagusiaren lehendakariak ere egin zituzten deklarazioak.

### D. Lehendakaria eta Goi-bilerako mahaiko beste kide batzuk hautatzea

14. Lehen, zazpigarren eta bederatzigarren osoko bilkuretan, 2002ko abuztuaren 26, 28 eta 29an eginak, Goi-bilerak mahaiko kide hauek hautatu zituen:

#### Goi-bileraren lehendakaria

Aho batez, Thabo Mbeki, Hegoafrikar Errepublikako presidentea, hautatu zuten Goi-bileraren lehendakari.

#### Lehendakariordeak

- *Afrikako estatuak:* Kamerun, Ghana, Kenya, Nigeria, Uganda.

- *Europako ekialdeko estatuak:* Eslovenia, Mazedoniako Jugoslaviar Errepublika ohia, Errusiar Federakundea, Hungaria, Errumania.
- *Latinoamerikako estatuak eta Karibe:* Antigua eta Barbuda, Brasil, Kuba, Mexiko, Peru.
- *Europako mendebaldeko estatuak eta beste estatu batzuk:* Alemania, Belgika, Danimarka, Norvegia, Zeelanda Berria.
- *Asiako estatuak:* Iran, Irak, Maldivak, Pakistan, Samoa.

#### Ex officio lehendakariordea

Aho batez, Nkosazana Clarice Dlamini Zuma, Hegoafrikar Errepublikako Kanpo Harremanetarako ministroa, hautatu zuten Goi-bilerako ex officio lehendakariorde.

#### Kontalari nagusia

Aho batez, María Cecilia Rozas, Peruko Ingurumen eta Garapen Jasangarriko zuzendaria, hautatu zuten Goi-bilerako kontalari nagusi.

#### Batzorde Nagusiaren lehendakaria

Aho batez, Emil Salim (Indonesia) hautatu zuten Goi-bilerako Batzorde Nagusiaren lehendakari.

### E. Araudia onestea

15. Lehen osoko bilkuran, 2002ko abuztuaren 26an egin zena, Goi-bilerak bere araudia onetsi zuen (A/CONF.199/2 eta Corr.1).

### F. Programa eta antolaketa beste kontu batzuk onestea

16. Lehen osoko bilkuran, 2002ko abuztuaren 26an egin zena, Goi-bilerak A/CONF.199/1 dokumentuan dagoen programa onetsi zuen. Programa hau da:
  1. Goi-bileraren hasiera.
  2. Lehendakaria hautatzea.
  3. Araudia onestea.
  4. Programa onestea eta Goi-bileraren lanak antolatzea: gobernuarteko erakundeak akreditazioa.
  5. Mahaiko gainerako kideak hautatzea.
  6. Lanen antolaketa, Batzorde Nagusia sortzea barne.
  7. Goi-bileran parte hartzen duten ordezkarien kredentzialak:
    - a) Botereak Egiaztzeko Batzordearen kideak izendatzea;
    - b) Botereak Egiaztzeko Batzordearen txostena.
  8. Ekitaldiak kideen parte-hartzearekin.
  9. Eztabaida orokorra.
  10. Ekitaldia hainbat interesdunen parte-hartzearekin.
  11. Mahai-inguruak.



12. Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Goi-bilerako erabakiak aplikatzeko planaren proiektua.
13. Agiri politikoa.
14. Goi-bilerako txostena onestea.
15. Goi-bileraren amaiera.
19. Saio berean, Goi-bilerak bere eta Batzorde Nagusiaren lanen egutegi-proiektuak onetsi zituen, A/CONF.199/3 dokumentuaren I eta II eranskinetan agertzen direnak.

### **G. Gobernuarteko erakundeen akreditazioa**


17. Lehen, 11. eta 14. osoko bilkuretan, 2002ko abuztuaren 26an, 30ean eta irailaren 3an eginak, Goi-bilerak A/CONF.199/13 dokumentuan agertzen diren 22 erakundeak akreditatzea onartu zuen, baita gobernuarteko lau erakunde hauek ere: Centre for Applied Bioscience, Lehortearren Aurkako Sahel-eko Estatuarteko Batzorde Iraunkorra, Central Asia Regional Cooperation eta Senegal Ibaiaren Garapenerako Erakundea.

### **I. Goi-bileran parte hartzen duten ordezkarien kredentzialak**

20. Lehen osoko bilkuran, abuztuaren 26an egina, araudiko 16 eta 17 paragrafoak aintzat hartuta, Goi-bilerak Botereak Egiatzatzeko Batzordearen kide hauek izendatu zituen, Batzar Nagusiaren Botereak Egiatzatzeko Batzordearen osaera oinarri hartuta saioen berrogeita hamaseigarren aldian: Txina, Danimarka, Amerikako Estatu Batuak, Errusiar Federakundea, Jamaika, Lesotho, Senegal, Singapur eta Uruguai.

### **H. Lanen antolaketa, Batzorde Nagusia sortzea barne**

18. Lehen osoko bilkuran, abuztuaren 26an egina, Goi-bilerak A/CONF.199/3 dokumentuan agertzen diren lanen antolaketa onetsi zuen.



## **GAUTENG-EKO DEKLARAZIOA**



## Gauteng-eko Deklarazioa



23 eskualdetako gobernuen ordezkariak<sup>56</sup> eta hainbat eskualdetako gobernuetako erakundeen ordezkariak (amaieran dago horien zerrenda) Johannesburg-en bildu dira, Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Goi-bilera egin den bitartean, eta Deklarazio hau onartu dute.

1. Rioko Goi-bileraren hamargarren urteurrena baliatu nahi dugu Agenda 21en, Rioko Deklarazioan eta Nazio Batuen Milurtekoko Deklarazioan ezarri zen bezala garapen jasangarriarekiko konpromisoa hartzeko.
2. Guk ordezkatzan ditugun gobernu-mailak politika, programa eta zerbitzu askoren arduradun dira, eta, maila horien bidez, etorkizun jasangarriagoa egin dezakegu gure hiritarrentzat.
3. Gure ustez, gertutasunaren, eraginkortasunaren eta lurralde-eremuaren aldetik, eskualdeetako gobernuak estrategikoki kokatuta daude garapen jasangarria lortzeko politikak garatzeko eta hori aplikatzeko beharrezkoa eta erabakigarria den gobernu-esparru gisa. Gobernu-mailarengatik, egoera askotan hobeto kokatuta gaude jasangarritasunaren alderdi espezifikoiei aurre egiteko, eta, beste egoera batzuetan, ezinbestean parte hartu behar dugu politiken ezarpen integratuan eta koordinatuan, gobernuko beste sail batzuekin eta gizarte zibilarekin elkartasunean. Gobernuko beste mailekiko lankidetzaren harremanei dagokienez, subsidiarioritasun-printzipioa aplikatu beharko litzateke.
4. Garapen jasangarriaren barruan ekonomiako, gizarteko eta ingurumeneko helburuak sartzen dira, bai orain, bai etorkizunean, giza garapenerako ahalik eta baldintza onenak sortzeko. Garapen jasangarriak oparotasuna eta gizarte berdinasunak ekarri beharko litzuzke, lanerako aukerak areagotu beharko litzuzke, guztien oinarriko giza beharrak

asetzen lagundu beharko luke, elikagaiekin eta urarekin, etxebizitzarekin, energiarekin, ongizate jasangarriarekin, hezkuntzarekin eta osasun laguntzarekin lotuta; era berean, gure ingurune fisikoa eta baliabide naturalak babestu beharko litzuzke. Gure eskualdeetan garapen guztia jasangarria izan dadin lortzeko, irtenbide berriak bilatzeko konpromisoa hartzen dugu.

5. Demokrazia, Zuzenbideko Estatuak, bakea eta segurtasuna lortzea, giza eskubideen eta askatasunen onarpena, pertsonak haiei dagozkien erabakietan parte hartzeko aukera, pobrezia erazteko eta kontsumoaren sustatzea eta ekoizpen jasangarria garapen jasangarria erabat lortzeko funtsezko elementuak dira, eta elementu horiek garapen jasangarriaren sustapen aktiboak sendotzen ditu. Gure gizartearen ordezkari gisa garapen jasangarriarekiko erabateko konpromisoa adieraziz, eskualdeko gobernu mailan gatazkarik gabeko mundu libre bilatzeko gure ardura garatzeko konpromisoa ere hartzen dugu; mundu libre horretan demokrazia eta giza eskubideen errespetua alde guztietan onartu behar dira, eta hiritar guztiak jazarpenetik eta edozein bazterketa-motatik aske egon daitezten.
6. Ura eta Saneamendua, Energia, Osasuna, Nekazaritza eta Biodibertsitatea eta Ekosistemen Kudeaketa (WEHAB) esparruetan jasangarritasuna lortzeko Nazio Batuen Idazkari Nagusiak ezarritako egungo enfasiarekin pozik gaude. Ordezkatzan ditugun eskualdeetako gobernuak arazo horiei ari dira ematen –eta horiei emango diete gero ere– lehentasuna garapen jasangarriaren esparruaren barruan.
7. Garapen jasangarria ezartzeak gobernu guztientzako esparru estrategiko bakarra izan behar duela uste dugu. Halaber, eskualdeko gure esparruetan funtsezko beharra dela uste dugu. Gainerako estrategia guztiak harremanetan jarriko dituzten esparru nuklear gisa jardungo duten garapen jasangarriko estrategiak behar dituzte eskualdeetako gobernuak; horretarako, horiek guztiak jasangarriak di-



<sup>56</sup> Munduan eskualdeetako gobernu-mota asko daude eta horiek izen desberdinak hartzen dituzte. Garapen Jasangarriko Eskualdeetako Gobernuen Sare berrian parte hartzen duten gobernuetatik sortutako taldea ezaugarri hauek definitzen dute: bakarka Nazio Batuen Erakundearen ordezkari gisa dauden estatu nazionalen banaketapolitikan, lehen-mailan eta maila altuenean kokatutako lurraldeetako gobernuak dira. Eskualdeetako gobernu horietan, esate baterako, oso ezagunak diren eskualdeak, probintziak, estatuak eta prefeturak sartzen dira, baina baita autonomia erkidegoak, "komunak", departamenduak, barrutiak, dibisioak, emirerriak, federazioak, gobernazioak, "juletile"-ak, "kilil"-ak, nazioak, "oblast"-ak, "rayon"-ak, lurraldeak, "voblast"-ak, "welayatlar"-ak eta guneak ere.



rela eta elkarrekiko osagarriak direla ziurtatu behar da. Garapen jasangarriaren estrategia on batek eskualdeen nortasunak bereizten dituzten alderdi horien garrantzia onartuko du, baita kohesio sozial handiagoa bultzatzen dutenen garrantzia ere. Estrategia horiek garatu egin behar dira ahalik eta eragile sozial eta partaide gehienekin elkarlanean, eta eragile sozialen parte-hartze aktiboa eta konpromisoa bermatu behar dira, horiek ezartzeko garaian. Estrategietan Nazio Batuen Idazkari Nagusiak garrantzitsutzat jo dituen bost areak (WEHAB) ardatz izango dituzten sailak sartu beharko lirake. Eskualdeetako gobernu batzuek garatu dute dagoeneko edo garatzen ari dira ildo hori kontuan hartzen duen garapen jasangarria. Munduko eskualdeetako gobernu guztiei dei egiten diegu lehenbailehen estrategiak onartzeko data bat zehazteko konpromisoa har dezaten.

8. Eskualdeetako gobernuak erronka handia dute batzuk besteengandik esperientzia praktikoaren eta garapen jasangarria ezartzearen inguruan ikasteko; eta aukera ugari goza dezakete laguntzeko edo lankidetzaz finkatzeko, bai haien bizilagunekin, bai munduan urruti dauden beste lekuetako jendearekin. Gauteng-en egindako gure bilera honetan, mundu osoan aitzindari diren hainbat eskualdeetako gobernuak eskualde mailan garapen jasangarriari buruzko informazioa eta eskarmentuaren berri elkarren artean trukatzeko eta guztien arteko lankidetzaz sustatzeko

sare global bat sortzeko asmoa dutela adierazi dute. Batak bestetik ikasteko prozesuari lagunduko dioten proiektu eta kooperazio-programetarako oinarria izan beharko luke foro honek. Munduko eskualde guztietako gobernuak dei egiten diegu lan-sare horren garapenean gurekin bat egin dezaten.

9. Eskualdeetako gobernuak gobernu maila guztiekin eta beste eragile sozial batzuekin lan egin nahi dute, eta horretarako beharra dute garapen jasangarria sustatzeko lanean. Johannesburg-en bildu diren gobernuburuei eta munduko beste liderrei zabaltzen diegu gure deialdia, baita Nazio Batuen Erakundeari berari ere, garapen jasangarria sustatzeko eta Agenda 21en eta Milurtekoko Deklarazioaren helburuak lortzeko eskualdeetako gobernuen beharrezko eta funtsezko lana onar eta babes dezaten. Horrez gain, esparru honetako gure elkarlana lankidetzaz estuaren eta kooperazio solidarioaren espirituarekin garatu behar dela uste dugu, eta horren barruan jasangarritasunerako tokiko ekimenak sustatu eta babestu beharko dira. Era berean, nazioarteko erakundeei, tokiko gobernuak eta eragile sozial diren gainerako taldeei gonbit egiten diegu, haien lana garatzeko gurekin lan egin dezaten, garapen jasangarriko bazkide solidario eta ezinbesteko gisa.

Johannesburgon, 2002ko Irailaren 3an

### Parte hartu duten gobernuak

1. Australiako Hiriburuen Lurraldea, Australia
2. Bavariako gobernuak, Alemania
3. Entre Rios probintzia, Argentina
4. Euskal Autonomia Erkidegoa, Espainia
5. Flandesko gobernuak, Belgika
6. Galesko Asanblearen Gobernuak, Erresuma Batua
7. Gauteng probintzia, Hegoafrika
8. Katalunia, Espainia
9. Lapland probintzia, Finlandia
10. Londres Handiko Agintaritzak, Erresuma Batua
11. Mato Grosso estatua, Brasil
12. Mendebaldeko Australiako estatua, Australia
13. Mendebaldeko Java probintzia, Indonesia
14. Mpumalanga probintzia, Hegoafrika
15. Pennsylvania estatua, AEB

16. Pernambuco estatua, Brasil
17. Poitou-Charentes eskualdea, Frantzia
18. Quebec-eko gobernuak, Kanada
19. Rio de Janeiro estatua, Brasil
20. Rio Grande do Sul estatua, Brasil
21. Tocantins estatua, Brasil
22. Toskanako gobernuak, Italia
23. Wallonia-ko gobernuak, Belgika

### Konferentzian parte hartu duten elkarteak

1. Association of European Regions
2. Conference des Regions Peripheriques Maritimes
3. The Northern Forum
4. Committee of the Regions of the European Union

